

ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

## ETXEBIZITZA ESKATZAILEEN BERARIAZKO TALDEEN AZTERKETA




2010eko ekaina


Servicio de Estudios, Planificación y Presupuestos  
Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzua

Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 98 71 – Fax 945 01 98 55 – 01010 Vitoria-Gasteiz






|  |           |
|--|-----------|
| <b>1. SARRERA</b> .....  | <b>4</b>  |
| <b>2. GAZTEEN ETXEBIZITZA BEHARRA</b> .....                          | <b>6</b>  |
| 2.1. Taldearen ezaugarriak .....                                     | 6         |
| 2.1.1. Ezaugarri soziodemografikoak .....                            | 6         |
| 2.1.2. Beharren ezaugarriak.....                                     | 14        |
| 2.2. Taldeak egiten duen balorazioa .....                            | 22        |
| 2.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa .....                      | 22        |
| 2.2.2. Beharraren balorazioa .....                                   | 23        |
| 2.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa.....                       | 24        |
| 2.2.4. Jarduera-proposamenak.....                                    | 33        |
| 2.3. Esperientzia interesgarriak .....                               | 35        |
| 2.4. Ebaluazio-adierazleak .....                                     | 38        |
| <b>3. ADINEKOEN ETXEBIZITZA BEHARRA</b> .....                        | <b>39</b> |
| 3.1. Taldearen ezaugarriak .....                                     | 39        |
| 3.1.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak .....                       | 39        |
| 3.1.2. Beharren ezaugarriak.....                                     | 43        |
| 3.2. Taldeak egiten duen balorazioa .....                            | 50        |
| 3.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa .....                      | 50        |
| 3.2.2. Etxebizitza-beharraren balorazioa.....                        | 52        |
| 3.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa.....                       | 53        |
| 3.2.4. Jarduera-proposamenak.....                                    | 59        |
| 3.3. Esperientzia interesgarriak .....                               | 62        |
| 3.4. Ebaluazio-adierazleak .....                                     | 66        |
| <b>4. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ETXEBIZITZA BEHARRA</b> ..... | <b>69</b> |
| 4.1. Taldearen karakterizazioa.....                                  | 69        |
| 4.1.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak .....                       | 69        |
| 4.1.2. BEHARREN EZAUGARRIAK .....                                    | 76        |
| 4.2. Taldeak egiten duen balorazioa .....                            | 82        |
| 4.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa .....                      | 82        |



|           |   |            |
|-----------|---|------------|
| 4.2.2.    | Etxebizitza-beharraren balorazioa.....        | 84         |
| 4.2.3.    | Etxebizitza-politikaren balorazioa.....       | 86         |
| 4.2.4.    | Jarduera-proposamenak.....                    | 93         |
| 4.3.      | Esperientzia interesgarriak .....             | 93         |
| 4.4.      | Ebaluazio-adierazleak .....                   | 95         |
| <b>5.</b> | <b>ATZERRITARREN ETXEBIZITZA BEHARRA.....</b> | <b>97</b>  |
| 5.1.      | Taldearen ezaugarriak .....                   | 97         |
| 5.1.1.    | Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak .....       | 97         |
| 5.1.2.    | Beharren ezaugarriak.....                     | 102        |
| 5.2.      | Taldeak egiten duen balorazioa .....          | 108        |
| 5.2.1.    | Etxebizitza-merkatuaren balorazioa .....      | 108        |
| 5.2.2.    | Etxebizitza-beharraren balorazioa.....        | 110        |
| 5.2.3.    | Etxebizitza-politikaren balorazioa.....       | 113        |
| 5.2.4.    | Jarduera-proposamenak.....                    | 119        |
| 5.3.      | Esperientzia interesgarriak .....             | 120        |
| 5.3.1.    | Ebaluazio-adierazleak .....                   | 121        |
| <b>6.</b> | <b>LABURPENA ETA ONDORIOAK .....</b>          | <b>122</b> |



## 1. SARRERA

Gaur egungo testuinguru sozio-ekonomikoan, EAEko biztanleriaren multzo zabal batek adierazi du etxebizitza-beharra duela eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituela. Alde batetik, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen taldea dago eta, bestetik, jada osatu diren eta lehenengo etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharra duten familiak daude. Etxebizitza-behar horiei guztiei buruz hitz egiten da "EAEko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko 2008ko Inkestan" eta "EAEko birgaikuntzari buruzko Txostenean".


Hala ere, txosten honetan etxebizitza eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten hainbat talderen etxebizitza-beharra aztertzen saiatu gara. Ildo horretan, 2009-2012 aldirako Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planaren arabera, lehentasunez babestu beharko lirateke ondoren adierazitako taldeak:

1.1 taula. Arreta bereziko taldeak, 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planean barne hartutakoak.

- Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa (IPREM\*) 1,5 aldiz gainditzen ez duten sarrerak dituzten sendiguneak, etxebizitza alokairuan eskuratzeko, eta IPREM 2,5 aldiz gainditzen ez duten sendiguneak, etxebizitza jabetzan eskuratzeko.
- Etxebizitza lehen aldiz eskuratu nahi duten pertsonak.
- 35 urtetik beherako gazteak.
- 65 urtetik gorako pertsonak.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.
- Terrorismoaren biktimak.
- Egoera ikaragarri txarrek eragindako pertsonak.
- Familia ugariak.
- Seme/alabak dituzten familia gurasobakarrak.
- Mendeko pertsonak edo ofizialki aitortutako ezintasuna dutenak, eta horien ardura duten familiak.
- Banandu edo dibortziatu diren pertsonak, mantenu-pentsioen eta, hala badagokie, konpentsazio-pentsioen ordainketak egunean dituztenak.
- Etxerik ez duten pertsonak edo txabolismoarekin amaitzeko eragiketarako eragindako pertsonak.
- Gizarte-bazterkeria bizi duten edo pairatzeko arriskua duten hainbat talde; autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek zehaztu dituzte.

\* 2009an urteko 6.326,86 eurokoa zen IPREM adierazlearen balioa.

Iturria: 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Plana.



Autonomia-erkidego gehienek landu dituzten etxebizitza-planetan barne hartzen dira 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planean bereizitako taldeak. EAEn dagokionez, eta etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura arautzen duen araudia kontuan hartuta, esleipen-kupoak daude, eta lehentasunezko arretako taldeetatik jo daitezke.

#### 1.2 taula EAEn etxebizitza babestuaren esleipenean lehentasunezko arreta duten kupoak


- Desgaitasunak dituzten pertsonak edo mugikortasun murriztu iraunkorra dutenak (edo horien gurasoak)
- 35 urtetik beherako gazteak.
- 5 kide edo gehiago dituzten bizikidetzeta-unitateak.
- Beren kargura seme/alabak dituzten familia gurasobakarrak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- Pertsona banandu edo dibortziatuak.
- 70 urtetik gorako pertsonak.

Iturria: EAEn Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Gaur egun EAEn etxebizitzaren esparruak bizi duen errealitatea ikusita, azken edizio honetan pertsona gazteak, adinekoak, desgaitasunak dituztenak eta atzeritarrak dira aztertutako taldeak.

Talde bakoitzaren ezaugarri sozio-demografikoak, ekonomikoak eta etxebizitzarekin erlazionatutakoak deskribatzeaz gain, bakoitzak aitortutako etxebizitza-beharra hobeto ezagutzeko informazioa jaso da. Talde bakoitzak egin duen babes ofizialeko etxebizitzaren eskariari buruzko informazioa eskaintzen da, halaber. Bestalde, azterketaren xede diren taldeek etxebizitzaren merkatuaren, etxebizitza-beharraren eta gaur egungo etxebizitza-politikaren inguruan egindako balorazioa barne hartzen da.

Txostena osatzeko metodologia kuantitatiboa jarraitu da -hainbat iturritako estatistika-datuak jaso dira- eta metodologia kualitatiboa jarraitu da, halaber -elkarrizketa pertsonalak egin dira aztertutako talde bakoitzeko ordezkariekin.



## 2. GAZTEEN ETXEBIZITZA BEHARRA

### 2.1. Taldearen ezaugarriak


#### 2.1.1. Ezaugarri soziodemografikoak

##### a) Taldearen kuantifikazioa

Gazteen etxebizitza-beharraren kualifikazioari heldu aurretik, arretaren xede den talde honen kuantifikazioa egin da. Horrela, Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztearen 2009ko bigarren hiruhileko txostena erreferentzia gisa hartuta, EAEn gaur egun 18-34 urte arteko 449.904 pertsona gazte eta 110.182 familia gazte baino gehiago daude.

Familiaburuen tasari dagokionez -familia batean erreferentziazkoa den pertsonen portzentajea aztertzen ari garen adin-taldeko kide guztiekiko- % 24,5ekoa da EAEn, Estatuan erregistratutakoaren (% 24,6) parean.

EAEko gazte guztien artetik 189.459 jada emantzipatuta daude (taldearen % 44). Hain zuzen ere, EAEn 260.445 gazte daude emantzipatu gabe. EAEko emantzipazio-tasa Estaturkoa baino zerbait baxuagoa da: euskal gazteen % 44 emantzipatuta daude, eta % 47 dira Estatuan.



## 2.1. taula Familiaburuen tasa eta emantzipazio-tasa adin-taldeen eta sexuaren arabera EAEn


|                        | Familiaburuen tasa* | Emantzipazio-tasa** |
|------------------------|---------------------|---------------------|
| <b>Adina</b>           |                     |                     |
| 18-24 urte             | 4,0                 | 10,2                |
| 25-29 urte             | 22,7                | 41,2                |
| 30-34 urte             | 41,8                | 72,8                |
| <b>Sexua</b>           |                     |                     |
| Gizonezkoak            | 25,7                | 39,0                |
| Emakumezkoak           | 23,3                | 49,3                |
| <b>GAZTEAK GUZTIRA</b> | <b>24,5</b>         | <b>44,1</b>         |

\*Familiaburuen tasa: familia batean erreferentziatzeko kidea den pertsonen portzentajea, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.

\*\*Emantzipazio-tasa: jatorrizko familiatik kanpora bizi diren pertsonen portzentajea, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.


Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.

## 2.1 grafikoa Familiaburuen tasa eta emantzipazio-tasa EAEn eta Estatuan



Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.


Emantzipazio-prozesuei dagokienez, 2008ko Pobretasunari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren azken txostenaren arabera, EAEn 126.199 pertsonak aitortu dute familia independente berri bat sortzeko gogoia, eta horietatik 107.300ek adierazi dute ezinezkoa zaiela, baliabide ekonomikorik ez dutelako.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

Txostenaren datuek erakusten dutenez, soldatako langileen artean askok pairatzen dute baliabide nahikoa ez edukitzeagatik independizatzeko ezintasuna, baita aldeko egoerak dituzten langileen artean ere (kontratu finkoa duten langileak, adibidez). Independizatzeko arazoak sortzen dituzten bi arrazoi nagusien artean aipatu dira, oinarrizko beharrei erantzuteko sarrera nahikoa ez edukitzea eta etxebizitzarik ez lortzea.





2.2. taula EAEn gazteek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerekin erlazionatutako adierazle nagusiak


|  | Adierazlea  | EAE                | Data     | Iturria  |
|--|---|--------------------|----------|----------|
| Adierazle demografikoak  | Gazteak (18-34 urte)  | 449.904            | 2009     | OBJOVI   |
|  | Gazteen % biztanleriaren guztizkoarekiko  | 21,2               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Familia gazteak (18-34 urte)  | 110.182            | 2009     | OBJOVI   |
|  | % familien guztizkoarekiko  | 12,9               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Familiaburuen tasa*   | 24,5               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Gazte emantzipatuak   | 189.459            | 2009     | OBJOVI   |
|  | Biztanle emantzipatuen % gazteen guztizkoarekiko                                  | 44,1               | 2009     | OBJOVI   |
| Emantzipazio-tasa**  | 44,1  | 2009               | OBJOVI   |          |
| Adierazle ekonomikoak  | Biztanleria aktiboaren %/jarduera-tasa  | 78,2               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Lanean ari diren biztanleen%/enplegu-tasa   | 66,5               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Aldi baterako kontratazioaren % gazteen guztizkoarekiko                           | 22,1               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Langabezia-tasa   | 15,0               | 2009     | OBJOVI   |
|  | Gazte baten batez besteko soldata   | 17.490,78          | 2009     | OBJOVI   |
|  | Familia gazte baten sarrerak  | 27.980,18          | 2009     | OBJOVI   |
|  | Jabetza lortzeko kostua familia gazte batentzat                                   | 48,5%              | 2009     | OBJOVI   |
| Jabetza lortzeko kostua gazte batentzat  | 77,6%   | 2009               | OBJOVI   |          |
| Etxebizitza-adierazleak  | Etxebiden izena emandako gazteak (<35 urte)                                       | 67.456             | 2009     | Etxebide |
|  | Gazteen % Etxebiden izena emandakoen guztizkoarekiko                              | 58,2%              | 2009     | Etxebide |
|  | Izena emandakoen tasa gazteen guztizkoarekiko                                     | 14,8%              | 2009     | Etxebide |
|  | Gazteen eskaera-txostenak   | 56.275             | 2009     | Etxebide |
|  | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten kideak dituzten familiak***                 | 74.461 etxebizitza | 2008     | EBEI, EJ |
|  | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ordain dezaketen prezioa | 168.072 euro       | 2008     | EBEI, EJ |
|  | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen hileko ordainketa-ahalmena        | 580,06             | 2008     | EBEI, EJ |
|  | Etxebizitza aldatzeko beharra duten familia gazteak (35 urte baino gutxiago)      | 4.744 etxebizitza  | 2008     | EBEI, EJ |
| Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familia gazteak (35 urte baino gutxiago) | 5.790 etxebizitza   | 2008               | EBEI, EJ |          |

\*Familiaburuen tasa: familia batean erreferentziarako kidea den pertsonen portzentajea, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.

\*\*Emantzipazio-tasa: jatorrizko sendigunetik kanpora bizi diren pertsonen portzentajea, adin bereko pertsonen guztizkoarekiko.

\*\*\* 18-44 urte arteko pertsonak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak eta sarrera propioak dituztenak.

Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta. Bertan landutakoa.



## b) Ezaugarri sozioekonomikoak

Etxebizitza bat erosteko zein alokatzeko orduan gazteek duten zailtasun nagusia bizi duten lan-egoera kaxkarraren ondoriozko ahalmen ekonomiko baxua da; alegia, ez dute gaitasunik etxebizitza bat eskuratu eta ondoren ordainketak egiteko.

EAEri dagokionez, eta Etxebizitzaren Behategi Gazteak 2009ko bigarren hiruhilekoan emandako datuen arabera, euskal gazteen % 78 biztanle aktiboak dira eta % 66,5 lanean ari dira. Gazteen langabezia-tasa % 15ekoa da, aldi berean Estatuan erregistratutakoa (% 23,5) baino baxuagoa.

EAEko gazteen % 60 soldatakoak badira ere, hiru gazteen artetik bik kontratu finkoa dute eta % 37k, berriz, aldi baterako kontratua.

### 2.3. taula Gazteen lan-baldintzak EAEn


|                        | Jarduera-tasa* | Enplegu-tasa** | Langabezia-tasa*** | soldatako biztanleen % | kontratu finkoa dutenen % | aldi baterako kontratua dutenen % |
|------------------------|----------------|----------------|--------------------|------------------------|---------------------------|-----------------------------------|
| <b>Adina</b>           |                |                |                    |                        |                           |                                   |
| 18-24 urte             | 51,2           | 37,1           | 27,5               | 34,9                   | 43,5                      | 56,5                              |
| 25-29 urte             | 90,4           | 78,6           | 13,1               | 72,4                   | 59,9                      | 40,1                              |
| 30-34 urte             | 89,6           | 79,8           | 10,9               | 69,7                   | 73,7                      | 26,3                              |
| <b>Sexua</b>           |                |                |                    |                        |                           |                                   |
| Gizonezkoak            | 80,4           | 67,9           | 15,6               | 59,4                   | 66,4                      | 33,6                              |
| Emakumezkoak           | 75,9           | 65,0           | 14,4               | 60,5                   | 60,0                      | 40,0                              |
| <b>GAZTEAK GUZTIRA</b> | <b>78,2</b>    | <b>66,5</b>    | <b>15,0</b>        | <b>60,0</b>            | <b>63,2</b>               | <b>36,8</b>                       |

\* Jarduera-tasa: biztanleria aktiboaren portzentajea adin bereko biztanleriaren guztizkoarekiko.


\*\* Enplegu-tasa: lanean ari den biztanleriaren portzentajea adin bereko biztanleriaren guztizkoarekiko.

\*\*\* Langabezia-tasa: langabezian dagoen biztanleriaren portzentajea adin bereko biztanleria aktiboaren guztizkoarekiko.

Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.



## 2.2. grafikoa Gazteen lan-baldintzak EAEn eta Estatuan



Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.


Etxebizitzaren Behategi Gaztearen datu ekonomikoen arabera, EAEko gazteen batez besteko soldata urteko 17.491 eurokoa da; 27.980 eurora iristen da, bestalde, familia gazteen kasuan. Bi kopuruak Estatuan erregistratutakoen gainetik daude; izan ere, Estatuan 15.042 eurokoa da gazte baten batez besteko soldata eta 23.053 euroko batez besteko sarrerak dituzte familia gazteek.

## 2.4. taula Gazteen erosteko ahalmena EAEn

|                        | Gazte baten soldata | Familia gazte baten sarrerak |
|------------------------|---------------------|------------------------------|
| <b>Adina</b>           |                     |                              |
| 18-24 urte             | 13.906,5            | 24.196,8                     |
| 25-29 urte             | 17.079,1            | 25.414,5                     |
| 30-34 urte             | 20.063,0            | 29.060,1                     |
| <b>Sexua</b>           |                     |                              |
| Gizonezkoak            | 19.053,5            | 28.355,4                     |
| Emakumezkoak           | 15.598,2            | 27.433,0                     |
| <b>GAZTEAK GUZTIRA</b> | <b>17.490,8</b>     | <b>27.980,2</b>              |

Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.

Iturri bereko datuei helduta, familia gazte batek etxebizitza bat erosteko gehienez ere ordain dezakeen prezioa 171.903 eurokoa da EAEn eta 107.459 eurokoa, berriz, pertsona gazteen kasuan. Modu berean, aipatzekoa da EAEn familia gazte batek bere sarreren % 49 bideratu behar duela etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko; % 78koa da portzentajea




gazteen kasuan. Bi kasuetan Estatuan erregistratu diren batez bestekoak gaintitu dira.

2.5. taula Pertsona eta familia gazteek etxebizitza eskuratzeko egin beharreko ahaleginaren adierazleak EAEn

|                        | Gehienez ere ordain daitekeen prezioa |                  | Merkatuan sartzeko kostua |                 | Gehienez ere ordain daitekeen errenta |                 |
|------------------------|---------------------------------------|------------------|---------------------------|-----------------|---------------------------------------|-----------------|
|                        | Familia gaztea                        | Pertsona gaztea  | Familia gaztea            | Pertsona gaztea | Familia gaztea                        | Pertsona gaztea |
| <b>Adina</b>           |                                       |                  |                           |                 |                                       |                 |
| 18-24 urte             | 148.658,7                             | 85.437,7         | 56,1                      | 97,6            | 604,9                                 | 347,7           |
| 25-29 urte             | 156.139,7                             | 104.929,1        | 53,4                      | 79,5            | 635,4                                 | 427,0           |
| 30-34 urte             | 178.537,3                             | 123.261,4        | 46,7                      | 67,7            | 726,5                                 | 501,6           |
| <b>Sexua</b>           |                                       |                  |                           |                 |                                       |                 |
| Gizonezkoak            | 174.207,8                             | 117.059,4        | 47,9                      | 71,3            | 708,9                                 | 476,3           |
| Emakumezkoak           | 168.540,7                             | 95.831,2         | 49,5                      | 87,0            | 685,8                                 | 390,0           |
| <b>GAZTEAK GUZTIRA</b> | <b>171.902,7</b>                      | <b>107.458,7</b> | <b>48,5</b>               | <b>77,6</b>     | <b>699,5</b>                          | <b>437,3</b>    |


Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.

2.3. grafikoa Pertsona eta familia gazteek etxebizitza eskuratzeko egin beharreko ahaleginaren adierazleak EAEn eta Estatuan




Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.

Interesgarria da, halaber, familia gazte batek alokairuagatik ordain dezakeen gehieneko errenta batez beste hileko 700 eurokoa dela azpimarratzea, eta 437 eurokoa dela bakarrik egiten duten pertsona gazteen kasuan.



2.4. grafikoa Pertsona eta familia gazteek gehienez ordain dezaketen errenta EAEn eta Estatuan.



Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.


Amaitzeko, etxebizitzarekin lotutako ordainketak egiteko gehienez ere sarreraren % 30 erabiltzen dela suposatuz kalkulatu da pertsona edo familia gazte batek ordaindu ahal izango duen etxebizitzaren gehieneko tamaina. Horren arabera, gehieneko azalera 62 m<sup>2</sup>-koa da familia gazte baten kasuan eta 39 m<sup>2</sup>-koa, berriz, pertsona gazte baten kasuan. Bi kopuruak Estatuan lortutakoak baino baxuagoak dira (74 m<sup>2</sup> eta 48 m<sup>2</sup>, hurrenez hurren, Estatuan).

2.6. taula Pertsona eta familia gazteek gehienez ere eros dezaketen azalera EAEn


|                        | Gehienez ere eros daitekeen azalera* |                 |
|------------------------|--------------------------------------|-----------------|
|                        | Familia gaztea                       | Pertsona gaztea |
| <b>Adina</b>           |                                      |                 |
| 18-24 urte             | 53,5                                 | 30,7            |
| 25-29 urte             | 56,2                                 | 37,7            |
| 30-34 urte             | 64,2                                 | 44,3            |
| <b>Sexua</b>           |                                      |                 |
| Gizonezkoak            | 62,7                                 | 42,1            |
| Emakumezkoak           | 60,6                                 | 34,5            |
| <b>GAZTEAK GUZTIRA</b> | <b>61,8</b>                          | <b>38,6</b>     |

\*Gehienez ere eros daitekeen azalera: jabetzako etxebizitza libre batean eraikitako metro koadroak, etxebizitza erosteko pertsona edo familia gazte baten sarreraren % 30 baina gehiago behar badira.

Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.



## 2.5. grafikoa Pertsona eta familia gazteek gehienez ere eros dezaketen azalera EAEn eta Estatuan



Iturria: Espainiako Etxebizitzaren Behategi Gaztea, 2009ko bigarren hiruhilekoa.


### 2.1.2. Beharren ezaugarriak

#### a) Etxebizitza eskuratzeko beharraren kuantifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak erakusten duenez, euskal familien % 8,65ean daude lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteak<sup>1</sup>. Kopuru absolutuetan, guztira 74.461 etxebizitza behar dira lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari erantzuteko<sup>2</sup>. Bilakaerari erreparatzen bazaio, Inkestak lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak behera egin duela erakusten du, aurreko urteetan lortutako datuekin alderatuz.


<sup>1</sup> Eskuratzeko beharra duten pertsonak 18-44 urteko pertsonak dira, familiaren etxetik irten nahi dute eta etxe berri batera joan independizatzeko, ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko eta beharra bideragarri egiten duten diru-sarrerak dituzte.

<sup>2</sup> Eskuratzeko beharra esatean 18-44 urte, sarrera propioak eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak barne hartzen dira.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

## 2.6. grafikoa Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren bilakaera. EAE 1998-2008




(\*) Estimazio-oinarriak aldatu zireneko urteak.

(\*\*) 2005etik 2007ra arteko balioak berriro zenbatetsi dira, erabilgarri dauden familien datu berrien arabera


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Lurralde historikoka, honakoak etxebizitza eskuratzeko beharrarekin lotuta lortu diren kopuru absolutuak: Bizkaian etxebizitza eskuratzeko beharra duten 39.052 familia daude; 24.417 Gipuzkoan eta 10.992 Araban.

## 2.7. grafikoa Etxebizitza eskuratzeko beharraren banaketa lurralde historikoka



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.




***b) Etxebizitza eskuratzeko beharraren ezaugarriak***

EAEko 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko sarrerak 1.603 eurokoak dira hilean; talde berak aitortu du etxebizitzagatik hilean 580 euro ordain ditzakeela, eta, horren arabera, % 36ko finantza-ahalegina egin behar dute.

Inkesta berari helduta, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ere 168.072 euroko prezioa duen etxebizitza bat eros dezakete. Horrela, gazte batek bere sarrera garbiak osorik etxebizitza ordaintzera bideratuko balitu, 7,5 urte beharko lituzke etxebizitza ordaintzeko, hipoteka-maileguaren interesak ordaintzeko kantitateak kanpo utzita.

Eskuratzeko beharra dutenen artetik % 24k etxebizitza beste norbaitekin erosteko asmoa dute. Era berean, eskuratzeko beharra duten pertsonen % 94k baieztatu dute etxea ordaintzeko hipoteka-kreditu bat eskatuko luketela, etxebizitzaren erosketa-prezioaren % 79koa hain zuzen ere.





2.7. taula Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen ezaugarri sozioekonomikoak EAEn


|  | Eskuratzeko beharra guztira |
|--|-----------------------------|
| <b>Adina</b>                                 |                             |
| 18-24 urte bitartean                         | 31,9                        |
| 25-34 urte bitartean                         | 54,8                        |
| 35 urte eta gehiago                          | 13,4                        |
| <b>Batez besteko adina (urteak)</b>          | <b>28,7</b>                 |
| <b>Sexua</b>                                 |                             |
| Gizonezkoak                                  | 43,5                        |
| Emakumezkoak                                 | 56,5                        |
| <b>Lan-egoera</b>                            |                             |
| Lanean/bere kontura                          | 6,5                         |
| Lanean/kontratu finkoa                       | 51,6                        |
| Lanean/aldi baterako kontratua               | 32,4                        |
| Langabezian                                  | 7,0                         |
| Hainbat (ikaslea)                            | 1,9                         |
| Eg/Ee  | 0,6                         |
| <b>Finantza-ahalmena</b>                     |                             |
| Batez b. diru-sarrerak (eurotan)             | 1.603,0                     |
| Hileko ordainketa-ahalmena (eurotan)         | 580,1                       |
| finantza-ahaleginaren %                      | 36,2                        |
| Ordain daitekeen gehieneko prezioa (eurotan) | 168.072                     |
| finantzaketa partekatua %                    | 23,6                        |
| kreditua eskatzen dutenen %                  | 93,7                        |
| *eskatuko den kredituaren %                  | 79,2                        |

\* Kreditua eskatuko duten pertsonen gaineko portzentajea.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Otik 100era arteko eskala batean, 71 puntukoa da etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteek aitortutako batez besteko behar-maila. Gainera, % 42k adierazi dutenez, 4 urte baino gehiago daramatzate lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari erantzun gabe, eta erdiak baino gehiagok (% 68) uste du etxebizitza eskuratzeko lortuko duela 4 urteren buruan.

Gurasoen etxetik irteteko nahia da etxebizitza eskuratzeko beharra sortzen duen arrazoi nagusia: erantzunen % 69 hartzen ditu. Ondoren dago, garrantziaren arabera, bikotekidearekin bizitzeko gogoia (% 26).




## 2.8. taula Etxebizitza eskuratzeko beharren ezaugarriak EAEn

|   | Eskuratzeko beharra guztira |
|---|-----------------------------|
| <b>Beharren ezaugarriak</b>   |                             |
| Batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                                     | 71,1                        |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                    | 42,1                        |
| 4 urteren buruan eskuratzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 68,2                        |
| <b>Beharraren arrazoiak</b>   |                             |
| Ezkontzea   | 1,4                         |
| Bikotekidearekin bizitzea   | 26,0                        |
| Independizatzeta  | 69,2                        |
| Lana dela eta lekualdatzea  | 0,7                         |
| Beste hainbat arrazoi   | 2,7                         |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>                |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Eskuratzeko beharra duen taldeak eskatzen dituen etxebizitzaren ezaugarriak erreparatuz, eta baldintza ekonomikoak kontuan hartuta, batez beste 64 m<sup>2</sup>-ko azalera duen etxebizitza bat eskatzen dute. Taldeko % 60k aitortu dute jabetzako etxebizitza bat edukitzeko beharra dutela; % 10ek alokairua bakarrik nahi dute; eta gainerako % 30eri berdina da.

## 2.8. grafikoa Eskuratzeko beharra duen taldeak behar duen etxebizitzaren jabetza-erregimenaren banaketa




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



### c) Etxebizitza babestuaren eskaria


Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan 35 urte baino gutxiago duten 67.464 pertsona daude izena emanda etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa, hau da, EAEko gazteen % 15. Izena emanda dauden pertsona guztiak hartuta, gazteak dira Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaileen guztizkotik % 58. Bilakaerari erreparatzen bazaio, Etxebiden izena emanda dagoen gazte kopurua nahiko egonkor mantentzen dela esan daiteke.

2.9. grafikoa Etxebiden izena emanda dagoen 35 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera, 2005-2009




Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Adin-taldeak bereiziz, izena emanda dauden gazteen % 9k 18-24 urte bitartean dituzte, % 45ek 25-29 artean eta gainerako % 46k, azkenik, 30 eta 34 urte artean.



2.10. grafikoa Etxebiden izena emanda dagoen 35 urtetik beherako biztanleriaren banaketa adin-taldean arabera, 2009




Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Etxebiden izena emanda dauden gazteen artetik % 53 gizonetzkoak dira eta % 47 emakumezkoak. Gehienak (% 92) ezkongabeak dira, eta banako eskaerak egin dituzte kasu gehienetan (% 82).

Etxebizitza babestuaren eskatzaile diren gazteen sarrera-mailari dagokionez, batez beste 15.740 euro irabazten dituzte urtean banakako eskatzaileek, eta kopuru hori 18.621 eurokoa da familien sarreren kasuan<sup>3</sup>. Bi kopuruak eskatzaileen guztizkoaren batez besteko sarreren antzekoak dira.

<sup>3</sup> Familiaren sarreren barruan kontuan hartzen da eskaera-txostenean barne hartutako pertsonen sarrera guztien batura.



2.9. taula Etxebiden izena emanda dagoen 35 urtetik beherako biztanleriaren ezaugarriak, 2009


| Bertikalaren %                                | 35 urte baino gutxiago | Izena emandakoak guztira |
|---|------------------------|--------------------------|
| <b>Sexua</b>                                  |                        |                          |
| Gizonezkoak                                   | 52,7                   | 52,2                     |
| Emakumezkoak                                  | 47,3                   | 47,8                     |
| <b>Egoera zibila</b>                          |                        |                          |
| Ezkongabea                                    | 91,7                   | 75,5                     |
| Ezkondua                                      | 7,3                    | 16,6                     |
| Alarguna                                      | 0,0                    | 1,2                      |
| Banatua                                       | 0,3                    | 3,1                      |
| Dibortziatua                                  | 0,7                    | 3,5                      |
| <b>Banakako sarreraren banaketa</b>           |                        |                          |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 4,5                    | 5,1                      |
| 9000 € arte                                   | 15,7                   | 19,1                     |
| 9.001-25.000 €                                | 66,3                   | 62,9                     |
| 25.001-39.000 €                               | 12,8                   | 12,1                     |
| 39.001-50.000 €                               | 0,7                    | 0,8                      |
| > 50.000 €                                    | 0,1                    | 0,1                      |
| <b>Batez besteko banakako diru-sarrerak</b>   | <b>15.740,1</b>        | <b>15.925</b>            |
| <b>Familiaren diru-sarreraren banaketa</b>    |                        |                          |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 1,3                    | 1,7                      |
| 9000 € arte                                   | 10,8                   | 13,6                     |
| 9.001-25.000 €                                | 66,5                   | 63,0                     |
| 25.001-39.000 €                               | 19,2                   | 19,1                     |
| 39.001-50.000 €                               | 2,0                    | 2,3                      |
| > 50.000 €                                    | 0,2                    | 0,3                      |
| <b>Familiaren batez besteko diru-sarrerak</b> | <b>18.620,8</b>        | <b>18.508</b>            |
| <b>Txosten mota</b>                           |                        |                          |
| Banakako eskaerak                             | 81,5                   | 72,8                     |
| Sendiguneak                                   | 18,5                   | 27,2                     |

Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.


Amaitzeko, Etxebideren txostenak aztertuz ikus daitekeen moduan, gazteen % 44k jabetzako etxebizitza babestu bat nahi dute; % 17k alokairua bakarrik nahi dute eta gainerako % 39ri berdin zaie.

Alokairuko etxebizitza babestuaren eskaria (% 56<sup>4</sup>), lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen adierazitakoaren (% 40) gainetik dago. Kopuru absolutuetan, alokairuko etxebizitza babestuaren eskaria alokairua eskatzen duten 31.236 txostenek osatzen dute EAEn.

<sup>4</sup> Alokairuaren eskarian barne hartu dira alokairua bakarrik eskatzen duten pertsonak eta etxebizitza alokatu zein erosi nahi duten pertsonak.



## 2.11. grafikoa Gazteek Etxebiden eskatzen duten etxebizitza babestuaren edukitza-erregimena



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


## 2.2. Taldeak egiten duen balorazioa

### 2.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa

2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta kontuan hartuta esan daiteke, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten biztanle gehienek uste dutela etxebizitza librearen eskaintza ez dela beraien ezaugarrietara egokitzen. Horrela, eskuratzeko beharra duten pertsonen indize sintetikoa -0 (egokitzapenik ez) eta 100 (egokitzapen osoa) arteko indizea- 26 puntukoa da.

Etxebizitza librearen prezioek azken urtean ezagutu duten bilakaerari dagokionez, gazte gehienek (jasotako erantzunen % 44k) uste dute prezioak nahiko egonkor mantendu direla azken urtean.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari erantzuteko aukerei buruz galdetzean, eta duela urtebete zuten egoerarekin alderatzeko eskatzean, gazteek jarrera nahiko egonkorra erakutsi dute eta 55 puntuko batez bestekoa erregistratu da 0-100 eskalan.



Etxebizitza babestuaren merkatuari buruz duten iritzia jaso da inkestan, halaber. Horrela, eskuratzeko beharra duten pertsonen erdiak uste dute babes publikoko gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen direla.

#### 2.10. taula Eskuratzeko beharra duten pertsonen etxebizitza-merkatuaren balorazioa

| (0-100 batez besteko indizea)   | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak |
|---|---|
| Eskaintza libreak eskatzaileen behar/aukerekiko duen egokitzapena (0-100 batez besteko indizea) | 25,8  |
| Etxebizitzen prezioak azken 12 hilabeteetan izandako bilakaera (0-100 batez besteko indizea)    | 43,5  |
| Beharra asetzeko probabilitatea, aurreko urtearen aldean (0-100 batez besteko indizea)          | 55,3  |
| Etxebizitza babestuaren eraikuntzaren bilakaera (0-100 batez besteko indizea)                   | 59,0  |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

#### 2.2.2. Beharraren balorazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2007an argitaratutako "Jóvenes y Vivienda 3. Una Mirada Joven sobre el Problema de la Vivienda" txostenak erakusten duen moduan, *etxebizitza bat eduki ahal izatea gizabanako orok duen oinarrizko behar bat da, eta, gazteen kasuan, zerbait gehiago esan nahi du: jatorrizko familia utzi eta emantzipatzeko aukera da, bai eta bizitza autonomia egiteko proiektu baten hasiera ere.*

*Gazteen arazo nagusia emantzipatzeko ezintasuna da. Gurasoen etxetik alde egiteaz gain, bizi-prozesu propio bat hasteko aukera lortuko dute emantzipatzean. Hori guztia lortzeko oztopo nagusiak lan-baldintzak eta etxebizitza dira.*

Erreferentzia gisa 2009ko azaroko CIS erakundearen Barometroa hartzen badugu, etxebizitza da hirugarrena 18-34 urte arteko biztanleen artean kezka gehien sortzen duten arazoaren rankingean, % 15-16k aipatu dutelarik, eta ondoren aipatu dituzte langabezia eta arazo ekonomikoak.



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ustez, etxebizitzarekin lotuta adierazitako arazoan artean lan-egoera ezegonkorra aipa daiteke gazteek gehien aipatzen duten arazo gisa. Lan-egoera ezegonkorra eta sarrera baxuak dituztelarik, are zailagoa egiten zaie etxebizitza eskuratzea -erostea zein alokatzea.

*Biztanleriaren gainerakoarekin alderatuz, gazteek ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dute etxebizitza baten erosketa edo alokairua ordaintzeko, lan-egoera ezegonkorragoa dutelako. Gazteen errealitatea askoz ere ezegonkorragoa da.*

*Gazteen bizi-proiektua definitu gabe dago oraindik, eta, ondorioz, zaila da etxebizitza baten erosketan edo alokairuan pentsatzea.*

EAEko etxebizitza-merkatuaren errealitatea gainerako autonomia-erkidegoetakoeekin alderatuz, gazteen ustez bizi-kalitate hobea dugu EAEn, baina emantzipatzeko zailtasun handiagoak ditugu, izan ere, etxebizitza baten erosketari zein alokairuari aurre egiteko finantza-ahalegin izugarria egin behar da.


*Estatuarekin alderatuz, EAEn bizi-kalitate hobea dugu, baina baxuagoa da, ordea, emantzipazio-tasa eta handiagoa da, berriz, alokairu bat ordaintzeagatik egin behar den finantza-ahalegina. Eta Europarekin alderatuz, EAEko egoera are okerragoa da.*

### 2.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa

#### a) Etxebizitza-politikaren xede diren taldeak

Etxebizitza-politiketan arreta berezia eman beharreko taldeei helduta, gazteak ados agertu dira biztanleria osoaren etxebizitza-beharrak erantzungo dituen etxebizitza-politika unibertsal baten beharra azpimarratzean.





Hala ere, gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa dela eta, taldeari arreta berezia eskaintzeko eskatzen da. Gazteei jatorrizko familiarik emantzipatzen laguntzeko esku-hartze integral baten beharra azpimarratzen da.

*Etxebizitza-politika unibertsalak behar dira, baina, kontuan hartuta gazteek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasunak, arreta berezia eman beharko litzaiekeela uste dugu. Hala ere, esku-hartze integral baten beharra azpimarratzen dugu.*

Euskal gazteen ustez, gaur egungo etxebizitza-politikarekin eta horren ondoriozko jarduerekin ez da lortuko gazteen etxebizitza-beharrak erantzutea, ez baita etxebizitza babestuaren eskaintza nahikoa egiten.


*Ez da nahikoa euskal gazteen beharrei erantzuteko.  
Ez da etxebizitza babestuaren eskaintza nahikoa egiten gazteen beharrei erantzuteko.*

## **b) Etxebizitzaren arazoaren konponbideak**

Etxebizitzaren arazoaren konponbideen artean, gazte gehienak babes publikoko etxebizitza gehiago eraikitzearen alde agertu dira; % 44k aipatu dute. Bestalde, harrera bikaina lortu du taldean gazteentzako apartamentuak sustatzeko neurriak.

*Gazteentzako apartamentuen balorazioa  
Aukera ona da. Kudeaketa publikoa du, prezio baxuekin.  
Etxebizitza txikiak ez dira proposamen txarra. Etxebizitza oso handiak gastu hutsa dira ikuspegi ekologikotik. Etxebizitzen tamaina birplanteatu beharko litzateke.*

Gazteek adierazitako beste aukera batzuen artean, interes-tasak jaisteko, lurzorua merkeagotzeko eta alokairua sustatzeko neurriak aipa daitezke.



2.11. taula EAEko etxebizitzaren arazoa konpontzeko soluzio posibleen balorazioa eskuratzeko beharra duten pertsonen aldetik

| baiezkoen %                              | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak |
|--|---|
| Etxebizitza babestu gehiago egitea       | 43,5  |
| Interes-tasak jaitea                     | 27,6  |
| Lurzorua merkatzea                       | 26,8  |
| Alokairua sustatzea                      | 24,9  |
| Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea | 22,3  |
| Erosteko laguntza gehiago ematea         | 20,0  |
| birgaitze-lanak laguntzea                | 7,6   |
| Eraikuntzari laguntzea                   | 3,4   |
| Beste hainbat neurri                     | 8,7   |
| Eg/Ee                                    | 15,3  |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Alokairua sustatzeko neurriari helduta, gazteek alokairuaren merkatua oso mugatuta dagoela eta alokairu libreak oso garestiak direla uste dute.

*Alokairuko etxebizitza gutxi dago eta ez dago enplegua galtzen bada alokairua ordaintzen jarraitzeko laguntza emango duen diru-poltsarik. Etxebizitza bat alokatzeko oztopo nagusiak dira, prezioa, lan-ezegonkortasuna eta alokairua bizitza osoan mantentzeko zailtasunak; gainera, zaila da norberaren beharretarako alokairu egokia aurkitzea eta sarrerren % 30 baino gehiago ez eskatzea.*

Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik azpimarratu denez, alokairuko etxebizitzak erakargarri izateko, alokairuaren errentak ez du gainditu behar eskatzailearen sarrerren % 30.

*Alokairua interesgarria da, baldin eta sarrerren % 30 gainditzen ez badu eta baldintza horietan bizitza osoan etxebizitza bat edukitzeko aukera ematen badizu. Aitzitik, dirua alperrik galtzen ari zarela dirudi.*



Amaitzeko, etxebizitza jabetzan sustatu edo alokairuan sustatu zalantzaren aurrean, Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik baieztatu denez, euskal gazteek nahiago dute jabetzako etxebizitza bat eduki, baina kontuan hartuta zailtasunak dituztela erosketak eskatzen dituen ordainketak egiteko, alokairuko etxebizitza sustatu beharko litzatekeela uste dute, jabetzaren aurretik. Halaber, gazteek alokairu babestuko etxebizitzaren ordainketak egiteko zailtasunak dituztela aipatzen da.

*Oro har, nahiago da etxebizitza erosi, baina jende askok ezin die aurre egin ordainketei.*

*Etxebizitza librearen erosketak sustatu behar al da?*


*Alokairua lehenetsi behar da.*

*Zailtasunak al daude alokairuko etxebizitzak esleitzeko?*


*Zenbait gaztek zailtasunak dituzte ordainketak egiteko.*

### ***c) Baliabide eta zerbitzu publikoak ezagutzea***

Gazteek oso ondo ezagutzen dute Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua. Hain zuzen ere, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen % 85ek adierazi dute Etxebide ezagutzen dutela; % 13k inoiz jaso dute zerbitzuari buruzko informazioa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen artetik % 68k adierazi dute gaur egun Etxebiden izena emanda daudela, etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa.



2.12. grafikoa Eskuratzeko beharra duten pertsonen Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruz duten ezagupen-maila eta inskripzio-maila



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Bizigune Programak hutsik dagoen etxebizitza librea alokairuko merkatuan eskaintzen du, baina gazteek ez dute gehiegi ezagutzen.

*Uste dut gehiago ezagutzen dutela jabeek, jabearentzako hobariak baititu. Maizterrak oso gutxi ezagutzen du.*

Alokairurako laguntzei dagokienez, eta Etxebizitza Ministerioaren datuak erreferentziatzat hartuta, EAEn 6.655 gaztek jasotzen dute alokairua ordaintzeko Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta izeneko laguntza.


2.12. taula Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta EAEn\*.

|                | Guztira      | Bertikalaren % |
|----------------|--------------|----------------|
| Araba          | 1.107        | 16,7           |
| Bizkaia        | 2.394        | 36,0           |
| Gipuzkoa       | 3.154        | 47,3           |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>6.655</b> | <b>100,0</b>   |

\* 2009ko irailaren 30era arte agindutako ordainketak.

Iturria: Etxebizitza Ministerioa

Hala ere, denboran kaudimen ekonomikoa edukiko dela ziurtatu behar izatea aipatu da gazteen artean laguntzaren oztopo nagusitzat. Izan ere, gazteen enplegu-ezegonkortasuna dela-eta, oso zaila da baldintza hori betetzea. Horrez gain, zalantzan jartzen da laguntza horrek alokairuen prezioak jaisteko duen eraginkortasuna.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

*Adabaki bat da, ez ditu alokairuaren prezioak jaisten.*


*Ordainketa-ahalmen jarraitua erakutsi behar da eta mundu guztiak ez du horretarako beharrezkoa den lan-egonkortasuna. Gutxieneko lan-egonkortasuna frogatu behar da eta mundu guztiak ezin du.*

*Prezioak garestitzen ari dira oraindik. Diru publikoa etxearen jabeari ematen zaio.*


#### **d) Jardueren balorazioa**

Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren bitartez, eskuratzeko beharra duen biztanleriak etxebizitzaren esparruan garatzen diren jardueri buruz duen iritzia jasotzen da.

Taldeak emandako erantzunak kontuan hartuta, gazteen artean adostasun gehien jaso duen neurritzat aipa daiteke alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzea. Horrela, 0-100 eskala batean (erabat ados daudenetik erabat desados daudenera), gazteen artean 89 puntuko batez besteko adostasuna lortu da.




2.13. grafikoa Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzeko neurriarekiko adostasuna.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Modu berean, gazteek aldeko iritzia eman dute etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurriari buruz galdetzean, eta aldeko iritzia eman dute, halaber, etxebizitza babestuen kalifikazio mugagabeari, merkatu librean etxebizitza bat erosten bada etxebizitza babestua uzteko neurriari eta etxebizitza hutsen gainean kanon bat ezartzeko neurriari buruz galdetzean.



2.13. taula Eskuratzeko beharra duten pertsonen etxebizitzaren esparruko jardueri buruz egindako balorazioa

|   | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak |
|---|---|
| Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzeko neurriarekiko adostasun-maila (0-100 indizea) | 88,6  |
| Etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna (0-100 indizea)                           | 83,4  |
| Etxebizitza babestuak mugagabekotzat kalifikatzearen aldekoak (baiezkoen %)   | 77,5  |
| Etxebizitza librea eskuratzean etxebizitza babestua uzteko betebeharrarekiko adostasun-maila (0-100 indizea)  | 72,2  |
| Etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)   | 68,8  |
| Diru-sarrera altuagoak dituztenentzat etxebizitza babestuak garestiagoak izatearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)                                   | 61,4  |
| Etxebizitza babestu gehiena alokatzeko eraikitzeo aukerarekiko adostasun maila (0-100 indizea)  | 52,4  |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

*Erosteko eta alokatzeko etxebizitza babestuen esleipendunen baldintza ekonomikoak berrikusi beharko al lirateke? Bai, noski.*


Oro har, eskuratzeko beharra duten biztanleak etxebizitza babestu garestienak diru-sarrera altuenak dituzten pertsonentzako izatearen alde agertu dira. Alokairuaren kasuan, halaber, alokairu babestuaren errenta sarrera-mailaren arabera izatea proposatzen da, betiere % 30eko finantza-ahalegina gainditu gabe.

*Ados gaude etxebizitza babestuaren prezioa pertsona bakoitzaren sarrera-mailaren arabera izateko neurriarekin.  
Hala ere, alokairuko etxebizitza sustatzearen alde gaude, betiere sarreraren % 30 arteko errenta aldakorren truke.*

Eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuan eskaintzeko neurriari dagokionez, eskuratzeko beharra duten biztanleek iritzi anitzak eman dituzte eta 52 puntukoa da lortu den adostasun-maila (0-100).



2.14. grafikoa Eskuratzeko beharra duten pertsonen eraikitako babes publikoko etxebizitza gehienak alokairuko erregimenean eskaintzeko neurriarekiko agertu duten adostasun-maila



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Bestalde, azpimarratzekoa da gazteek Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren gainean erakutsi duten iritzi positiboa: 53 puntuko batez besteko kalifikazioa eman diote. EAEko etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroari dagokionez, erregistroan sartzeko ezarritako baldintza ekonomikoen ondorioz, zenbait gaztek ez du erregistroan izena emateko aukerarik.


*Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren balorazioa: zerbitzua positiboa da.*

*Hala ere, ezarritako baldintzak direla-eta, jende asko erregistrotik kanpo geratzen da (sarrera-maila altuegiak). Ezarritako gutxienera iristen ez den jendea dago.*

Etxebiden izena emateko aukerei dagokienez, bizikidetza-unitatearen kontzeptua zalantzan jarri dute.

*Hala ere, beste kasu batzuetan, gizarte-laguntzen kasuan, adibidez, bikoteak osatzen duen bizikidetza-unitatea kontuan hartzean: familia-eredua aldatzen ari da, elkarrekin bizi ez diren bikoteak daude, ... Bizikidetza-unitatearen kontzeptua berrikusi beharko litzateke.*





Babes publikoko etxebizitzaren esleipen-prozesuen balorazioari dagokionez, iritzi negatiboa jaso da, 46 puntuko batez besteko indize sintetikoarekin (0-100 eskala). Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik, halaber, iritzi negatiboa agertu dute zozketak oinarrian dituzten esleipen-prozesuei buruz, eta baremazio-irizpideak kontuan hartuko dituen esleipenaren aldeko iritzia eman da.

*Zozketen bidezko esleipen-sistema? Gaizki iruditzen zait zozketa bidezko esleipenak egitea.*

*Beharrei lehentasuna eman behar zaie:*

- *Bizitza independentea edukitzeko beharra: ikuspegi sozialetik, ona da gazteak independizatzea, aberastea. Gazte jendea independizatzen ez den gizartea, gaixo dagoen gizartea da.*
- *Ahalmen ekonomiko nahikoa ez edukitzea*
- *Adina irizpide bat izan daiteke.*

*Erantzuteko premia handiagoa duten egoerak daude: tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, familia gurasobakarrak, ...*

Amaitzeko, eskuratzeko beharra duen taldeak Eusko Jaurlaritzak egiten duen lanaren inguruan egindako balorazio orokorra 50 puntura iritsi da (0-100), Udalei emandako puntuazioren (44 puntu) gainetik.


#### 2.14. taula Eskuratzeko beharra duten pertsonen erakundeek etxebizitzaren esparruan garatzen dituzten jardueri buruz egindako balorazioa

|   | <b>Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak</b> |
|---|--|
| Etxebidaren batez besteko balorazioa  | 53,2   |
| Etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuen gaineko batez besteko konfiantza                     | 45,8   |
| Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueren batez besteko balorazioa. | 49,5   |
| Udalek etxebizitzaren esparruan egiten dituzten jardueren batez besteko balorazioa              | 43,5   |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

#### 2.2.4. Jarduera-proposamenak

Gazteek etxebizitza eskuratzeko duten zailtasuna da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) lehentasunezko lan-lerroetako bat. Horrela, "Jóvenes y




*Vivienda 3. Una mirada Joven sobre el Problema de la Vivienda* txostenean, honako proposamen politiko hauek barne hartzen dira:

#### 2.15. taula Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren jarduera-proposamenak.

1. Etxebizitza bat edukitzeko eskubidea 18 urtetik gorako pertsona ororen Eskubide Subjektibo gisa aitortu behar da eta, ondorioz, Babes Judiziala eman behar zaio.
2. Etxebizitza-politikak alderdien arteko joko politikitik eta erakundeen arteko eztabaidetatik kanpo utzi behar dira. Funtsezkoa da erakundeen artean koordinazio-maila altua lortzea, esparruan "herrialdeko" benetako politika bat osatzeko; horretarako, beharrezkoa da Etxebizitza Eskubidearen aldeko Erakundeen arteko Itun bat egitea.
3. Etxebizitza Hutsak luxu onartezina dira; gizarte gisa ezin onartu ditugu. Horiek kontrolatzeko eta zigortzeko mekanismoak garatu behar dira (etxebizitza hutsak merkaturatzeko lan egiteaz gain), horretarako araudi egokiak garatuz.  
Modu berean, bigarren etxebizitzaren ugaritzea mugatu behar da zenbait udalerritan.
4. Esku-hartze publikoari dagokionez, alokairu sozialeko etxebizitzak, errentak ordainketa-ahalmenera egokituta dituztenak, eraiki behar dira, eta horiek eskuratu ahal izateko muga ekonomikoak desagerrarazi, bai eta tipologia gehiago eskaini ere, hartara, behar desberdin gehienei erantzun ahal izateko. Etxebizitza horiek guztiak sustapen publiko integral batetik eraiki behar dira.  
Administrazioetatik ez da diru publikoarekin sustatuko saltzeko etxebizitzarik, ez eta BOE edo prezio tasatuko etxebizitzarik ere.  
Goitik behera aldatu behar dira erakundeen politikak; gizarte-interesari begiratu behar zaio eta interes ekonomikoak alde batera utzi.
5. Gizarteak duen beharrari arrazoizko epe batean erantzuteko, nabarmenki areagotu behar dira administrazioek esparrura bideratzen dituzten aurrekontu guztiak.
6. Foru Aldundiek garatutako zerga-politika berraztertu beharko litzateke, eta gastu fiskala murriztu.
7. Udal-finantzaketa birplanteatu behar da, hartara, toki-erakundeek eraikuntzak eta hirigintzak sortzen dituen sarrerekiko duten mendetasuna arintzeko.
8. Aurrezki Kutxek, beren izaera soziala kontuan hartuta, dirua inbertitu behar dute etxebizitzaren arazoa konpontzeko; ezin diote etekina atera etxebizitza-eskubidearen babesgabetasunari.
9. Hirigintza gizarte-funtzio gisa berreskuratu behar da: herritarren parte-hartzea sustatu behar da hiri eta herrien diseinuan, eta lurzoruaren espekulazio-atxikipena eragotzi, gutxieneko lege-estandarren gainetik etxebizitza publikoetarako erreserbak ezarriz, ingurumen-iraunkortasunetik antolatuz eta gizarte-beharrak ardatz gisa hartuz.
10. Esandakoaren ildotik, Udalek Lurzoru Ondare Publikoak sortzeko duten betebeharra bete behar dute eta, xede horrekin, urtero beharrezkoak diren baliabideak bideratuko dituzte eta ez zaie lurzoru publikorik salduko agente pribatuei.
11. Hipoteka Legeria aldatu behar da: epeak mugatu eta errenta kontuan hartuta zorpetze-mugak ezarri behar dira.
12. Etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea herritar guztiak duten eskubide bihurtu bitartean, gizarte-larrialdi egoera larriak saihesteko diru-laguntzak areagotu eta ziurtatzeko lan egin beharko da, ezinbestean.
13. Gaur egun etxebizitza-eskubidea urratzen dela kontuan hartuta, Okupazioaren lege-tratamendua berrikusi beharko litzateke.

Iturria: Jóvenes y Vivienda 3. Una mirada joven sobre el problema de la vivienda. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

Orobat, EtxebizHitza-Euskadiko Etxebizitza Forotik -bertako kide da Euskadiko Gazteria Kontseilua- Etxebizitza Politika Publikoak garatzean honako printzipio eta proposamen hauek betetzeko konpromisoa hartzeko eskatu zaie indar politikoei:



## 2.16. taula Etxebizitza-dekalogoia. Etxebizitza-Euskadiko Etxebizitza Foroa


1. Politika: Ekimen pribatua publikoaren aurretik lehenesteak eta botere ekonomikoek kostatuta ahala kostatuta egoerari etekina ateratzea nahi izateak eragin duten gaur egungo krisialdian, politikak izan behar du, alegia, ekimen publikoak izan behar du erkidegoaren garapena eta ongizatea lortzeko ardatz egituratzailerak bakarrik.
2. Parte-hartzea: herritarren parte-hartzea eta gizarte-eragileen inplikazio orokorra, jardura estetiko eta propagandistikoek haraindi, funtsezkoak dira politika publiko desberdinak ezartzeko, tokikoagoa den esparrutik, esparru orokorrera.
3. Emantzipazioa: Gazte guztien bizi-proiektuen garapen askea ahalbidetzeak ezin uko eginezko helburu publiko bat izan behar du, eta horrekin lotuta arloko politika egokiak garatu behar dira.
4. Iraunkortasuna: Ekoizpen-eredu neoliberalak, ingurumenaren ikuspegitik jasangaitza denak, porrot egin du, hortaz, beste eredu baten aldeko apustua egin dugu. Eredu horretan egungo eta etorkizuneko kostuak eta etekinak, ingurumen-ikuspegitik, faktore erabakigarri bat izango dira neurri eta jardura egokiak ezartzeko.
5. Eskubide unibertsala: Politika publiko ororen esku hartzeko ardatza eta lehentasuna pertsona orok bere bizi-ingurunean eta bere aukera ekonomikoen arabera (betiere sarreraren % 30 gainditu gabe) etxebizitza duin bat eskuratzeko (alokairuan) duen eskubide subjektiboa ziurtatzea izatea lortu behar da.
6. Alokairua: eskubide hori betetzeko, politika publikoek alokairuko etxebizitza-parke indartsu bat antolatu eta osatu behar dute, hain sarritan aipatzen ditugun Europako herrialde askotan egiten den moduan.
7. Etxebizitza hutsak: Eraiki baino gehiago, jada eraikita dagoen hiria birgaitzeko eta birsortzeko lan egin behar da. Hutsik dauden eta gutxiegi erabiltzen diren etxebizitza ugariak merkaturatu behar dira eta, xede horrekin, bestelako zigor-neurriak ezarri behar dira.
8. Zerbitzu publikoak: erakunde desberdinen arteko (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza) koordinazioa eta elkarlana, bai eta gizarte-eragileen parte-hartze aktiboa ere, funtsezkoak dira politika publiko eraginkorrek garatzeko. Politika horiek Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren barruan barne hartuko dira, esparruko erreferentziako erakunde den neurrian.
9. Aurrekontua: apustu handizale hau martxan jartzeko, baliabide ekonomikoak lortu behar dira. Horretarako, osasuna eta hezkuntza bezalako beste eskubide batzuk ziurtatzeko inbertitutako kopuruak eta portzentajeak (gastatu dena baino gehiago) hartuko dira erreferentzia gisa.
10. Zerga-arloa: Funtsezkoa da apustu orokorra finantzatzeko. Goitik behera aldatu behar da ikuspegia, alokairua sustatzeko eta etxebizitza hutsak merkaturatzeko.

Iturria: Etxebizitza-dekalogoia. Etxebizitza-Euskadiko Etxebizitza Foroa. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

## 2.3. Esperientzia interesgarriak

Jarraian, 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planean eta plan autonomikoetan gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea errazteko barne hartzen diren laguntza edo neurri bereziak aipatzen dira. Aipatuko diren laguntza asko jada EAEn ematen diren laguntzak dira.

Lehenik eta behin, Emantzipatzeko Oinarrizko Errentaren Estatuko Plana aipatu behar da. Lanean ari diren eta gehienez ere 22.000 euroko sarrera gordinak dituzten 22-29 urte arteko gazteak dira planaren xede.




Laguntzaren xedea da ohiko etxebizitza izango dena alokatzea. Hilean alokairua ordaintzeko 210 euroko laguntza ematen da; 600 euro ematen dira fidantzaren mailegurako eta sei hilabeteko abal baten finantza-kostua laguntzen da, halaber. Laguntzak 4 urte irauten ditu gehienez ere, eta guztira 10.080 euroko kantitatea ordaintzen da.

Bestalde, 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaikuntzako Estatuko Planean neurri desberdinak garatu dira etxebizitza babestu eta erabiliaren erosketa sustatzeko. Besteak beste, mailegu hitzartuak, interesen laguntza eta sarrerak ordaintzeko laguntza zuzenak aipa daitezke; zenbait kasutan, hobetu egin dira neurri horiek gazteei dagokienez. Autonomia-erkidego askotan lehen etxebizitza erosteko berariazko laguntzak sortu dira.


Bestalde, hainbat autonomia-erkidegok berariazko kupo bat ezarri dute etxebizitza babestua eskuratzeko beharra duten gazteen taldearekin erlazioan. Horrela egin du Errioxak, eta etxebizitza babestuaren % 70 36 urtetik beherako gazteentzako bideratzen dute bertan.

Amaitzeko, Estatuko Planetik gizarte-egoera ahulean dauden taldeentzako bizitoki babestuak eraikitzeko neurriak sustatzen direla azpimarratu behar da. Adibidez, 35 urtetik beherako gazteen kasuan egiten da.



2.17. taula Etxebizitzarako berriazko laguntzak gazteentzat hainbat autonomia-erkidegotan

| Laguntza mota   | Autonomia-erkidegoa   | Deskribapena  |
|---|-----------------------|---|
| Alokairurako laguntzak                                | Estatuko Plana        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta, 22-29 urte artean (biak barne) eta urteko 22.000 euro gordinetik beherako sarrerak dituzten gazteentzat: alokairurako laguntza: hileko 210 euro.</li> </ul>   |
| Etxebizitza babestua eta erabilia erosteko laguntzak: | Estatuko Plana        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen etxebizitza erosteko, etxebizitza babestua eta erabilia erosteko hitzartutako maileguen laguntza eta sarrera ordaintzeko Estatuaren laguntza zuzena.</li> <li>Etxebizitza babestua edo erabilia erosteko sarrera ordaintzeko laguntza zuzena areagotu egiten da laguntza jasoko duen pertsonari dagokion berriazko taldearen arabera. 35 urtetik beherako gazteen kasuan, 9.000, 8.000 edo 6.000 euroko laguntza bat jasoko dute, hurrenez hurren, baldin eta IPREM 2,5 aldiz baino sarrera baxuagoak badituzte, edo IPREM 2,5 eta 3,5 aldiz artekoak badituzte edo IPREM 3,5 eta 4,5 aldiz artekoak badituzte.</li> </ul>   |
|   | Andaluzia             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen etxebizitza eskuratzeko denean, 35 urtetik beherako gazteek 1.000 euroko dirulaguntza bat eskuratu ahal izango dute, eskuraturak formalizatzean sortutako gastuak eta zergak ordaintzeko.</li> <li>Etxebizitza erosteko gazteek 1.200 euroko beste laguntza bat eskuratu ahal izango dute, etxebizitza eskuratzeko izandako gastuei aurre egiteko; halaber, erosketa-kopuruaren % 3ko beste laguntza bat eskura dezakete, BEZa ordaintzeko.</li> </ul>   |
|   | Asturias              | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen etxebizitza erosteko laguntza zuzenari 600 euro gehitzen zaizkio B Udalerri Berezien kasuan (Oviedo, Gijón, Aviles, Llanera eta Siero), eta 300 euro dira C Udalerri Berezien kasuan.</li> </ul>   |
|   | Kantabria             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Estatuko laguntzaz gain, autonomia-erkidegoak 2.500 euroko laguntza osagarri bat ematen du lehen etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko, honako pertsona hauen kasuan: desgaitasunak dituzten pertsonak edo beren familiak, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak, hondamenezko egoerak eragindako pertsonak, bai eta gizarte-bazterkeria bizi duten edo pairatzeko arriskua duten taldeak ere.</li> </ul>  |
|   | Gaztela-Mantxa        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Babes ofizial, prezio tasatu edo eraikuntza berriko ekimen pribatu-publikoko etxebizitza bat lehen aldiz eskuratzen duten pertsonentzako laguntza autonomikoa: 4.000 eta 22.000 euro bitartean, sarrera-maila, etxebizitza-tipologia eta etxebizitzaren kokapenaren arabera.</li> </ul>  |
|   | Gaztela eta Leon      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Talde berezietarako laguntza ekonomikoak lehen etxebizitza erosteko: urteko deialdiak; kasuan kasu laguntzaren onuradun izateko baldintzak finkatzen dira. Zenbait kasutan, koefiziente zuzentzaileak aplikatzen dira, adibidez: desgaitasunak dituzten pertsonen eta horien familien kasuan, familia ugari edo guraso bakarrekoen kasuan, eta abar.</li> </ul>  |
|   | Katalunia             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Jabetzako lehen etxebizitza eskuratzeko orduan, etxebizitza babestua edo erabilia erosteko sarrerak jasotzen duen laguntza zuzenaren kopuruak aldatu egiten dira, kasu bakoitzaren ezaugarri pertsonalen eta familiakoen arabera, baina, oro har, 8.000 eta 12.000 euro arteko laguntzak ematen dira, kasuan kasu taldearen arabera.</li> </ul>  |
|   | Errioxa               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza librea erosteko Hipoteka Gaztea eskaintzen zaie 41 urtetik beherako pertsonari.</li> </ul>   |
|   | Valentziako Erkidegoa | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza erosteko laguntza autonomikoak familia ugariarentzat eta 35 urtetik beherako gazteentzat, lehen etxebizitza denean.</li> </ul>   |
|   | Erreserba-kupoak      | Balearr Uharteak  |
| Ceuta   |                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza babestuaren sustapenetan erreserba-kupoak arreta bereziko honako talde hauentzat: desgaitasunak dituzten pertsonak, behar larria duten pertsonak, 35 urtetik beherako gazteak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, berriki sortutako eta etorkizuneko senar-emazte zein bikoteentzako kupoak eta beren kontura seme/alaba adin txikiak dituzten familia gurasobakarrak,</li> <li>35 urtetik beherako pertsonen kasuan, zozketa egingo da, betiere aurreko bi kupoen barruan esleipendun suertatzen ez badira. Etxebizitzaren Toki Batzordeak lehentasunezko esku-hartzea egin ahal du, minusbalotasunen ziurtapenaren edo gizarte-bazterkeriazko egoeraren arabera.</li> </ul> |
| Errioxa   |                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza babestuen % 70 36 urtetik beherako gazteentzat dira; % 15 familia ugariarentzat; eta % 3 desgaitasunak dituzten pertsonentzat.</li> </ul>  |



|                    |                |   |
|--------------------|----------------|---|
| Bizitoki babestuak | Estatuko Plana | <ul style="list-style-type: none"><li>Gizarte-egoera larrian dauden taldeentzako, eta horien barruan dauden 35 urtetik beherako gazteak, bizitoki babestuen eraikuntza sustatzea.</li><li>Bizitoki horiek alokairuan eskuratuko dira. Gehienezko errenta bat ordainduko da, hain zuzen ere 25 urterako alokatzeko erregimen bereziko etxebizitza babestuenaren berdina gizarte-egoera larrian dauden taldeen kasuan, eta erregimen orokorrari dagokiona izango da gainerako taldeen kasuan.</li></ul> |
|--------------------|----------------|---|

Iturria: AVJ buletina, 32. zk. - Ayudas de vivienda para jóvenes, 2009ko abendua. Bertan landutakoa.


## 2.4. Ebaluazio-adierazleak

Jarraian, gazteekin erlazioan etxebizitzaren esparruan garatzen den politika publikoaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko adierazleen proposamen bat ikus daiteke.

2.18. taula Gazteekin erlazioan etxebizitzaren esparruan garatzen den politika publikoaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko adierazleen proposamena

|    | Adierazlea  | Iturria  |
|----|---|----------|
| 1  | Etxebiden izena emandako gazteak (<35 urte)   | Etxebide |
| 2  | Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra (etxebizitza kop.)  | EBEI     |
| 3  | Alokairuko etxebizitzarekiko onarpen-indizea  | EBEI     |
| 4  | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen gehienez ordain dezaketzen prezioa                      | EBEI     |
| 5  | Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen hileko ordainketa-ahalmena                              | EBEI     |
| 6  | Gazteei alokairuan esleitutako etxebizitza kopurua  | EJ       |
| 7  | Gazteei Bizigune-n esleitutako etxebizitza erabilien kopurua  | EJ       |
| 8  | Poztasun-maila, esleitutako etxebizitza babestuekin   | EJ       |
| 9  | Gazteentzako alokairu babestuko etxebizitzen parkea   | EJ       |
| 10 | Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueretikiko batez besteko poztasun-maila | EJ       |

Iturria: Bertan landutakoa.



### 3. ADINEKOEN ETXEBIZITZA BEHARRA


#### 3.1. Taldearen ezaugarriak

##### 3.1.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak

###### a) Taldearen kuantifikazioa


2007ko udal-eroldako datuen arabera, 65 urte edo gehiago dituzten 401.187 biztanle ditu EAEk, hau da, EAEko biztanleriaren guztizkoaren % 19 adineko pertsonak dira. Horrez gain, aurreikuspenei erreparaturaz ikus daitekeenez, biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera egingo du eta 2020 urterako 65 urte edo gehiago dituzten 501.400 pertsona egongo dira (guztizko biztanleriaren % 22,5).

###### 3.1. grafikoa 65 urte edo gehiago duten pertsonen kopuruaren bilakaera, 1981-2007



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. Udal Biztanleriaren Eguneratzea. Bertan landutakoa.

Familiei erreparaturaz, estatistika-datuen arabera EAEko 255.100 familiatan (familia guztien % 32) 65 urte edo gehiago ditu erreferentziarako pertsonak, eta horien artetik 81.900 baino gehiago pertsona bakar batek osatutako familiak dira, hau da, bakarrik bizi diren pertsonen osatutako familiak.



3.1. taula EAEko adinekoen etxebizitza-egoerarekin erlazionatutako adierazle nagusiak

|                         | Adierazlea  | EAE     | Data | Iturria  |
|-------------------------|---|---------|------|----------|
| Adierazle demografikoak | Adineko biztanleria (65 urte edo gehiago)                                 | 401.187 | 2007 | EUSTAT   |
|                         | Adinekoen % biztanleriaren guztizkoarekiko                                | 18,7%   | 2007 | EUSTAT   |
|                         | Adineko familiak  | 255.100 | 2006 | EUSTAT   |
|                         | % familien guztizkoarekiko  | 32,4%   | 2006 | EUSTAT   |
|                         | Adineko pertsona bakarreko familiak guztira                               | 81.900  | 2006 | EUSTAT   |
| Adierazle demografikoak | Batez besteko kontribuzio-pentsioa  | 897,7   | 2008 | GSIN     |
|                         | Alarguntzagaratiko batez besteko kontribuzio-pentsioa                     | 628,2   | 2008 | GSIN     |
|                         | Erregimen Orokorreko batez besteko Pentsioa                               | 1.044,4 | 2008 | GSIN     |
|                         | Alarguntzagaratiko Erregimen Orokorreko batez besteko Pentsioa            | 679,7   | 2008 | GSIN     |
| Etxebizitza-adierazleak | Etxebiden izena emandako adineko biztanleak (65 urte edo gehiago)         | 3.284   | 2009 | Etxebide |
|                         | Izena emandakoen tasa adineko biztanleriarekiko                           | 0,8     | 2009 | Etxebide |
|                         | Adinekoen % Etxebiden izena emandakoen guztizkoarekiko                    | 2,8     | 2009 | Etxebide |
|                         | Adinekoen eskaera-txostenak Etxebiden                                     | 2.477   | 2009 | Etxebide |
|                         | Aldatzeko beharra duten adinekoen %                                       | 2%      | 2008 | EBEI, EJ |
|                         | Birgaitzeko beharra duten adineko familien %                              | 16,2%   | 2008 | EBEI, EJ |
|                         | Alokairuko etxebizitzak, familiaburuak 65 urte baino gehiago dituzenean   | 15.186  | 2006 | EM       |
|                         | Adineko familien alokairuko etxebizitzaren % alokairuaren guztizkoarekiko | 23,6%   | 2006 | EM       |

\* Mendekotasun-tasa: 0-15 urte arteko eta 64 urte baino gehiagoko adineko biztanleen portzentajea, 16-64 urte arteko biztanleriarekiko.


Iturria: Las personas mayores en España, 2008, Imsero. Etxebide. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta. Bertan landutakoa.

## b) Bizitegi-ezaugarriak

Adineko pertsonen osatutako familia gehienak etxebizitzaren jabe dira. Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, adineko pertsonen familien % 94k dute jabetzako etxebizitza bat; taldeko % 6 bakarrik bizi dira alokairuko etxebizitza batean.

Kopuru absolutuei erreparatu, EAEn alokairuko 15.186 etxebizitzatan familiaburuak 65 urte baino gehiago ditu, hau da, EAEko alokairuko etxebizitzaren guztizkoaren % 24.





Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, familiaburuak 64 urte baino gehiago dituen familiak bizi diren etxebizitzaren batez besteko tamaina 80 m<sup>2</sup>-koa da eta 40 urteko antzintasuna dute batez beste. Inkestan parte hartu duten adineko familien % 35ek bakarrik adierazi dute etxebizitza babestu batean bizi direla. Lehenengo etxebizitzarekiko poztasun-maila altua da, 0-100 eskala batean 85 puntuko batez besteko indizearekin.


### 3.2. taula Adineko familien bizitegi-ezaugarriak

|  | 64 urtetik gorako<br>famiIiaburua | 65 urtetik beherako<br>famiIiaburua | FamiIiak guztira EAE |
|--|-----------------------------------|-------------------------------------|----------------------|
| Batez besteko azalera (m <sup>2</sup> )                                  | 79,6                              | 80,4                                | 80,2                 |
| Batez besteko antzintasuna<br>(urteak)                                   | 40,2                              | 34,0                                | 36,0                 |
| Etxebizitza babestuak  | 5,3                               | 8,4                                 | 7,4                  |
| Batez besteko poztasuna bizi<br>den etxebizitzarekiko (0-100<br>indizea) | 85,4                              | 83,8                                | 84,3                 |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


Adinekoen etxebizitza-beharrak erlazio estua du etxebizitzaren ezaugarriekin eta mugikortasun-arazoan aurrean eskaintzen duten egokitzapenarekin. Horrela, adineko familien % 35ek adierazi dute bizi diren etxebizitzak ez duela igogailurik.

Eraikinaren iresgarritasunari dagokionez, adineko familien % 61ek uste dute etxebizitzara iristeko bideak baldintza desegokiak dituela; % 69k adierazi dute, bestalde, eraikina ez dela iresgarria; eta % 64k uste dute, azkenik, etxebizitzak ez dituela betetzen iresgarritasun-baldintzak. Adinekoen etxebizitzak kokatzen diren auzo edo inguruari dagokionez, % 18k bakarrik uste dute iresgarritasun-arazoak daudela.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

### 3.2. grafikoa Adineko familien lehenengo etxebizitzaren iresgarritasuna




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Adineko pertsonak bizi diren etxebizitza eta eraikinen zuzkidurari buruzko datuekin jarraituz, 2001eko Erroldaren arabera EAEn 65 urte edo gehiago dituzten adineko 183.937 pertsona baino gehiago bizi dira igogailurik gabeko etxebizitza batean. Eraikinen instalazioei dagokienez, 292.465 adinekok ez dute uste eraikina iresgarria denik. Horrez gain, adineko 145.580 pertsonak adierazi dute ez dutela berogailurik eta 261.188k adierazi dute ez dutela ur berorik. Bestalde, 2001eko Erroldaren arabera, 64 urte edo gehiagoko 614 pertsonak ez dute iturriko urik etxean, eta 3.430ek ez dute hondakin-uren hustubiderik.

### 3.3. taula Adinekoak bizi diren eraikinen instalazioak

| Pertsona kop.                 | Araba  | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE     |
|-------------------------------|--------|---------|----------|---------|
| Igogailurik gabe              | 17.580 | 61.071  | 105.285  | 183.937 |
| Ez da iresgarria              | 33.921 | 88.816  | 169.728  | 292.465 |
| Berogailurik ez               | 6.486  | 49.174  | 89.920   | 145.580 |
| Ur berorik ez                 | 24.208 | 84.654  | 152.326  | 261.188 |
| Iturriko urik ez              | 22     | 392     | 200      | 614     |
| Hondakin-uren hustubiderik ez | 52     | 1.441   | 1.937    | 3.430   |

Iturria: EIN, Censo de Población de 2001.



### 3.1.2. Beharren ezaugarriak

#### a) Etxebizitza-beharraren kuantifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, familiaburuak 64 urte baino gehiago dituen familien % 16k dute lehenengo etxebizitza birgaitzeko beharra; % 2k adierazi dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra dutela. Bestalde, familia horien gainerako % 82k uste dute ez dutela inolako beharrik etxebizitzarekin lotuta.


Familiaburu gazteagoa duten familiekin alderatuz ikus daitekeen moduan, adineko familiek aldatzeko behar txikiagoa dute, baina birgaitzeko beharra, aitzitik, handiagoa da.

#### 3.4. taula Adineko familien etxebizitzaren esparruko behar mota


|                     | 64 urtetik gorako<br>familiaburua | 65 urtetik beherako<br>familiaburua | Familiak guztira<br>EAE |
|---------------------|-----------------------------------|-------------------------------------|-------------------------|
| Aldatzeko beharra   | 2,0                               | 6,3                                 | 4,9                     |
| Birgaitzeko beharra | 16,2                              | 15,2                                | 15,5                    |
| Beharrik ez         | 81,8                              | 78,5                                | 79,6                    |
| <b>GUZTIRA</b>      | <b>100,0</b>                      | <b>100,0</b>                        | <b>100,0</b>            |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Erreferentziatzko pertsonak 65 urte edo gehiago dituen 255.100 familiak abiapuntutzat hartuta, adineko 41.326 familiak dute lehenengo etxebizitza birgaitzeko beharra, eta 5.102 familia dira aldatzeko beharra dutenak.




### 3.3. grafikoa Adineko familien banaketa behar motaren arabera EAEn



Iturria: Bertan landutakoa.

#### b) Etxebizitza-beharraren ezaugarriak

64 urtetik gorako familiaburua duten familiek etxebizitza birgaitzeko erakutsi duten beharrari helduta, datuen arabera 75 puntukoa da (0-100 eskalan) batez besteko behar-maila, hau da, batez besteko orokorra baino altuagoa (67 puntu). Horrez gain, talde horrek denbora gehiago darama beharrari erantzun gabe (% 62k 4 urte baino gehiago); hala ere, erreformak egiteko itxaropentsuago agertu dira (% 63k uste dute aukera handiak dituztela datozen 4 urteren buruan etxebizitza birgaitzeko).



3.5. taula EAEko adineko familien birgaitzeko beharraren ezaugarriak\*

|   | 64 urtetik<br>gorako<br>famiIiaturua | 65 urtetik<br>beherako<br>famiIiaturua | FamiIiak<br>guztira EAE |
|---|--------------------------------------|--|-------------------------|
| <b>Beharren ezaugarriak</b>   |                                      |  |                         |
| Batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                                     | 75,0                                 | 62,6                                   | 66,6                    |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                    | 61,5                                 | 54,0                                   | 56,5                    |
| 4 urteren buruan birgaitzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 62,9                                 | 61,0                                   | 61,6                    |
| <b>Beharraren arrazoiak</b>   |                                      |  |                         |
| Elementu pribatuak  | 35,3                                 | 53,8                                   | 47,8                    |
| Elementu komunak  | 53,1                                 | 28,9                                   | 36,8                    |
| Elementu pribatuak eta komunak  | 11,7                                 | 17,3                                   | 15,5                    |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>                         | <b>100,0</b>                           | <b>100,0</b>            |


\* Birgaitzeko beharra duten familiei buruzko datuak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


Adineko pertsonen adierazitako etxebizitza birgaitzeko beharra sakonkiago aztertuz esan daiteke, familien % 35ek etxebizitzako elementu pribatuak erreformatzeko beharra dutela; % 53k elementu komunak birgaitzeko beharra dute eta % 12k, azkenik, bi behar motak aipatu dituzte.

Birgaitzeko beharra duten adineko familien % 31k aipatu dute komuna edo sukaldea birgaitzeko beharra. Fatxadak erreformatzeko beharra aipatu dute % 21ek.

Igogailua instalatzeko beharra adierazi dute birgaitzeko beharra duten familien % 20k, eta behar hori da ohiko etxebizitza aldatzeko beharra eragiten duen arrazoi nagusia adineko familien artean.




3.4. grafikoa EAEn etxebizitza birgaitzeko beharra duten adineko familiek adierazitako birgaikuntza-elementu garrantzitsuenak\*



\* Birgaitzeko beharra duten familiei buruzko datuak.  
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Ohiko etxebizitza aldatzeko beharrari dagokionez, eta euskal familien guztizkoarekin alderatuz, adineko familien artean horrelako behar batek duen eragina hain nabarmena ez bada ere, kopuruei erreparatzen bazaie, badirudi behar-maila altuagoa dela, beharra erantzun gabe denbora gehiago daramatela eta gainerakoek baino itxaropen gutxiago dutela. Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra duten adineko familien ia erdiak azpimarratu du igogailuaren beharra.



### 3.6. taula EAEko adineko familien etxebizitza aldatzeko beharraren ezaugarriak

|   | 64 urtetik gorako<br>famiIiaburua | 65 urtetik<br>beherako<br>famiIiaburua | FamiIiak<br>guztira EAE |
|---|-----------------------------------|--|-------------------------|
| <b>Beharraren ezaugarriak</b>   |                                   |  |                         |
| Aldatzeko batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                         | 71,9                              | 68,2                                   | 68,7                    |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                  | 64,1                              | 50,9                                   | 52,5                    |
| 4 urteren buruan aldatzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 38,3                              | 49,5                                   | 48,1                    |
| <b>Beharraren arrazoiak</b>   |                                   |  |                         |
| Tamaina desegokia   | 10,7                              | 32,7                                   | 30,0                    |
| Bizi-baldintza eskasak  | 11,4                              | 17,3                                   | 16,6                    |
| Iggailurik ez   | 46,3                              | 10,0                                   | 14,5                    |
| Kokapen eskasa  | 6,3                               | 6,4                                    | 6,3                     |
| Beste hainbat arrazoi   | 25,3                              | 33,6                                   | 32,6                    |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>                      | <b>100,0</b>                           | <b>100,0</b>            |

\* Aldatzeko beharra duten familiei buruzko datuak.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

#### c) Etxebizitza babestuaren eskaria


Adineko pertsona gehienak dira etxebizitzaren jabe, hortaz, adineko familia gutxi dute etxebizitza babestu bat eskuratzeko asmoa<sup>5</sup>.

Zentzu horretan, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan gaur egun 65 urte edo gehiago dituzten 3.284 pertsona dira etxebizitza babestuaren eskatzaile, hau da, eskatzaile guztien % 2,8. Adineko pertsonen taldeari helduta, etxebizitza babestuaren eskaria % 0,8koa da.

<sup>5</sup> Etxebizitza babestua eskuratu ahal izateko baldintza nagusia etxebizitza bat jabetzan, azalera-  
eskubidean, usufuktuan edo jabetza soilean ez edukitzea bada ere, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak  
salbuespenak egin ditu arau orokorrean, izan ere, horrelako egoeretan, nahiz eta etxebizitza bat eduki,  
beste etxebizitza baten beharra egoten da.



3.5. grafikoa Etxebiden izena emanda dagoen 64 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera, 2005-2009



Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.


Etxebideren bitartez etxebizitza babestuaren eskatzaile diren adinekoak aztertuz, % 56 emakumezkoak eta % 44 gizonezkoak direla ikus daiteke.

Izena emanda dauden adinekoen egoera zibilari dagokionez, % 53 ezkondua daude, % 22 alargunak dira eta % 14 ezkongabeak. Gainerako % 12 bananduta edo dibortziatuta daude.

Nazionalitateari dagokionez, etxebizitza babestuaren eskatzaile diren 64 urtetik gorako pertsonen % 3,5 bakarrik dira atzerritarrak, eta kopuru hori guztizkoak lortutakoa baino (% 12) baxuagoa da nabarmenki.

Sarrera-mailari erreparatuz, adinekoen eskaeren % 45ean aitortutako urteko sarrera pertsonalak ez dira 9.000 eurora iristen; beste % 45en kasuan urteko 9.001 eta 21.000 euro arteko sarrerak aitortu dira. Esanak esan, taldearen batez besteko sarrera pertsonalak urteko 10.694 eurokoak dira, batez besteko orokorraren azpitik (15.925 euro). Adineko eskatzaileen familien batez besteko sarrerak urteko 14.447 eurokoak dira (batez besteko orokorra -18.508 euro- baino baxuagoak hauek ere).






Bestalde, azpimarratzekoa da familia-unitateen eskaera-txostenen proportzio altua, etxebizitza-eskatzaille gisa izena emandako adinekoen % 52ra iritsiz. Banakako eskaerak dira adinekoen txostenen % 48, eta % 73 dira Etxebideko txosten guztiak kontuan hartuta.

**3.7. taula Etxebiden izena emanda dagoen eta 64 urte edo gehiago dituen biztanleriaren ezaugarriak, 2009**


| Bertikalaren %                                | 64 urte baino gehiago | Izena emandakoak guztira |
|---|-----------------------|--------------------------|
| <b>Sexua</b>                                  |                       |                          |
| Gizonezkoak                                   | 44,1                  | 52,2                     |
| Emakumezkoak                                  | 55,9                  | 47,8                     |
| <b>Egoera zibila</b>                          |                       |                          |
| Ezkongabea                                    | 13,8                  | 75,5                     |
| Ezkondua                                      | 52,5                  | 16,6                     |
| Alarguna                                      | 21,7                  | 1,2                      |
| Banatua                                       | 6,7                   | 3,1                      |
| Dibortziatua                                  | 5,4                   | 3,5                      |
| <b>Naziotasuna</b>                            |                       |                          |
| Atzerritarrak                                 | 3,5                   | 12,0                     |
| Espainola                                     | 96,5                  | 88,0                     |
| <b>Banakako sarreraren banaketa</b>           |                       |                          |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 7,0                   | 5,1                      |
| 9000 € arte                                   | 44,9                  | 19,1                     |
| 9.001-25.000 €                                | 44,9                  | 62,9                     |
| 25.001-39.000 €                               | 3,0                   | 12,1                     |
| 39.001-50.000 €                               | 0,2                   | 0,8                      |
| > 50.000 €                                    | 0,0                   | 0,1                      |
| <b>Batez besteko banakako diru-sarrerak</b>   | <b>1.0.693,5</b>      | <b>15.925</b>            |
| <b>Familiaren diru-sarreraren banaketa</b>    |                       |                          |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 1,7                   | 1,7                      |
| 9000 € arte                                   | 30,9                  | 13,6                     |
| 9.001-25.000 €                                | 55,8                  | 63,0                     |
| 25.001-39.000 €                               | 10,6                  | 19,1                     |
| 39.001-50.000 €                               | 1,0                   | 2,3                      |
| > 50.000 €                                    | 0,0                   | 0,3                      |
| <b>Familiaren batez besteko diru-sarrerak</b> | <b>14.447,2</b>       | <b>18.508</b>            |
| <b>Txosten mota</b>                           |                       |                          |
| Banakako eskaerak                             | 48,4                  | 72,8                     |
| Sendiguneak                                   | 51,6                  | 27,2                     |

Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



Amaitzeko, Etxebideren datuek erakusten dutenez, eskatzen den etxebizitza babestuaren edukitza-erregimenari dagokionez, adinekoen % 15ek jabetzako etxebizitza bat eskatzen dute, % 61ek alokairukoa eta % 24ri berdin zaie. Etxebideko eskatzaileen guztizkoarekin alderatuz, azpimarratzekoa da gazteen artean proportzio altuagoa erregistratu duela alokairuko etxebizitzaren eskariak.

### 3.6. grafikoa Adinekoek Etxebiden eskatzen duten etxebizitza babestuaren edukitza-erregimena




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

## 3.2. Taldeak egiten duen balorazioa

### 3.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa


Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, adinekoen % 34k uste dute azken urtean etxebizitzaren prezioak asko edo dezente merkeagotu direla; % 21ek egonkor mantendu direla uste dute; eta % 20k asko edo dezente garestitu direla. Deigarria da, bestalde, galdetutako lau adinekoen artetik batek ez duela ezagutzen etxebizitzaren prezioek izandako bilakaera.



0-100 eskala batean -prezioek behera edo gora egin dute- adinekoek 48 puntuko batez besteko puntuazioa lortu dute, inkestan parte hartu duten gainerako familien artean lortutakoa baino zerbait altuagoa.

Gaur egun lehen baino etxebizitza babestu gehiago eraikitzen ote den galdetzean, adinekoen erdiak (% 50) uste du eraikuntza-erritmoa egonkor mantendu dela. Bestalde, adinekoen % 27k aitortu dutenez, gaur egun asko edo lehen baino dezente gehiago eraikitzen dira, eta % 14k kontrakoa adierazi dute (gutxi edo dezente gutxiago). Ez dago desberdintasun esanguratsurik familia gazteenekin alderatuz.

### 3.7. grafikoa Adineko familiek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

### 3.8. taula Adineko familiek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa

|  | 64 urtetik gorako familiaburua |
|--|--------------------------------|
| Etxebizitzaren prezioak azken 12 hilabeteetan izandako bilakaera (0-100 batez besteko indizea) | 47,8                           |
| Etxebizitza babestuaren eraikuntzaren bilakaera (0-100 batez besteko indizea)                  | 63,1                           |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



### 3.2.2. Etxebizitza-beharraren balorazioa

CISen 2009ko azaroko Barometroaren arabera, Estatuan adinekoen % 3k uste dute etxebizitza dela gehien eragiten dituen arazoa, eta arazo ekonomikoak eta pentsioekin lotutako arazoak aipatu dituzte gehien bat.


Adineko pertsona gehienak dira etxebizitzaren jabe eta bertan bizitzen jarraitu nahi dute, ahalik eta denbora gehien. Horretarako, talde honek duen eskari nagusia da etxebizitza duin eta adinak berezkoak dituen beharretarako egoki batean bizi ahal izatea.

*Adineko gehienak dira etxebizitzaren jabe, baina auzoetako inguru zaharretan bizi dira eta etxebizitza zaharrak dituzte.  
Adinekoen % 97k beren etxebizitzan bizitzen jarraitu nahi dute eta, hori lortzeko, etxebizitza duina eduki behar dute halaberrez.*

Eraikinaren antzinatasunaren ondorioz etxebizitzetan erreformak egiteko beharraz gain, adinekoen behar nagusia da beren etxebizitzak adinak berak eta mugikortasun-arazoek sortzen dituzten ezaugarrietara egokitzeko beharra. Eraikinen iresgarritasuna aipatzen dute (igogailuak, arrapalak, eta abar), bai eta etxebizitzaren barrualdea mugikortasun mugatuko pertsonentzako egokitzeko beharra ere (bainuontzia kendu eta dutxa jarri, laguntza teknikoak, eta abar).

*Berogailu, hozkailu, igogailu, komun egokitu, eta abar gabeko etxebizitzak daude. Etxebizitzak adinekoen beharretara egokitu behar dira. Halaber, laguntza teknikoak behar dira mendeko pertsonentzat.  
Adinekoen ehuneko altu batek ez du igogailurik.  
Adinekoak etxebizitzaren jabe dira baina etxebizitzek ez dituzte baldintza egokiak eskaintzen.*

Adineko taldean gehienak dira etxebizitzaren jabe, baina kasu askotan ez dute baliabide ekonomiko nahikoa erreformak egiteko edo, hala badagokie, ohiko etxebizitza aldatzeko.



### 3.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa

#### a) Etxebizitza-politikaren xede diren taldeak

Adinekoen taldeak adierazi duenez, gaur egungo etxebizitza-politikak ez ditu aintzat hartzen adinekoen etxebizitza-beharrak.

*Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak ez du aintzakotzat hartzen adinekoen etxebizitza-beharra.*

*Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak alokairua ala erosketa sustatu erabaki behar du, etxebizitza zaharrak birgaitzeagatik interesa du eta etxebizitza hutsak alokairuan eskaintzeko ekimenak garatzen ditu.*

*Baina ekimen horiek guztiak ez daude adinekoengana zuzenduta berariaz.*

Etxebizitza babestuari dagokionez, adinekoen ustez gazteentzako egiten dira etxebizitza babestuak, eta ez da adinekoentzat.

*Etxebizitza babestua ez da adinekoentzat egiten. Etxebizitza babestua gazteentzat egiten da.*


*Mendekotasunak dituzten pertsonekin bizi diren familiei lehentasuna ematen zaie, baina ez adinekoekin bizi diren familiei.*

Garrantzia ematen zaio Etxebizitza Politikaren bitartez taldeak dituen beharrei erantzuteko egin behar den ahalegin handiari, izan ere, biztanle eta sendigune asko eta asko daude adinekoen taldean.

Era berean, biztanleria zahartzen ari da eta aurreikusitako joerak gero eta adineko gehiago egongo direla erakusten du. Etorkizunari aurre egiteko beharra azpimarratzen da, izan ere, adineko biztanleriak etxebizitzaren esparruan esku-hartze garrantzitsu baten beharra izango du.

*Adinekoak gero eta gehiago gara eta gauza jakina da gero eta gehiago izango garela.*

*Biztanleriaren zahartzea arazo berri bat da, baina aurre hartu behar zaio, are gehiago kontuan hartuta aurreikusitako bilakaera demografikoa. Neurriak hartu behar dira lehenbailehen.*



### **b) Etxebizitzaren arazoaren konponbideak**

2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta erreferentzia gisa hartuta, honako konponbide nagusi hauek aipatu dituzte EAEko adinekoek etxebizitzaren arazoa konpontzeko: etxebizitza babestu gehiago egitea (% 40k aipatu dute), alokairua sustatzea (% 27), lurzorua merkeago eskaintzea (% 22) eta interes-tasak jaiste (% 21)-

#### **3.9. taula EAEko etxebizitzaren arazoa konpontzeko soluzio posibleen balorazioa adineko familien aldetik**

| <b>baiezkoen %</b>                       | <b>64 urtetik gorako familiaburua</b> |
|--|---------------------------------------|
| Etxebizitza babestu gehiago egitea       | 39,7                                  |
| Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea | 11,9                                  |
| Erosteko laguntza gehiago ematea         | 12,4                                  |
| birgaitze-lanak laguntzea                | 4,3                                   |
| Alokairua sustatzea                      | 26,9                                  |
| Interes-tasak jaiste                     | 21,1                                  |
| Eraikuntzari laguntzea                   | 2,2                                   |
| Lurzorua merkatzea                       | 21,8                                  |
| Beste hainbat neurri                     | 10,5                                  |
| Eg/Ee                                    | 49,3                                  |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Adinekoen kasuan, asko eta asko bizi diren etxebizitzaren jabe direla kontuan hartuta, eta etxe horretan ahalik eta denbora gehien bizitzen jarraitu nahi dutela kontuan hartuta, birgaikuntzarako laguntzak dira taldeak proposatutako konponbide nagusia. Beharrezkoak diren erreformak egiteko, adinekoen taldeak berariazko dirulaguntzak eskatzen ditu etxebizitzak egokitu ahal izateko.

*Dirulaguntzak behar dira adinekoen etxebizitzak birgaitzeko.*


### **c) Baliabide eta zerbitzu publikoen ezagupen-maila**

Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, adineko familien % 15ek ezagutzen dute Etxebide, % 48k inoiz entzun dute



zerbitzuari buruz hitz egiten eta % 38k ez dute ezagutzen. Aipatutako ezagupen-maila nahiko altua da euskal familien guztizkoarekin alderatzen badugu (% 17k ez dute Etxebide ezagutzen).


3.8. grafikoa EAEko adineko familiek Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruz duten ezagupena



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Lehen ere aipatu da oso gutxi direla etxebizitza babestua nahi duten adineko pertsonak. Kasu askotan ez dira ezagutzen etxebizitza babestua eskuratu ahal izateko bete behar diren baldintzak. Adibidez, ezin da jabetzako etxebizitza bat eduki, eta adineko gehienek dute jabetzako etxebizitza bat. Hala ere, indarrean dagoen araudian hainbat salbuespen zehaztu dira eta salbuespen horien barruan sar daiteke adinekoen taldea. Baina oso gutxik ezagutzen dituzte aipatutako salbuespenak.

70 urte edo gehiago eduki eta iresgarritasun-baldintzak betetzen ez dituen jabetzako etxebizitza bat duten pertsonen kasuan, etxebizitzak trukatzeko sistema bat ezarri da. Horren arabera, adinekoek etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izango dute, horren truke beren etxebizitza Eusko Jaurlaritzaren esku uzten badute, Eusko Jaurlaritzak eskuratu, alokatu edo trukatzeko. Adinekoek ez dute aukera hori ezagutzen.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko jarduerak diruz laguntzen ditu, baina etxebizitza birgaitzeko beharra duten adinekoek oso gutxi ezagutzen dituzte laguntza horiek.

*Ez dira etxebizitzaren esparruko laguntzak ezagutzen. Adineko pertsonak ez dituzte ezagutzen Eusko Jaurlaritzaren laguntzak. Ez dute informaziorik Eusko Jaurlaritzak birgaikuntzarako ematen dituen laguntzei buruz.*

Zentzu horretan, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak erakusten duenez, erreferentziazko pertsonak 64 urte baino gehiago eduki eta etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien artetik % 35ek ezagutzen dituzte Eusko Jaurlaritzak birgaikuntzara zuzentzen dituen laguntzak; % 40k aitortu dute inoiz entzun dutela laguntza horiei buruz hitz egiten eta gainerako % 25ek adierazi dute ez dituztela ezagutzen. Laguntzak ezagutzen dituzten adinekoen artetik % 36k aitortu dute eskatu dituztela eta % 42k laguntzak eskatzeko asmoa dutela.

### 3.10. taula Birgaitzeko beharra duten adineko familien ezagupena birgaikuntzara zuzentzen diren laguntzei buruz\*


| Bertikalaren %  | 64 urtetik gorako familiaburua |
|---|--------------------------------|
| <b>Ezagutzen al ditu Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen dirulaguntzak?</b> |                                |
| Badaki zer-nolakoak diren   | 35,2                           |
| Entzun du, baina ez daki zehazki  | 39,6                           |
| Ez daki existitzen direnik ere  | 25,2                           |
| <b>Eskatu al ditu?</b>  |                                |
| Bai, eskatu ditu  | 36,2                           |
| Bai, eskatzea pentsatu du   | 42,0                           |
| Ez ditu eskatu  | 19,0                           |
| Eg/Ee   | 2,7                            |

\* Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Adinekoen taldean aipatutako laguntzak ezagutzera emateaz gain, adinekoek aholkularitza jasotzeko beharra azpimarratzen dute. Adinekoek laguntzari buruzko informazioa jasotzeko eta laguntzaren izapideak eta jarraipena egiteko beharra dute, oro har gainerako biztanleek baino gehiago.





*Ez dago laguntzak bideratzeko sistemarik. Adinekoak gizarte-langileari galdetzen dio eta horrek normalean ez du birgaikuntzarako laguntzei buruzko informaziorik edukitzen.*

Adinekoei beren etxebizitzan bizitzen jarraitzeko bidea erraztuko dieten dirulaguntzez eta gizarte-laguntzez gain, adinekoen artean onarpen altua duen baliabide bat da tutoretzapeko etxebizitzak edo apartamentuak eskuratzeko aukera. Zuzkidura-baliabide horrek harrera bikaina lortu du alokairuko etxebizitza batean bakarrik bizi diren adinekoen artean, bai eta adineko senar-emazteen artean zein bakarrik bizi diren adinekoen artean ere.

*Tutoretzapeko apartamentuak esperientzia bikaina dira. Adinekoak poz-pez daude.*


*Tutoretzapeko etxeetara senar-emazte ugarik jotzen du; gutxiago dira bakarrik egiten dutenak. Oro har, alokairuan bizi ziren pertsonak dira, jabetzan bizi direnak baino gehiago.*

*Leku askotan hasi dira tutoretzapeko etxeak egiten. Adibidez, Zumaiian eguneko egoitza bat egiten ari zirela aprobetxatu zen eraikinaren bigarren solairuan tutoretzapeko hainbat etxe egiteko.*

#### **d) Jardueren balorazioa**

Etxebizitzaren esparruan proposatutako jarduera desberdinen artetik, adineko biztanleak nahiko ados agertu dira alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea pertsona orok duen eskubide gisa Lege batean barne hartzeko neurriarekin.

Modu berean, adinekoen taldeak beharrezkotzat jo du etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurria. Horrez gain, ados daude etxebizitza babestu gehienak alokairuan eskaintzeko neurriarekin, bai eta sarrera altueneko eskatzaileentzako babes publikoko etxebizitzaren prezioak altuagoak izateko neurriarekin ere. Bestalde, etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioa egitearen alde agertu dira.




3.11. taula Adineko familiek etxebizitzaren inguruko gaietako jardueri buruz egindako balioespena

|   | 64 urtetik gorako familiaburua |
|---|--------------------------------|
| Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzeko neurriarekiko adostasun-maila (0-100 indizea) | 88,0                           |
| Etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna (0-100 indizea)                           | 86,8                           |
| Etxebizitza babestu gehiena alokatzeko eraikitze aukerarekiko adostasun maila (0-100 indizea)   | 70,7                           |
| Diru-sarrera altuagoak dituztenentzat etxebizitza babestuak garestiagoak izatearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)                                   | 70,4                           |
| Etxebizitza babestuak mugagabekotzat kalifikatzearen aldekoak (baiezkoen %)   | 66,6                           |
| Etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)   | 52,7                           |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Etxebizitza hutsei kanon bat ezartzeko neurriarekiko adostasun-maila baxuagoa da adinekoen artean gainerako biztanleria-taldeen artean baino. Esanak esan, adineko familien % 38 nahiko ados edo oso ados agertu dira horrelako neurri baten aurrean; % 35 kontra agertu dira. Hala ere, adinekoen % 28k ez dute iritziz garbirik eman.

3.9. grafikoa Adineko familiek etxebizitza hutsei kanon bat ezartzeko neurriaren aurrean agertutako adostasun-maila



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



64 urtetik gorako familien taldeak etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuen ganean erakutsitako konfiantza, gainerako familiek erakutsitakoa baino baxuagoa da. Eta balorazio hori bat dator Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruz egindako balorazioarekin (48 puntu 100 puntutik; familiaburuak 64 urte baino gutxiago dituen familien kasuan 53 puntu izan dira).

Haatik, adinekoek iritzi positiboa dute Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan egiten duen lanari dagokionez: 56 puntuko batez bestekoa lortu da (0-100), galdetutako gainerako familiek emandako batez besteko puntuazioaren gainetik (52 puntu). Halaber, iritzi positiboa erakutsi dute Udalek esparruan egiten duten lanari buruz galdetzean (57 puntu 100 puntutik).

**3.12. taula Adineko familiek etxebizitzaren inguruko gaietan jarduten duten erakundeei buruz egindako balioespena**


|   | <b>64 urtetik gorako familiaburuak</b> |
|---|--|
| Etxebideren batez besteko balorazioa  | 48,4                                   |
| Etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuen gaineko batez besteko konfiantza                     | 41,9                                   |
| Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueren batez besteko balorazioa. | 55,5                                   |
| Udalek etxebizitzaren esparruan egiten dituzten jardueren batez besteko balorazioa              | 56,9                                   |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

### 3.2.4. Jarduera-proposamenak

#### **a) Birgaikuntzarako laguntzak adinekoentzat**

Lehen ere aipatutakoa gogora ekarriz, adineko familien behar garrantzitsuenetako bat da bizi diren etxebizitza dagokien bizi-zikloak ekarritako beharretara egokitzeko beharra. Adineko pertsonen jabetzako



etxebizitzaren parkearen zati garrantzitsu batek egokitzapen-erreformak behar ditu, mugikortasun-baldintza berrietara egokitzeko.


Erreforma horiei aurre egiteko dirulaguntzak behar izateaz gain, taldeak duen eskaera nagusia da etxebizitza egokitzeko obrak izapidetu eta gauzatzeko orduan aholkularitza eta laguntza behar dutela.

Adibide moduan Vital Kutxa-k 60 urtetik gorako adinekoentzat etxebizitzaren egokitzapen funtzionala egiteko aurkeztutako programa aipatzen da (ondoren datorren atalean garatzen da).

***b) Etxebizitza babestua eskuratzeko arau orokorraren salbuespenei buruzko informazioa***

Adineko gehienak etxebizitzaren jabe direla kontuan hartuta, garbi utzi behar da jabetzako etxebizitzak iresgarritasun-baldintzak betetzen ez baditu, etxebizitza babestuaren eskatzaile izateko aukera dagoela.

Jarraian, gaur egungo araudiaren arabera etxebizitza babestua eskuratzeko arau orokorraren salbuespenak aipatzen dira.



### 3.13. taula EAEn etxebizitza babestua eskuratzeko arau orokorraren salbuespenak

1. Udal-zerbitzuek ikuskapen teknikoa egin eta gero aurre-egoeran dagoen etxebizitza bat dela erabaki bada eta beraren eraispena adostu bada.
2. Desjabetze-espeditate batek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda baten barruan egotea etxebizitza.
3. Etxebizitzak 317/2002 Dekretuan, abenduaren 30ekoa eta ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jardura babestuei buruzko denean (2002ko abenduaren 31ko EHAAn argitaratua), adierazitako baldintzak ez betetzea.
4. Banandu edo dibortziatu ondoren, eta eskatzaileak beste etxebizitza bat ez badu eta aurreko etxebizitza bi urte baino gehiagoz beste ezkontideak erabiltzeko bada. Edo ezkontideen ohiko bizitokia izan den higiezia besterentzen bada, betiere eskatzailearen partaidetzaren balioak 75.000,00 euroko kantitatea gainditzen badu, eskritura publikoaren arabera.
5. Eskatzailea etxebizitza bat edo gehiagoren jabeak bada (gurasoen jaraunspen edo dohaintza bidez lortutako etxebizitza), betiere jabeakidetasun-portzentajea % 50 edo gutxiago bada eta jaraunspen-masaren barruan etxebizitzaren partaidetzaren balioa 75.000,00 eurokoa edo baxuagoa bada, tasazio-txostenaren arabera.
6. Eskatzaileen artean bizikidetzaren unitate batean mugikortasun mugatu iraunkorra duela ziurtatzen duen kide bat egotea, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:
  - o a) 68/200 Dekretuan, apirilaren 11koa eta hiri-ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemen iresgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen sarbide eta igogailuekin erlazioan ezarritakoa betetzen ez duen eraikin batean kokatutako etxebizitza bat izatea.
  - o b) Etxebizitza berriak aurreko atalean aipatutako sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzea.
- 7 70 urte edo gehiagoko pertsonak, iresgarritasun-baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza baten titular direnak, aurreko atalean aipatutako araudiaren arabera.
- 8 Tutoretzapeko apartamentuak eskatzen dituzten 65 urtetik beherako pertsonak.
- 9 Bizikidetzaren unitatea 5 kide edo gehiagok osatzen badute, edo familia ugaria bada, eta kideetako bat 36 metro koadro baino gehiago eta 72 metro koadro eraiki baino gutxiago dituen etxebizitza baten titularra bada, baldin eta pertsona bakoitzarentzako ratioa 15 metro koadro erabilgarri baino gutxiago bada.

Hala ere, 3., 6., 7. eta 9. zenbakietako salbuespenei helduta, etxebizitza babestua eskuratu nahi duen pertsonaren jabetzakoa bada gaur egun bizi den etxebizitza, Eusko Jaurlaritzaren esku utzi beharko du, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak edo izendatzen den aldeak erosi, alokatu edo trukatu ahal izango du, kasuan kasu ezarritako baldintzen arabera.

Salbuespen gehigarria: Etxebizitza babestua eskuratzeko beste modu bat dago, nahiz eta alokairuan bakarrik eskuratu daitekeen. Hain zuzen ere, erabilera-eskubidea edo usufruktu-eskubidea, bizitza osorako zein aldi baterako, beste pertsona baten izenean duen etxebizitza baten titularra den pertsona bada eta etxebizitza babestuaren alokairu-kontratuak baino gehiago iraungo badu egoera horrek.

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua

### c) *Etxebizitzak trukatzera*


Era berean, taldeak etxebizitzak trukatzeko formulak aztertzeke interesa agertu du.

Adineko pertsona baten etxebizitza librea eta pertsona gazte bati esleitutako etxebizitza babestua trukatzeko proposatzen da, denbora-tarte mugatu batean, eta hilean kopuru bat ordainduko da, betetze-eskubidea dela eta.

*Etxebizitzen trukea izan daiteke konponbidea.*

*Jabetzan emandako etxebizitza babestu bat, 30 urterako malleku batekin, ez da adinekoentzako egokia.*

*Halaber, gazteekin etxebizitzak trukatzeko aukera aztertu da. Pertsona gazte*




*bati etxebizitza babestu bat esleitu ondoren adineko pertsona baten etxebizitzarengatik trukatzeko aukera ematea interesgarria izan daiteke. Horrela, adinekoak etxebizitza babestu egokitu batean bizitzeko aukera du eta gazteak adineko pertsonarekin trukaturako etxean. Horren truke, adinekoak diru-kopuru bat ordainduko du kontraprestazio gisa. Kopuru hori gaztearen hipoteka ordaintzera bidera daiteke. Etxebizitzen trukea konponbide egokia izan daiteke beharra duten adinekoen familia-portzentaje altu batentzat.*

### 3.3. Esperientzia interesgarriak

#### a) Etxebizitzak egokitzeko programa

Vital Kutxa-k, bere Mejora Fundazioaren bitartez (Gizartekintzaren barruan), 60 urtetik gorako pertsonen etxebizitzaren egokitzapen funtzionala egiteko programa bat jarri du martxan. Programa horri esker, komunak egokitu daitezke eta eserlekuak, komun-igogailuak, dutxak arrasean, beso-euskarriak, manpara irekiak, eta abar bezalako laguntza teknikoak erabil daitezke.

Mejora Fundazioa 2002an sortu zen, Arabako adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. "Adineko pertsona aktiboak" dira Fundazioaren jardueren xede eta adinekoen taldea gaur egungo errealitatean birkokatzen saiatzen da, aisialdia, kirola, hezkuntza eta kultura bezalako alderdien partaide bilakatuz. Jarduera horiei guztiei esker, adinekoak oraindik ere erabilgarri, gai eta beharrezko direla konturatzen dira.



Etxebizitzaren Egokitzapen Funtzionalaren Programa adinekoen etheen bizigarritasun-baldintzak hobetzeko ekimen bat da. Etxeko prebentzioa eta segurtasuna zaintzeko kanpaina baten moduan osatu da programa. Obretarako finantzaketa-sistema bat aurreikusi da eta, horren arabera, obraren kostuaren % 90era arte iritsi daitezkeen dirulaguntzak ematen dira, betiere urteko sarrera-mailaren arabera, eta/edo zero kostuko maileguak ematen dira (gehienez ere hiru urteko epean itzultzekoak). Mejora Fundazioak bere gain hartzen ditu komisio eta interesen gastuak.


Kutxaren 2008ko Gizartekintzaren Memoriaren arabera, programa martxan jarri denetik guztira 1.824 eskaera egin dira (295 udalerrri arabarretan), eta 1.402 obra daude finantzatuta. 2008an 233 eskaera egin dira.

Bestalde, Mejora Fundazioak informazio- eta komunikazio-bulego bat du adinekoentzat eta bertan izapidetzen dira laguntzak. Bulego horretan izapidetutako laguntzen % 10 etxebizitzarekin lotutako laguntzak dira.

#### 3.14. taula Mejora Fundazioaren etxebizitzak egokitzeko programa

|                    |  |
|--------------------|--|
| <b>Programa</b>    | Komunak egokitzeko obrak: dutexak, heldulekuak, komun-igogailuak, eta abar.                                    |
| <b>Onuradunak</b>  | 60 urtetik gorako pertsonak, etxebizitza baten jabeak direnak edo bizitza osorako usufruktu-eskubidea dutenak. |
| <b>Laguntzak</b>   | Obraren % 90 arteko dirulaguntzak, sarreraren arabera, eta/edo 3 urtean itzultzeko zero kostuko maileguak.     |
| <b>Informazioa</b> | Mejora Fundazioa, Aiztogile kalea 24, Vitoria-Gasteiz.   |

Iturria: Vital Kutxa-ren Gizartekintza.



### ***b) Alderantzizko hipoteka***

Sarritan adineko pertsona askok ez dute sarrera ekonomiko nahikoa edukitzen beren beharrei erantzuteko edo nahiago izaten dute ohiko sarrerak gainditzen dituen errenta-maila altuagoa ordaindu, baina jabetzako etxebizitza bat eduki. Alderantzizko hipotekari esker, etxebizitza hori baliabide ekonomiko bihur daiteke, etxebizitza erabiltzen jarraitzen den bitartean.


**Alderantzizko hipoteka** bezala ezagutzen da hipoteka gisa ulertu ohi den negozioaren kontrakoa. Hipoteka bat etxebizitza baten epekako erosketa bada, alderantzizko hipoteka etxebizitza salduz gero lortuko zen dirua epeka jasotzean datza; etxebizitzan bizi daiteke hil arte, eta une horretan finantza-erakundea etxebizitza horren jabe izatera pasatzen da.

Azken finean, alderantzizko hipoteka higiezin-bermea duen kreditu bat da, hau da, etxebizitza bat duen pertsona bati hilero errenta bat jasotzeko aukera ematen dion negozioa da.

Horrelako kontratu bat egitean, normalean hasieran kopuru jakin bat kobratzeko aukera eskaintzen da –kontratua dela-eta edo etxean hobekuntzak edo erreformak egiteagatik izandako gastuak ordaintzeko. Une horretatik aurrera, aldiroko kantitateak kobratzen dira. Zenbait finantza-erakunderen kasuan, etxebizitzaren hasierako tasazioaren % 90era iritsi daitezke kopuru horiek.

Kasu guztietan dago alderantzizko hipoteka bat egiteko gutxieneko adina. Kasu askotan 65 urtetik gora izaten da.






Alderantzizko hipoteka kontratatu zuen pertsona hiltzean, oinordekoei aukera ematen zaie finantza-erakundeak etxebizitza saldu eta hipotekari esker hildakoak jasotako dirua berreskuratzeko (salmentatik lortuko litzateke falta den kantitatea, betiere finantza-erakundeak ordaindutako kopurua, interesak barne hartuta, gainditzen bada) edo kantitate hori ordaindu eta etxebizitzari kargak kendu erabakitzeke (kasu horretan, beste edozein ondasun bezala hartu daitezke oinordetzan).

Alderantzizko hipoteka bat egitean, aldi baterako errenta bat (denbora-tarte jakin batean) edo bizitza osorako errenta bat (bizi den bitartean jasoko dena) jaso erabaki behar da kontratuan. Azken kasu horretan, finantza-eragiketa baten aurrean egongo gara eta bizitza osorako estaldura ziurtatuko duen aseguru bat kontratatu behar da.

Alderantzizko hipotekaren abantaila nagusia dagokion zerga-tratamendua da. Izan ere, ez da zergarik ordaindu behar adinekoak jasotzen duen errentarengatik. Oztopo nagusia izan ohi da normalean ez dela bizitza osorako izaten eta aseguru gehigarri bat kontratatu behar izaten dela. Horrez gain, kontuan hartu behar da alderantzizko hipotekak ez direla KPIren arabera eguneratzen, baina formula desberdinak hitzartu daitezke, errenta gorakorrak lortzeko.

Alderantzizko hipotekaz gain, finantza-merkatuan higiezin-aktiboak errenta bihurtzeko modua ahalbidetzen duten produktu gehiago daude, adibidez "pentsio-hipoteka", "pentsio-etxebizitza", edo "etxebizitza alokairurako lagatzea" hirugarren erakunde bati:

- **Pentsio-hipoteka:** Etxebizitza baten gaineko hipoteka-kreditu bat hitzartzen da eta lortzen den diruarekin biziarteko pensio bat kontratatzen da. Kontratutako hipoteka gabezialdian egongo da beti, jabea hil arte. Une horretan, oinordekoek higiezinarekin ordainduko dute zorra, edo ondasuna oinordetzan jaso dezakete, zorra beren gain hartuz. Hipotekaren interesei




dagokienez, jabeak ordaindu ohi ditu, pentsioaren zati batekin. Jasoko den pentsioa hipotekaren zenbatekoaren (etxebizitzaren balioa) eta pentsioaren titularraren adinaren (gero eta altuagoa da zenbat eta urte gehiago eduki eta zenbat eta altuagoa izan higiezinaren balioa) arabera da. Figura honen abantaila nagusia da biziarteko izaera duela: ez da aseguru bat kontratatu behar edo eragiketa gehigarriak egin behar, eta etxebizitzaren jabetzari eusten zaio eta bertan bizitzeko aukera ematen da. Desabantaila nagusia fiskalitatea da; biziarteko pentsiotik jasotzen duen errentagatik zergak ordaindu behar dira.

- **Pentsio-etxebizitza:** Etxebizitza saldu eta aseguru-konpainia batekin biziarteko pentsio bat formalizatzean datza. Etxebizitzaren jabeak jabetza utziko du (jabetza saltzen du), nahiz eta etxe horretan bizitzen jarraitzen duen, etxearen usufruktua baitu. Jabe zaharrak pentsio osagarri bat jasoko du bizi bitartean, eta ez ditu bere gain hartu behar izango etxebizitzaren kargak eta gastuak (OHZ, erkidegoa, aseguruak...); hala ere, etxebizitzaren alokairuagatik kopuru bat ordaindu behar izaten da kasu batzuetan. Gutxien garatu den produktuetako bat da. Gaur egun mota horretako eragiketen fiskalitatea ez da oso positiboa: pentsioa dela-eta zergak ordaindu behar dira eta ezin dira zergak arindu usufruktuan dagoen etxebizitzaren alokairuagatik.
- **Alokairuan lagatzea:** Normalean etxebizitzaren jabeak adinekoentzako egoitza batean, tutoretzapeko apartamentu batean edo bestelako bizitoki batean bizitzeko beharra izan ohi du (zainketa bereziak behar dituelako edo horrelako bizitoki motak nahiago dituelako). Baliabide horiek finantzatzeko jabeak erakunde bati lagatzen dio etxebizitza eta erakunde hori arduratzen da etxebizitza alokatzeaz gain, jabeari sarrera jakin batzuk ordaintzeaz. Eragiketa horretan jabeak ez du etxebizitzaren jabetza galtzen, eta ez dio kargarik gehitzen; jabetzaren lagapena egiten du, beste erakunde batek alokatzeko. Fiskalitateari dagokionez, alokairuaren errentei PFEZ ezartzen zaie. Horrelako aukera baten alderdi positiboa da alokairuak eguneratzen badira, adostutako errentak eguneratu daitezkeela.

### 3.4. Ebaluazio-adierazleak


Azkenik, jarraian adinekoekin erlazioan etxebizitzaren esparruan garatzen den esku-hartze publikoa ebaluatzeko hainbat adierazle aipatzen dira.




3.15. taula Adinekoekin erlazioan etxebizitzaren esparruan garatzen den politika publikoaren ebaluazioa egiteko adierazleen proposamena

|    | <b>Adierazlea</b>   | <b>Iturria</b> |
|----|---|----------------|
| 1  | Etxebiden izena emandako adineko biztanleria (<64 urte)   | Etxebide       |
| 2  | Bakarrik bizi diren adinekoek osatutako familiak  | EUSTAT         |
| 3  | Aldatzeko beharra duten adineko familien %  | EBEI           |
| 4  | Birgaitzeko beharra duten adineko familiak  | EBEI           |
| 5  | Iresgarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten adinekoen etxebizitzak                                   | --             |
| 6  | Adinekoek alokairuan esleitutako etxebizitza kopurua  | EJ             |
| 7  | Adinekoek erosteko esleitutako etxebizitza kopurua  | EJ             |
| 8  | Etxebizitzen trukea adinekoekin   | EJ             |
| 9  | Adinekoek osatutako familiei emandako birgaikuntza-laguntzen kopurua                                    | EJ             |
| 10 | Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueretikiko batez besteko poztasun-maila | EJ             |

Iturria: Bertan landutakoa.



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA



## 4. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN ETXEBIZITZA BEHARRA

### 4.1. Taldearen karakterizazioa

#### 4.1.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak


##### a) Taldearen kuantifikazioa

EIN erakundearen Desgaitasun, autonomia pertsonal eta mendekotasunezko egoerei buruzko Inkesta erreferentzia moduan hartuta, 2008an desgaitasunak dituzten 169.400 pertsona erregistratu dira. Horrela, desgaitasun-tasa 1.000 biztanletik 85 pertsonakoa da.

4.1. taula EAEn desgaitasun funtzionala duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko aukerekin erlazionatutako adierazle nagusiak

|                         | Adierazlea   | EAE     | Data | Iturria  |
|-------------------------|--|---------|------|----------|
| Adierazle demografikoak | Desgaitasuna duten pertsonak   | 169.400 | 2008 | EIN      |
|                         | 1.000 biztanleko tasa  | 84,5    | 2008 | EIN      |
|                         | Mugimen-desgaitasuna duten pertsonak   | 117.300 | 2008 | EIN      |
|                         | Etxeko bizitarako desgaitasunak dituzten pertsonak                                 | 97.500  | 2008 | EIN      |
| Adierazle demografikoak | Baliaezintasunagatiko pensio ez-kontributiboen kopurua                             | 5.255   | 2009 | MTAS     |
|                         | Baliaezintasunagatiko pensio ez-kontributiboa (eurotan)                            | 338,4   | 2009 | MTAS     |
| Etxebizitza-adierazleak | Eskaera-txostenak Etxebideren desgaitasunen kupoan                                 | 724     | 2008 | Etxebide |
|                         | % Etxebideko eskaera-txostenen guztizkoarekiko                                     | 0,8%    | 2008 | Etxebide |
|                         | Izena emandakoen tasa desgaitasunak dituen biztanleriarekiko                       | 0,42    | 2008 | Etxebide |
|                         | Aldatzeko beharra duten eta desgaitasunak dituzten pertsonak dituzten familien %   | 20,9    | 2008 | EBEI     |
|                         | Birgaitzeko beharra duten eta desgaitasunak dituzten pertsonak dituzten familien % | 5,5     | 2008 | EBEI     |

Iturria: EIN, Desgaitasun, autonomia pertsonal eta mendekotasunezko egoerei buruzko inkesta. Etxebide. Bertan landutakoa



## b) Ezaugarri sozioekonomikoak


EAEEn bizi diren desgaitasunak dituzten pertsona guztien artetik % 60 emakumezkoak dira eta gainerako % 40 gizonezkoak. Adin-taldeen arabera, desgaitasunak dituzten pertsonen % 13k 6 eta 44 urte bitartean dituzte, % 25ek 45-64 urte artean eta gainerako % 62k 65 urte edo gehiago.

### 4.2. taula Desgaitasunak dituzten pertsonak adin-taldeka eta sexuaren arabera EAEEn, 2008


|                      | Bi sexuak      | Adinaren arabera banaketa | Gizonak       | Emakumeak      |
|----------------------|----------------|---------------------------|---------------|----------------|
| <b>Adin-taldeak</b>  |                |                           |               |                |
| 6-44 urte bitartean  | 22.000         | 13,0                      | 13.000        | 9.100          |
| 45-64 urte bitartean | 43.100         | 25,4                      | 19.900        | 23.200         |
| 65-74 urte bitartean | 27.000         | 15,9                      | 12.600        | 14.500         |
| 75-79 urte bitartean | 25.800         | 15,2                      | 8.700         | 17.100         |
| 80 urte eta gehiago  | 51.500         | 30,4                      | 14.100        | 37.300         |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>169.400</b> | <b>100,0</b>              | <b>68.200</b> | <b>101.200</b> |

Iturria: EIN, Desgaitasun, autonomia pertsonal eta mendekotasunezko egoerei buruzko inkesta, 2008.

Iturri berak erakusten duenez, EAEEn 117.300 pertsonak dute mugikortasunak eragindako desgaitasun bat, eta 97.500 pertsonak etxeko bizitzan moldatzeko desgaitasunak dituzte. Bestalde, 82.500 pertsonak behar dute autozainketa. Entzumenak eragindako desgaitasun bat duten pertsonak 50.700 dira eta 38.400 dira ikusmen-desgaitasuna dutenak.




4.1. grafikoa Desgaitasun bat duten pertsonak EAEn desgaitasun-taldearen arabera\*



\* 6 urte eta gehiago eta desgaitasun bat duten pertsonak  
Iturria: EIN, Desgaitasun, autonomia pertsonal eta mendekotasunezko egoerei buruzko inkesta. Bertan landutakoa.

“Situación real de las personas con discapacidad respecto al empleo” azterketaren arabera, 52.000 lagun inguruk osatzen dute EAEn desgaitasun bat eduki eta adin potentzialki aktiboa duten (16-64 urte arte) biztanleen taldea, hau da, adin horretako euskal biztanleriaren % 3,4 dira. Biztanleria talde hori oso zahartuta dago (ia erdiek 50 urte baino gehiago dituzte).

Desgaitasunak edukita potentzialki adin aktiboan dauden pertsona gehienek dituzte sarrera pertsonalak (% 87). Taldeko % 13k bakarrik adierazi dute ez dutela sarrera propiorik. Taldetik % 33k adierazi dutenez, lanaren truke lortzen dituzte sarrerak; % 29k aitortu dute desgaitasunagatik pentsio bat jasotzen dutela, eta % 20k pentsio ez-kontributiboa jasotzen dutela.



#### 4.3. taula Sarrera pertsonalen iturria desgaitasunaren %-ren arabera EAEn

|                                      | desgaitasunaren % |              |              |              |
|--------------------------------------|-------------------|--------------|--------------|--------------|
|                                      | 33-34%            | 65-74%       | > 74%        | Guztira      |
| <b>Sarrera pertsonalen mota</b>      |                   |              |              |              |
| Sarrera propiorik gabe               | 15,1              | 9,8          | 10,8         | 13,0         |
| Lana dela eta lortutako sarrerak     | 45,4              | 17,3         | 15,5         | 32,8         |
| Langabezia-sorospena                 | 2,6               | 1,1          | 1,7          | 2,0          |
| Baliaezintasuneko pentsioa           | 28,1              | 34,3         | 24,6         | 29,2         |
| Erretiro-pentsioa                    | 4,8               | 3,0          | 2,2          | 3,9          |
| Gizarte Segurantzako hainbat pentsio | 3,2               | 7,6          | 10,0         | 5,5          |
| LISMI/PNC                            | 6,2               | 31,4         | 45,9         | 19,6         |
| Oinarrizko errenta                   | 2,1               | 4,2          | 1,7          | 2,6          |
| Mantenu-pentsioa                     | 0,9               | 0,7          | 1,4          | 0,9          |
| Hainbat                              | 4,8               | 9,6          | 6,7          | 6,4          |
| <b>GUZTIRA</b>                       | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b> | <b>100,0</b> | <b>100,0</b> |

Iturria: EAEn desgaitasunak dituzten pertsonen lan-jarduerari buruzko inkesta, 2006


Taldeak etxebizitzaren beharrari aurre egiteko orduan duen oztopo garrantzitsuenetako bat ahalmen ekonomiko baxua da. Desgaitasunak dituzten pertsonen sarrera-mailari buruzko datu orokorragorik ez dagoenez, IMSERSOk emandako datuen arabera esan daiteke, EAEn baliaezintasuneko pentsio ez-kontributiboak hilean 338 euroko batez besteko kopurura iristen direla.

#### 4.4. taula Baliaezintasuneko pentsioen batez besteko kopurua, 2008

|                            | Hileko batez besteko kopurua |
|----------------------------|------------------------------|
| <b>Lurralde historikoa</b> |                              |
| Araba                      | 334,6                        |
| Bizkaia                    | 368,6                        |
| Gipuzkoa                   | 327,9                        |
| <b>GUZTIRA</b>             | <b>338,4</b>                 |

Iturria: INMERSO, Gizarte Segurantzako pentsio ez-kontributiboak, gizarte-eta ekonomia-prestazioak.





### ***c) Demografia- eta bizitegi-ezaugarriak***

Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien ezaugarriei dagokienez, 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestako datuak oinarrian hartu eta deskribapena egin da<sup>6</sup>. Inkesta horren arabera, euskal familien % 9,3tan bizi da desgaitasun bat duen pertsonaren bat<sup>7</sup>.

Desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familia horien familiburua zaharragoa da, EAEko familien guztizkoarekin alderatuta, eta lan-egoera kaxkarragoa du. Zehazkiago, % 39k aitortu dute pentsiodunak direla eta % 28k erretiratuak (bi proportzioak baxuagoak dira EAEko familien guztizkoa aztertzen bada).


Familia horien kasuan kalkulaturako batez besteko sarrerak baxuagoak dira, halaber: 1.486 euro batez beste hilean, eta 1.622 euro dira EAEko familien guztizkoa kontuan hartuta.

Lan-egoera eta sarrera-maila baxuagoa dela kontuan hartuta, desgaitasun bat duen kide bat bizi den familiek zailtasun handiagoak dituzte etxebizitza-beharrei erantzuteko orduan.

---

<sup>6</sup> Arrazoi metodologikoak direla-eta, desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familiei buruz adierazitako datuek taldeak bizi duen errealitatera hurbilketa kualitatiboa egiteko balio dute, laginaren tamaina mugatua kontuan hartuta. betiere

<sup>7</sup> Kontuan hartu behar da Inkestan orokorrean galdetzen dela, desgaitasun mota bereizi gabe.



4.5. taula Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien ezaugarri soziodemografikoak

|   | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak | Familiak guztira EAE |
|---|---|----------------------|
| Familiaburuaren batez besteko adina     | 58,0  | 56,2                 |
| Familiaren batez besteko tamaina        | 3,0   | 2,6                  |
| Familiaburuaren lan-egoera              |   |                      |
| • Lanean                                | 25,3  | 44,7                 |
| • Langabezian                           | 5,4   | 4,9                  |
| • Ez-aktiboa                            | 68,0  | 49,6                 |
| 1. Pentsioduna                          | 38,8  | 29,3                 |
| 2. Erretiratua                          | 27,6  | 18,7                 |
| Hileko batez besteko sarrerak (eurotan) | 1.486   | 1.622                |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


Bizitegi-ezaugarrien ikuspegitik, ez dago desberdintasun handirik desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familiek dituzten etxebizitzaren eta EAEko familien guztizkoaren etxebizitzaren artean. Batez besteko azalera 80 m<sup>2</sup> da eta etxebizitzaren antzintasuna batez beste 36 urtekoa. Kasu gehienetan jabetzako etxebizitza batean bizi dira (% 93), eta % 3k bakarrik aitortu dute alokairuko etxebizitza batean bizi direla.

Inkestaren arabera, portzentaje altuagoa lortu da etxebizitza babestu batean bizi diren eta desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familien kasuan: % 12, eta % 7 euskal familiak batera hartuta.

4.6. taula Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien bizitegi-ezaugarriak

|  | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak | Familiak guztira EAE |
|--|---|----------------------|
| Batez besteko azalera (m2)   | 79,8  | 80,2                 |
| Batez besteko antzintasuna (urteak)                                | 36,2  | 36,0                 |
| Edukizta-erregimena (%)  |   |                      |
| • Jabetza  | 92,6  | 92,7                 |
| • Alokairua  | 3,3   | 5,3                  |
| Etxebizitza babestuak  | 11,5  | 7,4                  |
| Batez besteko poztasuna bizi den etxebizitzarekiko (0-100 indizea) | 79,6  | 84,3                 |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



Familia horiek poztasun-maila altua agertu dute bizi diren etxebizitzarekin, nahiz eta batez besteko emaitza (80 puntu) euskal familien guztizkoak lortutakoa (84 puntu) baino zerbait baxuagoa den.


Lehen etxebizitzaren iresgarritasunarekin erlazionatutako zenbait itemek eragin handiagoa dute desgaitasunak dituzten kideak bizi diren familien artean: igogailua duten familia gutxiago eta etxebizitza iresgarri gutxiago daude eta iresgarritasun-arazo larriagoak dituzte bizi diren inguruan edo auzoan.

**4.7. taula Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien lehenengo etxebizitzaren iresgarritasuna**


| <b>baiezkoen %</b>                            | <b>Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak</b> | <b>Familiak guztira EAE</b> |
|---|--|-----------------------------|
| Etxebizitzak igogailua du                     | 61,6   | 66,1                        |
| Etxebizitzara iristen den bidea iresgarria da | 44,3   | 44,1                        |
| Eraikina iresgarria da                        | 36,7   | 35,4                        |
| Etxebizitza iresgarria da                     | 36,0   | 38,2                        |
| Auzoan/inguruan iresgarritasun-arazoak daude  | 28,0   | 23,5                        |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, desgaitasunak dituen pertsona bat bizi den familien % 38k ez dute igogailurik. Familia-tipologia berarekin jarraituz, % 56k adierazi dute etxebizitzara iristen den bidea ez dela iresgarria; % 63k uste dute eraikina ez dela iresgarria eta % 64k gauza bera pentsatzen dute etxebizitzaren iresgarritasunarekin lotuta. Etxebizitza kokatzen den inguruko iresgarritasun-arazoak aipatu dituzte desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien % 72k.



#### 4.2. grafikoa Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien lehenengo etxebizitzaren iresgarritasuna




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

#### 4.1.2. BEHARREN EZAUGARRIAK

##### a) Etxebizitza-beharraren kuantifikazioa

Desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familien zati garrantzitsu batek aitortu du ez duela beharrik etxebizitzaren esparruan, hain zuzen ere guztizkoaren % 74k. Hala ere, emaitza hori EAEko familien guztizkoaren kasuan erregistratutakoaren azpitik dago (euskal familien % 80k dute beharren bat etxebizitzaren esparruan).




4.8. taula Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien etxebizitzaren esparruko behar mota

|                     | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek | Familiak guztira EAE |
|---------------------|---|----------------------|
| Aldatzeko beharra   | 5,5   | 4,9                  |
| Birgaitzeko beharra | 20,9  | 15,5                 |
| Beharrik ez         | 73,6  | 79,6                 |
| <b>GUZTIRA</b>      | <b>100,0</b>  | <b>100,0</b>         |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra aipatu dute desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien % 5,5ek; modu berean, familia horien % 21ek baieztatu dute lehenengo etxebizitza birgaitzeko beharra dutela. Bi kasuetan gainerako familien artean lortutako ehunekoak gainditu dira.


4.3. grafikoa Desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien banaketa behar motaren arabera EAEn



Iturria: Bertan landutakoa.

**b) Etxebizitza-beharraren ezaugarriak**

Birgaitzeko beharrarekin hasita (desgaitasun bat duen pertsona bat bizi diren familien % 21), aipatzekoa da batez besteko behar-maila nahiko altua erakutsi dutela, 73 puntu, mota horretako beharra duten euskal familien guztizkoak lortutakoa gaindituz.



Horrez gain, taldeak beharrari erantzun gabe denbora nahikoa daramala adierazi du. Zehazkiago, % 63ek adierazi dutenez, lau urtetik gora daramate ohiko etxebizitzan erreformak egiteko beharrari erantzun ezinik.

Eta birgaikuntza egiteko aukerei buruz galdetzean, Inkestako emaitzek erakusten dute desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien erdiak baino gehiagok (% 58k) uste dutela 4 urteren buruan erreformak egiteko aukera handia dutela.

Kontrako irakurketa eginez esan daiteke, desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den eta ohiko etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 42k uste dutela ezingo dituztela erreformak egin, duten egoera ekonomikoa dela eta.


**4.9. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien birgaitzeko beharraren ezaugarriak EAEn\***

|   | <b>Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak</b> | <b>Familiak guztira EAE</b> |
|---|--|-----------------------------|
| <b>Beharren ezaugarriak</b>   |  |                             |
| Batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                                     | 72,7   | 66,6                        |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                    | 63,2   | 56,5                        |
| 4 urteren buruan birgaitzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 58,3   | 61,6                        |
| <b>Beharraren arrazoiak</b>   |  |                             |
| Elementu pribatuak  | 51,1   | 47,8                        |
| Elementu komunak  | 39,9   | 36,8                        |
| Elementu pribatuak eta komunak  | 9,1  | 15,5                        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>   | <b>100,0</b>                |


\* Birgaitzeko beharra duten familiei buruzko datuak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Elementu pribatuen birgaikuntza da desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien eskari nagusia. Horrela, familia horien artetik % 47k aitortu dute sukaldea edo komuna aldatzeko beharra dutela. Bestalde, % 28k leihoak eta ateak aldatzeko beharra dute eta % 23k igogailua behar dute ohiko etxebizitzan.



4.4. grafikoa Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren eta birgaitzeko beharra duten familiek aipatutako birgaitzeko elementu nagusiak EAEn\*




\* Birgaitzeko beharra duten familiei buruzko datuak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Desgaitasun bat duen kide bat duten familiek erakutsitako aldatzeko beharra askoz handiagoa da: 81 puntu batez beste; 67 puntu izan dira aldatzeko beharra duten familien kasuan. Era berean, familia horien % 64k aitortu dute lau urte baino gehiago daramatzatela ohiko etxebizitza aldatzeko beharrarekin, eta % 49k bakarrik uste dute datozen 4 urteetan etxebizitza aldatzeko aukera handiak dituztela.

Igogailurik ezak sortzen du ohiko etxebizitza aldatzeko beharraren % 21 eta etxebizitzaren tamaina desegokiak % 18, desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiei dagokienez.



4.10. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien aldatzeko beharren ezaugarriak EAEn\*

|   | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak | Familiak guztira EAE |
|---|---|----------------------|
| <b>Beharren ezaugarriak</b>   |   |                      |
| Aldatzeko batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                         | 80,8  | 68,7                 |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                  | 63,5  | 52,5                 |
| 4 urteren buruan aldatzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 49,3  | 48,1                 |
| <b>Beharren arrazoiak</b>   |   |                      |
| Tamaina desegokia   | 17,8  | 30,0                 |
| Bizi-baldintza eskasak  | 13,0  | 16,6                 |
| Igogailurik ez  | 21,3  | 14,5                 |
| Kokapen eskasa  | 12,3  | 6,3                  |
| Beste hainbat arrazoi   | 35,7  | 32,6                 |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>  | <b>100,0</b>         |

\* Aldatzeko beharra duten familiei buruzko datuak.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

### c) Etxebizitza babestuaren eskaria


Erreferentzia gisa Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren datuak hartuta, 2008an etxebizitza babestuaren 724 eskaera-txosten sartu dira desgaitasunaren kupoaren barruan.

Txosten guztiak batera hartuta, guztizkotik % 0,8 dira desgaitasun bat duten pertsonenak. Horrela, aipatzekoa da desgaitasunak dituzten biztanleen taldeak duen inskripzio-maila oso baxua dela.






#### 4.5. grafikoa Eskaera-txostenen bilakaera Etxebideren desgaitasunen kupoan




Iturria: Etxebide. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

2008ko txostenen arabera, desgaitasun bat duten 113 pertsona daude izena emanda Etxebiden Arabaren kasuan, etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa; 284 dira Bizkaian eta 327, azkenik, Gipuzkoan.

#### 4.6. grafikoa Etxebideko desgaitasunen kupoaren eskaera-txostenen banaketa lurralde historikoka



Iturria: Etxebide. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.




## 4.2. Taldeak egiten duen balorazioa

### 4.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa


Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familiek prezioen bilakaerari buruz duten iritzia eta etxebizitza babestuaren eraikuntza-erritmoaren pertzepzioa barne hartzen du.

Esanak esan, taldeko % 36k adierazi dute etxebizitzaren prezioak nabarmenki edo dezente merkeagotu direla; era berean, % 26k uste dute prezioak mantendu egin direla eta % 17k adierazi dute garestitu egin direla. Familia horien % 21ek ez dute ezagutzen etxebizitzaren merkatuko prezioek izandako bilakaera.

Etxebizitza babestuaren eraikuntza-erritmoari dagokionez, desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien % 55ek uste dute orain lehen baino etxebizitza dezente gehiago eraikitzen direla, % 12k berdin eraikitzen direla esan dute eta % 9k gutxiago direla. Hala ere, tipologia horretako lau familien artetik batek aitortu du ez duela egoera ezagutzen.



4.7. grafikoa Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Batez bestekoari erreparaturaz, prezioen pertzepzio-indizea 45 puntukoa da (0-100), EAEko familien guztizkoak lortutakoaren antzekoa. Eta etxebizitza babestuaren eraikuntzaren pertzepzioak batez besteko puntuazio zerbait altuagoa lortu du (67 puntu 0-100 eskalan).

4.11. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa

|   | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek | Familiak guztira EAE |
|---|---|----------------------|
| Prezioen bilakaerari buruzko pertzepzio-indizea (0-100 indizea) | 44,9  | 45,5                 |
| Etxebizitza babestuaren eraikuntzaren bilakaera                 | 67,2  | 64,0                 |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



#### 4.2.2. Etxebizitza-beharraren balorazioa


Etxebizitzak iresgarria izan behar du eta bertan bizi den pertsonak bizi-kalitate bikaina eta etxetik mugitzeko eta ibiltzeko autonomia eta independentzia osoa edukitzeko baldintzak bete behar ditu. Etxebizitza erabiliek ez dituzte betetzen mugimen-desgaitasuna duten pertsonen beharrezkoak dituzten iresgarritasun-baldintzak, eta, hori dela eta, etxebizitza berria da konponbide nagusia talde honen kasuan.

*Etxebizitza erabiliek ez ditu betetzen iresgarritasun-irizpideak...*

Arau ugari landu dira iresgarritasunari buruz. Etxebizitzen iresgarritasuna bermatzeko, besteak beste, Iresgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea dago eta 68/200 Dekretua dago, hiri-ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemen iresgarritasun-baldintzekin lotutako arau teknikoak buruzkoa.

Haatik, etxebizitzen iresgarritasun-baldintzei buruzko araudia ondo garatuta badago ere, desgaitasun fisikoa duten pertsonen taldeak azpimarratu du ez direla beti errespetatzen iresgarritasunaren estandarrak (ateak, korridoreak, igogailu eta arrapalak, komun egokituak, eta abar).

*Etxebizitzetan hartu beharreko neurriak arautzen dituen lege bat badago. Arazoa berau gauzatzea da. Azkenean, etxebizitzak ez dira arauak adierazten duenaren arabera egiten. Etxebizitza desgaitasun bat duen pertsona bati esleitzen bazaio, pertsona onuradunaren beharretara egokitu behar du etxebizitzak. Etxebizitzak batzuetan ez du estandar generikoa ere betetzen.*




Merkatu libreko eraikuntza berriko etxebizitzaren kasuan, eraikitako 50 etxebizitza libre bakoitzagatik etxebizitza egokitu bat egiteko betebeharra dago. Sustatzaileak sustapenaren berri eman behar du eta sei hilabete igarotzean ez bada agertzen desgaitasun bat duen pertsona interesdunik, etxebizitzak ez du irengarri izateko baldintza bete behar eta modu arruntean eraikitzen da. Hala ere, taldetik argi utzi nahi izan da etxebizitza orok eskaini behar zukeela etxebizitza egokitu bihurtzeko aukera.

*Etxebizitza libreen artean etxebizitza egokituak eraikitzeko betebeharra dago. Sustatzaile pribatuak sustapenaren eta erresebatuko diren etxebizitzaren berri eman behar du, eta sei hilabete igaro eta gero interesdunik agertzen ez bada, etxebizitza liberatu egiten da eta, normalean, etxebizitza arrunt baten antzera eraikitzen da, eta ez etxebizitza egokitu baten antzera. Hala ere, etxebizitza orok eskainiko du egokitu bihurtzeko aukera eta, horretarako, funtsezkoa da zutaberik ez egitea.*

Etxebizitza berri irengarriaren arazo nagusia merkatuko prezioak dira. Desgaitasunak dituzten pertsonen, sarrera oso baxuak dituztenek, ezin dituzte horrelako etxebizitzak eskuratu.

*Etxebizitza erabiliak ez ditu betetzen irengarritasun-irizpideak eta etxebizitza berri irengarria ez da eskuragarria ekonomikoki. Gutxi batzuk bakarrik eros dezakete etxebizitza berri bat merkatu libreak.*

Etxebizitza babestua da aukera bakarra mugimen-desgaitasuna duten pertsonentzat. Etxebizitza babestu publikoaren % 3 erreseba-kupo batean sartzean lortzen den diskriminazio positiboa justifikatzeko, kontuan hartu behar da mugimen-desgaitasuna duen pertsona batek ez dituela aukera berak higiezin-merkatuan bere ezaugarrietara egokitzen den etxebizitza bat aurkitzeko.



*Etxebizitza babestuaren erreserba-kupoa justifikatzeko, kontuan hartu behar da etxebizitza erabilien merkatuan ezinezkoa dutela etxebizitza bat eskuratzea eta berrian, etxebizitza librea bada, ezinezkoa dela etxebizitza bat eskuratzea, prezioagatik. Etxebizitza babestua da irtenbide bakarra. Etxebizitza eskuratzeko orduan egiten da diskriminazio positiboa, izan ere, etxebizitza beste guztiek bezalaxe ordaindu behar da ondoren.*

Etxebizitza babestuaren kasuan, maila ekonomikoa da oztopo nagusia. Desgaitasuna duen pertsona babes publikoko etxebizitza baten esleipendun suertatu eta gero, sarrera-maila baxua duenez oso zaila egiten zaio sustapen publikoko etxebizitza erosi edo alokatzeko ordainketei aurre egitea.

*Etxebizitza babestuaren beharra duten pertsonen sarrera-maila oso baxua dute.*


Azken finean, merkatu librean zein merkatu babestuan, etxebizitzaren beharrari erantzuteko desgaitasun bat duten pertsonen aurkitzen duten zailtasuna nagusia dituzten sarrera baxuak dira.

*Zeintzuk dira **taldearen behar nagusiak** etxebizitza bat eskuratzeko orduan? Behar ekonomikoa da nagusia.*

#### 4.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa

##### **a) Etxebizitza-politikaren xede diren taldeak**

Taldetik adierazi denez, mugimen-desgaitasuna duten pertsonen arreta bereziko talde bat osatzen dute, izan ere, ez dituzte gainerako pertsonen baldintza edo ezaugarri berak etxebizitzaren merkatuari dagokionez. Merkatu librean etxebizitza erabiliak ez daude egokituta eta, horrez gain, desgaitasun bat duten pertsonen ezinezkoa dute etxebizitza berriak dituzten prezioak ordaintzea.



*Mugimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko etxebizitza babestuaren erreserba-kupoa justifikatzeko, kontuan hartu behar da etxebizitza erabilien merkatuan ezinezkoa dutela etxebizitza bat eskuratzea eta berrian, etxebizitza librea bada, ezinezkoa dela etxebizitza bat eskuratzea, prezioagatik.*

Hala ere, desgaitasun bat duten pertsonentzako egiten den etxebizitza babestuen erreserba mugikortasun mugatuko pertsonentzat bakarrik egiten da gaur egun. Gainerako desgaitasunei dagokienez, kupo orokorrean sartzen dira babes publikoko etxebizitza eskuratzeko.


*Desgaitasunaren kontzeptua aldatzen da, halaber. Lehenago desgaitasuna zuen edozein pertsona sar zitekeen etxebizitzaren erreserba-kupoan, baina gaur egun mugimen-desgaitasuna duten pertsonak bakarrik egin dezakete: aulki gurpilduna erabiltzen dutenak, makuluak dituztenak, eta abar. Gainerako desgaitasunen kasuan, adimenekoak, ikusmenekoak, eta abar, etxebizitza babestua eskura dezakete gainerako kupoen bitartez, sarrera baxuak dituztelako.*

Taldetik azpimarratu denez, diskriminazio positiboa etxebizitza babestuaren esleipendun izateko bakarrik egiten da eta, ondoren, mugimen-desgaitasuna duten biztanleek ordainketak egin behar dituzte, etxebizitza babestuaren gainerako esleipendunen baldintza berdinekin, mailegu hitzartua izan (erosketa) zein alokairu babestuko errenta izan.

*Behin etxebizitza babestua esleitu eta gero, desgaitasuna duen pertsonak ordainketak egin behar ditu, gainerako esleipendunek bezala.*

## **b) Etxebizitzaren arazoaren konponbideak**

2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestari helduta berriro, desgaitasunak dituzten pertsonak bizi diren familien ustez, EAEko etxebizitza-arazoaren konponbide nagusiak dira etxebizitza babestu gehiago eraikitzea (% 41ek aipatu dute) eta alokairua sustatzea (% 29).



4.12. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek EAEko etxebizitzaren arazoa konpontzeko aipatutako konponbide posibleak

| baiezkoen %                              | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak | Familiak guztira EAE |
|--|---|----------------------|
| Etxebizitza babestu gehiago egitea       | 41,0  | 36,2                 |
| Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea | 11,7  | 15,8                 |
| Erosteko laguntza gehiago ematea         | 15,4  | 16,2                 |
| birgaitze-lanak laguntzea                | 12,4  | 8,4                  |
| Alokairua sustatzea                      | 28,9  | 27,5                 |
| Interes-tasak jaistea                    | 22,6  | 27,1                 |
| Eraikuntzari laguntzea                   | 1,7   | 2,6                  |
| Lurzorua merkatzea                       | 20,9  | 26,6                 |
| Beste hainbat neurri                     | 6,7   | 9,1                  |
| Eg/Ee                                    | 38,7  | 30,4                 |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


Eraikuntza berriko etxebizitza baten alokairu babestua jotzen du konponbide nagusitzat desgaitasun bat duen biztanleriak, taldearen ahalmen ekonomiko baxua kontuan hartuta.

*Etxebizitza babestu gehienak alokairuko etxebizitzak izan beharko lirateke. Etxebizitza babestu bat erosi nahi izanez gero, ez dute sarrera nahikoa etxebizitzaren ordainteketi aurre egiteko. Zenbaitek lortu dute erosteko etxebizitza babestu baten onuradun izatea, baina uko egin behar izan diote ordaintzeko ezintasunagatik. Alokatzeko etxebizitza babestuak ugaritzea.*


**c) Baliabide eta etxebizitza-zerbitzuen ezagupen-maila**

Lehen ere aipatu den moduan, desgaitasun bat duten pertsona gutxi daude izena emanda Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren bitartez ikus daiteke taldeak horrelako baliabide baten inguruan duen ezagupen-maila indize orokorra baino baxuagoa dela. Horrela, desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familien % 38k baieztatu dute Etxebide ezagutzen dutela eta % 44k esan dute inoiz entzun dutela zerbitzuari buruz hitz egiten. Gainerako % 21ek ezagutzen ez dutela adierazi dute eta proportzio hori % 17koa da euskal familien guztizkoari dagokionez.






4.8. grafikoa EAEko desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruz duten ezagupena



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Modu berean, aipatzekoa da desgaitasunak dituzten biztanleek babes publikoko etxebizitzaren eskatzaile gisa izena emateko bete behar diren baldintzei buruz erakutsitako ezagupen-maila baxua.

Desgaitasun bat duten pertsonen kasuan salbuespen bat egin da etxebizitza babestua eskuratzeko eskatzen den gutxieneko sarrera-mailari dagokionez (urteko 3.000 euro oro har). Desgaitasunak dituzten pertsonen taldeak erakutsitako sarrera-maila baxua dela-eta, baldintza hori kendu egin da EAEn etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak arautzen dituen arauditik.



*Eusko Jaurlaritzatik adierazi zutenez, ez zen eskaria nahikoa egiten desgaitasun bat duten pertsonentzako erreserbatutako etxebizitzak betetzeko eta, ondorioz, hutsik geratzen ziren. Baina konturatu ziren arazoa ez zela eskaria nahikoa ez zela egiten, baizik eta eskatzaile izateko baldintzak betetzen ez zirela, adibidez 3.000 euroko gutxieneko sarrerak edukitzeko baldintza.*

*Desgaitasun bat duten pertsonak enplegu-zentro berezietan egiten dute lan, edo pentsio ez-kontributibo bat kobratzen dute: urteko 8.000 euro inguru enplegu-zentro berezien kasuan, eta 3.000 euro inguru pentsio ez-kontributiboen kasuan.*

*Aldaketaren ondoren, desgaitasun bat duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko aukera ematen zaie.*


EAEn Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak salbuespen gehiago ezarri ditu etxebizitza babestuen eskatzaile gisa izena emateko orduan. Horrenbestez, mugimen-desgaitasuna eduki eta jabetzako etxebizitza ez duten pertsonak barne hartu dira salbuespenean.

Esanak esan, mugikortasun mugatu iraunkorra ziurtatuta duen kideren bat bizi den familiek babes publikoko etxebizitza bat eska dezakete, betiere iresgarria ez den eraikin batean kokatutako etxebizitza batean bizi badira. Horrez gain, etxebizitza propioa duten familiak etxebizitza trukatzeko programaren barruan sar daitezke (truke-mekanismoak baliatzen ditu programak).

Hala ere, mugimen-desgaitasuna duten pertsonen babes publikoko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko salbuespenak eta aukerak ez dira gehiegi baliatzen eta taldeak oso gutxi ezagutzen ditu, gainera.

*Jabetzako etxebizitza bat duten familien kasuan, trukea ezartzen da. Jende askok ez du aukera hori baliatzen, ez duelako ezagutzen.*

Lehenengo etxebizitza iresgarri egiteko beharra da desgaitasun bat duten biztanleen eskaeretakoa bat. Hala ere, 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, ez dira gehiegi ezagutzen Eusko



Jaurlaritzak birgaikuntzara bideratzen dituen laguntzak. Zehazkiago, desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren eta lehenengo etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 30ek ezagutzen dituzte.

**4.13. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren eta etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiek birgaitzeko laguntzei buruz duten ezagupena**

| Bertikalaren %  | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak | Familiak guztira EAE |
|---|---|----------------------|
| <b>Ezagutzen al dituzu Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko ematen dituen dirulaguntzak?</b> |   |                      |
| Badaki zer-nolakoak diren   | 29,6  | 36,3                 |
| Entzun du, baina ez daki zehazki  | 47,4  | 40,4                 |
| Ez daki existitzen direnik ere  | 23,0  | 23,3                 |
| <b>Eskatu al dituzu? *</b>  |   |                      |
| Bai, eskatu ditu  | 24,4  | 33,7                 |
| Bai, eskatzea pentsatu du   | 50,3  | 40,7                 |
| Ez ditu eskatu  | 18,3  | 20,7                 |
| Eg/Ee   | 7,1   | 4,9                  |

\* Laguntzak ezagutzen dituztela aitortu duten familiei egin zaie galdera.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Amaitzeko, desgaitasun bat duten pertsonak osatzen duten taldetik baieztatu denez, birgaikuntzarako laguntzak eskaintzen dira administrazioetatik (tokikoa, probintziakoa eta autonomikoa) eta desgaitasun bat duten pertsonak ez dituzte laguntza horiek ezagutzen.

***Eta, ezagutzen al dira birgaikuntzarako laguntzak?***

*Jende askok ez ditu ezagutzen, guk informazioa ematen diegu, eta iredgarritasun-zerbitzuaren bitartez erreformatan jarraituko den diseinua aztertzen dugu. Bete behar diren orriak eskaintzen dizkiegu, halaber. Auzoko elkarte ugari etortzen dira kontsultak egitera...*

*Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak egokitzeko laguntzak ematen ditu, eta Aldundiak eta zenbait Udalek ere eskaintzen dituzte laguntzak. Osagarriak direla uste dut. Kantitate baxuak ematen dira.*



#### d) *Jardueren balorazioa*

Azkenik, jarraian hainbat itemen deskribapena egin da, desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek etxebizitza esparruan egiten den eskuhartze publikoaren gainean duten asetasun-maila erakusteko. Eskuarki, biztanleriaren guztizkoarekin alderatuz desberdintasun esanguratsurik ez dagoela azpimarratu behar da.


Desgaitasun bat duen pertsona bat bizi den familiak alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea lege batean barne hartzeko neurriaren alde agertu dira. Aldeko iritzia eman dute, halaber, etxebizitza babestuaren baldintzen aldiroko berrikuspena egiteko aukerari buruz galdetzean, bai eta etxebizitzaren prezioak sarrera-mailaren arabera egokitzeko neurriari buruz galdetzean ere. Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek etxebizitza babestuak alokairuan sustatzeko eta kalifikazio mugagabea egiteko aldeko iritzia eman dute. Etxebizitza hutsen kanonari buruz galdetzean ez da adostasunik lortu.

#### 4.14. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek etxebizitzaren esparruko jarduerari buruz egindako balorazioa

|   | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak |
|---|---|
| Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzeko neurriarekiko adostasun-maila (0-100 indizea) | 85,9  |
| Etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna (0-100 indizea)                           | 83,0  |
| Diru-sarrera altuagoak dituztenentzat etxebizitza babestuak garestiagoak izatearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)                                   | 65,3  |
| Etxebizitza babestu gehiena alokatzeko eraikitze aukerarekiko adostasun maila (0-100 indizea)   | 64,6  |
| Etxebizitza babestuak mugagabekotzat kalifikatzearen aldekoak (baiezkoen %)   | 61,7  |
| Etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)   | 52,2  |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Etxebidek balorazio positiboa lortu du desgaitasun bat duten pertsonak dituzten familien aldetik, 58 punturekin (0-100). Hala ere, mesfidati agertu dira etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuei buruz galdetzean.



Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan egindako lanak 50 puntuko balorazio lortu du eta 48 puntukoa da Udalek lortutakoa, desgaitasun bat duten pertsonak dituzten familien artean.

**4.15. taula Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiek erakundeek etxebizitzaren esparruan egindako jardueri buruz egindako balorazioa**

|   | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiak |
|---|---|
| Etxebideren batez besteko balorazioa  | 56,8  |
| Etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuen gaineko batez besteko konfiantza                     | 42,8  |
| Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueren batez besteko balorazioa. | 49,7  |
| Udalek etxebizitzaren esparruan egiten dituzten jardueren batez besteko balorazioa              | 47,9  |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


#### 4.2.4. Jarduera-proposamenak

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen taldetik proposamen bat egin dute, politika publikoen bitartez etxebizitzaren esparruan garatzeko. Bat batean gertatzen diren desgaitasun larriek eragindako beharretara egokituta dagoen babes publikoko etxebizitzaren erreserba bat egiteko eskatzen da.

*Administrazioei betetzen ez diren eta liberatuta geratzen diren babes ofizialeko etxebizitzak gordetzeko eskatzen zaie, premiazko egoeretan erabiltzeko. Ez da horrela egiten. Istripuak gerta daitezke edozein unetan, eta igogailurik ez duen etxebizitza batean bizi bazara, ...*

#### 4.3. Esperientzia interesgarriak

2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planean zein etxebizitza-plan autonomiko askotan etxebizitza babestuaren % 4ko erreserba-kupoa ezarri da, desgaitasunak dituzten biztanleentzat. Modu berean, programa




ugari sortu da mugimen-desgaitasuna duten pertsonak bizi diren etxebizitzan oztopo arkitektonikoak desagerrarazten laguntzeko eta etxebizitzak iresgarri egiten laguntzeko.

4.16. taula Desgaitasun bat duten pertsonen arreta 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Planean

| Laguntza mota   | Estatuko Plana   |
|---|--|
| Erreserbakupoak   | <ul style="list-style-type: none"><li>• Etxebizitzen % 3ko erreserba etxebizitza babestuen proiektuetan, desgaitasunak eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzat.</li></ul>   |
| Oztopo arkitektonikoak desagerraraztea eta etxebizitzak egokitzea | <ul style="list-style-type: none"><li>• Iresgarritasuna hobetzea, eraikinak edo etxebizitzak desgaitasun bat duten pertsonen beharretara egokitzeko. Birgaikuntzaren Renove Plana izenekoan laguntzak definitzen dira bereziki, eta horien artean aipatzekoak dira igogailuak instalatzeko edo egokitzeko laguntzak, eta arrapalak edo bestelako gailuak edo informazio- eta orientazio-elementuak instalatzeko laguntzak; halaber, etxebizitzak desgaitasun bat duten pertsonen edo 65 urte baino gehiago dituztenen beharretara egokitzeko laguntzak definitzen dira.</li><li>• Renove Planaren laguntzak mailegu hitzartuak, subsidioak eta dirulaguntzak dira, aurrekontu babestuen % 25 arte, desgaitasun bat duten pertsonen etxebizitzak birgaitzeko.</li></ul> |

Iturria: 2009-2012 Etxebizitza eta Birgaitzearen Estatuko Plana.

Ondorengo taulan iresgarritasuna hobetzeko helburuarekin etxebizitzak birgaitzeko hainbat laguntza-programa barne hartu dira.




4.17. taula Desgaitasun bat duten pertsonentzako edo mugikortasun mugatuko pertsonentzako laguntzak hainbat autonomia-erkidegotan

| Laguntza mota         | Autonomia-erkidegoa | Deskribapena   |
|-----------------------|---------------------|--|
| birgaitzeko laguntzak | Andaluzia           | <ul style="list-style-type: none"><li>Oztopo arkitektonikoak desagerraraztea eta etxebizitzak egokitzea: 3.000-4.800 euro arteko dirulaguntza eta mailegu kualifikatua.</li></ul>  |
|                       | Aragoi              | <ul style="list-style-type: none"><li>Oztopo arkitektonikoak desagerraraztea eta etxebizitzak egokitzea: Aurrekontu babestuaren % 50 arteko dirulaguntza, 5.000 euroko mugarekin.</li></ul>  |
|                       | Asturias            | <ul style="list-style-type: none"><li>Oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko laguntzak mugikortasun mugatuko pertsonentzat edo 65 urte baino gehiago dutenentzat: obren % 100eko dirulaguntza, 2.000 euroko mugarekin, IPREM 3,5 aldiz arteko sarrerak dituzten sendiguneentzat.</li></ul>  |
|                       | Balear Uharteak     | <ul style="list-style-type: none"><li>Etxebizitzen birgaikuntzan, birgaikuntza-aurrekontu babestuaren % 25eko laguntza, gehienez ere 7.000 euro arte.</li><li>Etxebizitzak birgaitu eta ondoren gazteentzako alokairuan eskaintzeko, jabeak 4.000 euroko dirulaguntza jasoko du.</li><li>Dirulaguntza osagarriak oinarrizko errentako alokatzeko etxebizitza babestuen sustatzaileentzat, baldin eta azalerak ez badu 445 m<sup>2</sup> baino gehiago eta gazteentzat edo beste talde batzuentzat badira (adinekoak, desgaituak, etorkinak, unibertsitarioak, eta abar). Dirulaguntza 1.000 eurokoa izango da etxebizitza bakoitzarentzat.</li></ul> |
|                       | Kanariar Uharteak   | <ul style="list-style-type: none"><li>Oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko edo etxebizitzak egokitzeko laguntza osagarriak, Estatuko osagarriak: 2.700 euro eraikinak birgaitzeko eta 3.400 euro etxebizitzen banakako birgaikuntzarako.</li></ul>  |
|                       | Kantabria           | <ul style="list-style-type: none"><li>Iresgarritasuna hobetzeko Erkidegoak aurrekontu babestuaren % 10eko laguntza gehigarri bat ematen du.</li></ul>  |
|                       | Gaztela-Mantxa      | <ul style="list-style-type: none"><li>Bizigarritasuna eta iresgarritasuna hobetzeko obretarako laguntzak: laguntza gehigarria familia ugariarentzat, 65 urtetik gorako adinekoentzat, mendeko pertsonentzat edo ofizialki aitortutako desgaitasuna dutenentzat: aurrekontu babestuaren % 7,5, etxebizitza bakoitzagatik, 3.200 euro arte.</li></ul>  |

Iturria: AVJ buletina, 32. zk. - Ayudas de vivienda para jóvenes, 2009ko abendua. Bertan landua.

#### 4.4. Ebaluazio-adierazleak

Amaitzeko, desgaitasun bat duten biztanleekin erlazioan etxebizitzaren esparruan egindako esku-hartzearen zenbait ebaluazio-adierazle aipatu dira jarraian.




4.18. taula Desgaitasun bat duten pertonekin erlazioan etxebizitzaren esparruan egiten den esku-hartzearen ebaluazioa egiteko adierazleen proposamena

|    | <b>Adierazlea</b>  | <b>Iturria</b> |
|----|--|----------------|
| 1  | Etxebiden izena emandako desgaitasun bat duten biztanleak  | Etxebide       |
| 2  | Izena emandakoen tasa desgaitasun bat duen biztanleriaren guztizkoarekiko  | Etxebide       |
| 3  | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren eta aldatzeko beharra duten familiak  | EBEI           |
| 4  | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren eta birgaitzeko beharra duten familiak  | EBEI           |
| 5  | Desgaitasun bat duten pertsonen erosteko esleitutako etxebizitza kopurua   | EJ             |
| 6  | Desgaitasun bat duten pertsonen alokatzeko esleitutako etxebizitza kopurua   | EJ             |
| 7  | Batez besteko poztasun-maila, alokairuan esleitutako etxebizitza babestuekin   | EJ             |
| 8  | Iresgarritasun-arazoek eragindako birgaikuntzarako laguntzen ezagupena   | EJ             |
| 9  | Desgaitasun bat duten pertsonak bizi diren familiei Iresgarritasun-arazoek eragindako birgaikuntzarako emandako laguntza kopurua | EJ             |
| 10 | Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueretik batez besteko poztasun-maila                             | EJ             |

Iturria: Bertan landutakoa.





## 5. ATZERRITARREN ETXEBIZITZA BEHARRA


### 5.1. Taldearen ezaugarriak

#### 5.1.1. Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak

##### a) Taldearen kuantifikazioa


Gaur egun EAEn 132.189 atzerritar daude erroldatuta, hau da, biztanleriaren guztizkoaren % 6,1. Azken urteetan nabarmenki biziagotu da biztanleria atzerritarrek ezagutu duen hazkunde-prozesua.

5.1. grafikoa EAEn biztanleria atzerritar egoiliarren bilakaera, 1998-2009



Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

Lurraldeka, Araban dago atzerritar erroldatu gehien eta atzerritarrek dira Arabako biztanleria egoiliarren guztizkoaren % 8,2. Atzerritarren portzentajea % 6 ingurukoa da Bizkaiari eta Gipuzkoari.



5.1. taula Biztanleria atzerritar egoiliarra lurralde historikoka, 2009

|                    | Kop.           | % biztanleriaren guztizkoarekiko |
|--------------------|----------------|----------------------------------|
| Araba              | 25.851         | 8,24                             |
| Bizkaia            | 65.719         | 5,70                             |
| Gipuzkoa           | 40.619         | 5,76                             |
| <b>EAE GUZTIRA</b> | <b>132.189</b> | <b>6,09</b>                      |

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.


5.2. taula EAEn atzerritarrek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerekin erlazionatutako adierazle nagusiak

|  | Adierazlea  | EAE         | Data     | Iturria  |
|--|---|-------------|----------|----------|
| Adierazle demografikoak  | Atzerritarrak   | 132.189     | 2009     | EIN      |
|  | % biztanleriaren guztizkoarekiko  | 6,09        | 2009     | EIN      |
| Etxebizitza-adierazleak  | Jabetzako etxebizitza duten atzerritarren %                                     | 44,2%       | 2001     | EIN      |
|  | Alokairuan bizi diren atzerritarren %   | 52%         | 2001     | EIN      |
|  | Titular atzerritarrak Etxebideren eskaeretan                                    | 13.895      | 2009     | Etxebide |
|  | Titular atzerritarren % Etxebideko eskaeren guztizkoarekiko                     | 12%         | 2009     | Etxebide |
|  | Izena emandako atzerritarren tasa atzerritarren guztizkoarekiko                 | 10,5%       | 2009     | Etxebide |
|  | Etxebiden izena emandako atzerritarren urteko batez besteko sarrera pertsonalak | 11.799 euro | 2009     | Etxebide |
| Etxebiden izena emandako atzerritarren urteko batez besteko familia-sarrerak | 16.360  | 2009        | Etxebide |          |

Iturria: EIN eta Etxebide. Bertan landutakoa.

## b) Bizitegi- eta gizarte-ezaugarriak

Gizonezkoak dira EAEko atzerritar egoiliarren % 52; emakumezkoak dira % 48. Atzerritarrak bereziki gazteak dira; horrela, % 48k 25 eta 49 urte artean dituzte.



5.3. taula EAEko biztanle egoiliarren ezaugarriak nazionalitatearen arabera, 2009


| Bertikalaren %      | Atzerritarrak | Espainiarrak |
|---------------------|---------------|--------------|
| <b>Sexua</b>        |               |              |
| Gizonezkoak         | 51,9          | 48,7         |
| Emakumezkoak        | 48,1          | 51,3         |
| <b>Adina</b>        |               |              |
| 14 urte arte        | 19,6          | 12,9         |
| 15-24 urte          | 27,4          | 8,5          |
| 25-34 urte          | 28,7          | 14,1         |
| 35-49 urte          | 19,1          | 24,1         |
| 50-64 urte          | 4,0           | 20,4         |
| 65 urte eta gehiago | 1,1           | 20,0         |
| <b>GUZTIRA</b>      | <b>100,0</b>  | <b>100,0</b> |

Iturria: EIN. Udal Errolda

EAera iristen diren atzerritarrak gainerako biztanleak baino egoera okerragoan egoten dira (diru-sarrerei dagokienez, lan-egoerari dagokionez, eta abar), eta askotan bizileku-mota "ez-ohikoak" bilatu behar izaten dituzte: etxebizitza beste familiekin partekatzea, logelak alokatzea, eta abar.

2001eko Erroldako datuen arabera, soilik beren familietako kideekin bizi diren atzerritarren proportzioa gainerako biztanleena baino askoz ere baxuagoa da (% 56,7 eta % 97,6). Atzerritarren laurden bat baino gehiago familia batek eta senideak ez diren beste pertsona batzuk partekatutako etxebizitzatan bizi da.

Baina, horrez gain, familia ugari asko daude. Zehazki esateko, 5 kide edo gehiagoz osatutako familietan bizi dira % 41,1 (gainerako biztanleetan % 17,2 dira).




#### 5.4. taula EAEko familia atzerritar egoiliarren gizarte- eta bizitegi-ezaugarriak


| Bertikalaren %  | Atzerritarrak | Biztanleriaren gainerakoa |
|---|---------------|---------------------------|
| <b>Familia mota</b>                                     |               |                           |
| Pertsona bakarreko familiak                             | 5,4           | 7,1                       |
| Familia bakarrik  | 51,3          | 89,6                      |
| Bi familia edo gehiago, beste pertsonarik gabe          | 5,2           | 0,4                       |
| Familia bat, ahaidetu gabeko pertsonekin                | 25,3          | 2,1                       |
| Bi familia, ahaidetu gabeko pertsonekin                 | 5,3           | 0,1                       |
| Familiarik osatzen ez duten pertsona askoko sendiguneak | 7,5           | 0,8                       |
| <b>Sendiguneen neurria</b>                              |               |                           |
| 1 pertsona  | 5,4           | 7,1                       |
| 2 pertsona  | 15,0          | 18,6                      |
| 3 pertsona  | 18,0          | 25,5                      |
| 4 pertsona  | 20,5          | 31,6                      |
| 5 pertsona  | 14,6          | 11,5                      |
| 6 pertsona eta gehiago                                  | 26,5          | 5,7                       |
| <b>Edukitza-erregimena</b>                              |               |                           |
| Ordaindua   | 24,2          | 62,6                      |
| Ordaintzeke   | 17,5          | 23,3                      |
| Jaraunspena edo dohaintza                               | 2,4           | 4,8                       |
| Alokairua   | 51,8          | 6,0                       |
| Utzitakoa   | 1,8           | 1,4                       |
| Beste hainbat   | 2,2           | 1,8                       |

Iturria: EIN. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Modu berean, atzerritarrak bizi diren etxebizitzaren ezaugarrietan ere aldeak nabari dira. Atzerritarren erdia baino gehiago alokairuan bizi dira (% 51,8). Gainerako biztanleen kasuan oso gutxi dira (% 6) edukitza-erregimen horretan bizi direnak.



5.2. grafikoa EAEko familia atzerritar egoiliarren edukitza-erregimenaren banaketa, 2001



Iturria: EIN. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.


2005ean Etxebiden izena emandako biztanle atzerritarrei egindako azterketari helduta, taldeko % 54k uste dute bizi diren etxebizitzak baldintza onak edo oso onak dituela. % 31ek erdipurdikotzat jo dituzte eta % 16k baldintza txarrak edo oso txarrak dituztela azpimarratu dute.

Atzerritarrek bizi diren etxebizitzaren ezaugarrien batez besteko balorazioa 61 puntukoa da, 0-100 eskala batean, Etxebiden izena emanda dauden atzerritarrek adierazi dutenez, eta balorazio hori euskal familien artean lortutakoaren (84 puntu) azpitik dago.

5.5. taula Atzerritarrek bizi diren etxebizitzetxei buruz egindako balorazioa

|   | Bertikalaren % |
|---|----------------|
| Oso ona   | 14,2           |
| Nahiko ona                                      | 39,5           |
| Tartekoa  | 30,5           |
| Nahiko txarra                                   | 9,0            |
| Oso txarra                                      | 6,8            |
| <b>Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)</b> | <b>61,3</b>    |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebiden izena emandako atzerritarrei egindako inkesta (2005-II)



## 5.1.2. Beharren ezaugarriak

### a) Etxebizitza-beharraren kuantifikazioa


EAEko biztanle atzerritar egoiliarren etxebizitza-beharrari helduta, 2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak erakusten du atzerritarren artean gainerako familien artean baino handiagoa dela etxebizitza aldatzeko beharra.

Zehazkiago, atzerritarren % 29k aitortu dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra, euskal familien guztizkoan lortutako portzentajea (% 4,9) nabarmenki gaindituz. Lehenengo etxebizitza birgaitzeko beharrak ez ditu hainbeste familia atzerritar eragiten eta % 8k adierazi dute horrelako beharra.


### 5.6. taula Atzerritarrek osatutako familien etxebizitzaren esparruko behar mota

|                     | Nazionalitate atzerritarra duen familiaburua | Nazionalitate espainola duen familiaburua | Familiak guztira EAE |
|---------------------|--|---|----------------------|
| Aldatzeko beharra   | 28,5   | 4,5                                       | 4,9                  |
| Birgaitzeko beharra | 7,8  | 15,6                                      | 15,5                 |
| Beharrik ez         | 63,7   | 79,8                                      | 79,6                 |
| <b>GUZTIRA</b>      | <b>100,0</b>                                 | <b>100,0</b>                              | <b>100,0</b>         |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.



### 5.3. grafikoa Atzerritarren banaketa behar motaren arabera EAEn



Iturria: Bertan landutakoa.


#### b) Etxebizitza-beharraren ezaugarriak

Familiaburuak nazionalitate atzerritarra duen familietan ohiko etxebizitza aldatzeko behar-maila 73 puntukoa da (0-100 eskala), aztertu diren gainerako familiek aitortutakoa (68 puntu) baino zerbait altuagoa.

Atzerritarren artean berriki sortu da ohiko etxebizitza aldatzeko beharra; hain zuzen ere, taldetik % 61ek adierazi dute 4 urte baino gutxiago daramatzatela egoera horretan.

Atzerritarrek ohiko etxebizitza aldatzeko agertu duten beharrari helduta azpimarratzekoa da, halaber, 4 urteren buruan beharrari erantzuteko aukerei buruz galdetzean agertzen duten baikortasuna.

Amaitzeko, aldatzeko beharra sortzen duten arrazoi nagusien artean aipa daitezke, gaur egungo etxebizitzaren tamaina desegokia, jabetzako etxebizitza bat edukitzeko gogoia eta alokairu merkeago bat lortzeko beharra.



5.7. taula EAEko familia atzerritarren etxebizitza aldatzeko beharren ezaugarriak

|   | Nazionalitate atzerritarra duen familiaburua | Nazionalitate espainola duen familiaburua | Familiak guztira EAE |
|---|--|---|----------------------|
| <b>Beharren ezaugarriak</b>   |  |   |                      |
| Aldatzeko batez besteko behar-maila (0-100 indizea)                         | 72,8   | 68,2                                      | 68,6                 |
| Beharrak irauten duen denbora > 4 urte (%)                                  | 39,0   | 53,9                                      | 52,5                 |
| 4 urteren buruan aldatzeko aukera (aukera handiak dituztela uste dutenen %) | 55,3   | 47,4                                      | 48,1                 |
| <b>Beharren arrazoiak</b>   |  |   |                      |
| Tamaina desegokia   | 27,8   | 30,2                                      | 30,0                 |
| Bizi-baldintza eskasak  | 14,6   | 16,8                                      | 16,6                 |
| Jabetza nahiago   | 29,7   | 13,9                                      | 15,4                 |
| Errenta merkeagoa nahi du   | 16,7   | 4,1                                       | 5,3                  |
| Beste hainbat arrazoi   | 11,1   | 35,0                                      | 32,7                 |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>100,0</b>                                 | <b>100,0</b>                              | <b>100,0</b>         |


\* Aldatzeko beharra duten familiei buruzko datuak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


**c) Etxebizitza babestuaren eskaria**

2009ko datuen arabera, 13.895 atzerritar daude Etxebiden izena emanda etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa. Datu horrek garbi uzten du EAEko biztanle atzerritar egoiliarren % 11 Etxebiden izena emanda daudela; eta eskatzaileen guztizkoarekiko, nazionalitate atzerritarra duten pertsonak dira Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda dagoen biztanleriaren guztizkoaren % 12.






5.4. grafikoa Etxebiden izena emandako biztanle atzerritarren etxebizitza babestuaren eskariaren bilakaera



Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.


Esparru geografikoka, Araban 4.370 atzerritar daude Etxebiden izena emanda etxebizitza-eskatzaile gisa, 5.788 dira Bizkaian eta 3.250 Gipuzkoan.

5. 5. grafikoa Etxebiden izena emandako biztanleria atzerritarren etxebizitza babestuaren eskaria lurralde historikoka, 2009



Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Etxebiden babes publikoko etxebizitzaren eskatzaile diren atzerritarren ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, % 52 emakumezkoak eta % 48 gizonezkoak direla aipatu behar da, lehenik eta behin.




Eskatzaile atzerritar gehienek (% 57) 35 urte baino gehiago dute, espainiarren artean % 40 dira.

Etxebiden izena emandako atzerritarren egoera zibila oso desberdina da nazionalitate espainola duen biztanleriarenarekin alderatuz. Horrela, izena emanda dauden atzerritarren % 55 ezkondata daude eta % 38 bakarrik dira ezkongabeak. Hain zuzen ere, txostenen % 70 sendiguneen txostenak dira; % 22koa da portzentajea eskari espainolari erreparatzen bazaio.

Sarrera-mailari dagokionez, nazionalitate atzerritarreko biztanleriak urteko 11.799 euroko batez besteko sarrera pertsonalak ditu; 16.360 eurokoak dira sendiguneen kasuan. Bi kopuruak nazionalitate espainoleko eskatzaileen artean lortutakoan azpitik daude.

Etxebideren informazioaren arabera, izena emanda dauden atzerritarren % 22k ez dute sarrerarik; % 32k 9.000 eurotik beherako sarrerak dituzte; eta % 45ek, azkenik, 9.000 eta 25.000 euro artekoak.


Amaitzeko, eta sendiguneen txostenei erreparatuz, aipatzekoa da etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda dauden nazionalitate atzerritarreko familien % 74k seme/alabak dituztela; proportzio hori % 50ekoa da nazionalitate espainoleko familien artean.



5.8. taula Etxebiden izena emandako atzerritarren ezaugarriak, 2009


| Bertikalaren %                                | Atzerritarrak | Espainiarrak  |
|---|---------------|---------------|
| <b>Sexua</b>                                  |               |               |
| Gizonezkoak                                   | 47,7          | 52,8          |
| Emakumezkoak                                  | 52,3          | 47,2          |
| <b>Adina</b>                                  |               |               |
| 18-24 urte                                    | 4,8           | 5,1           |
| 25-29 urte                                    | 15,3          | 27,9          |
| 30-34 urte                                    | 22,8          | 27,4          |
| 35-39 urte                                    | 21,9          | 14,5          |
| 40-49 urte                                    | 24,7          | 14,9          |
| 50-59 urte                                    | 8,2           | 5,4           |
| 60 edo gehiago                                | 1,9           | 4,6           |
| <b>Egoera zibila</b>                          |               |               |
| Ezkongabea                                    | 37,5          | 80,6          |
| Ezkondua                                      | 55,4          | 11,4          |
| Alarguna                                      | 1,0           | 1,2           |
| Banatua                                       | 1,9           | 3,3           |
| Dibortziatua                                  | 4,2           | 3,5           |
| <b>Banakako sarreraren banaketa</b>           |               |               |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 21,8          | 2,8           |
| 9000 € arte                                   | 32,0          | 17,3          |
| 9.001-25.000 €                                | 44,5          | 65,4          |
| 25.001-39.000 €                               | 1,6           | 13,5          |
| 39.001-50.000 €                               | 0,1           | 0,9           |
| > 50.000 €                                    | 0,0           | 1,0           |
| <b>Batez beste diru-sarrerak</b>              | <b>11.799</b> | <b>16.699</b> |
| <b>Familiaren diru-sarreraren banaketa</b>    |               |               |
| Diru-sarrerarik gabe                          | 6,9           | 1,1           |
| 9000 € arte                                   | 24,7          | 12,3          |
| 9.001-25.000 €                                | 55,8          | 63,9          |
| 25.001-39.000 €                               | 11,1          | 20,1          |
| 39.001-50.000 €                               | 1,3           | 2,4           |
| > 50.000 €                                    | 0,2           | 0,3           |
| <b>Familiaren batez besteko diru-sarrerak</b> | <b>16.360</b> | <b>19.121</b> |
| <b>Txosten mota</b>                           |               |               |
| Banakako eskaerak                             | 30,0          | 78,0          |
| Sendiguneak                                   | 70,0          | 22,0          |
| <b>Sendiguneetako seme/alaba kop.</b>         |               |               |
| Seme-alabarik gabe                            | 25,9          | 49,9          |
| 1 seme-alaba                                  | 35,1          | 30,3          |
| 2 seme-alaba                                  | 23,5          | 14,6          |
| 3 seme-alaba edo gehiago                      | 15,5          | 5,2           |

Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



Eskatzen den etxebizitza motari dagokionez, etxebizitza babestuaren eskatzaile diren atzerritarren artean gehiago dira alokairua lehenesten dutenak. Horrela, alokairua aipatu dute edukitza-erregimen gisa atzerritarren % 52k. Eskaeren % 40 alokairuko eta jabetzako eskariak dira. Jabetzako etxebizitza babestua lehenetsi dute izena emandako atzerritarren % 8k.

5.6. grafikoa Atzerritarrek Etxebiden eskatzen duten etxebizitza babestuaren edukitza-erregimena




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


## 5.2. Taldeak egiten duen balorazioa

### 5.2.1. Etxebizitza-merkatuaren balorazioa

2008ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren bitartez identifikatutako atzerritarren iritzia erreferentziatzat hartuta, aipatzekoa da azken urtean etxebizitzaren prezioak mantendu direla uste duela taldeko zati zabal batek. Bestalde, etxebizitza babestuaren eraikuntza nabarmenki areagotu dela uste du taldeak.



5.7. grafikoa Atzerritarrek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.


5.9. taula Atzerritarrek etxebizitzaren merkatuari buruz egindako balorazioa

|  | Familiaburu atzerritarra |
|--|--------------------------|
| Etxebizitzaren prezioak azken 12 hilabeteetan izandako bilakaera (0-100 batez besteko indizea) | 50,4                     |
| Etxebizitza babestuaren eraikuntzaren bilakaera (0-100 batez besteko indizea)                  | 73,8                     |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Etxebizitza librearen merkatuari dagokionez, atzerritarrek alokairuen prezioak oso garestiak direla azpimarratu dute eta, ondorioz, finantza-ahalegin izugarria eskatzen duten alokairuko errentak ordaindu behar izaten dituztela.

*Egiten den finantza-ahalegina gomendagarria denaz haraindi doa eta gauza ugari uko egin behar zaio gainera.*



### 5.2.2. Etxebizitza-beharraren balorazioa

Atzerritarrek agertutako etxebizitza-beharrean eragin nabarmena du ekonomia-krisialdi orokorra dela-eta taldeak bizi duen egoera ekonomiko zailak. Taldean erregistratutako langabezia-tasak hazkunde nabarmena ezagutu du azken urtean eta, ondorioz, zailtasun handiak ari dira sortzen etxebizitzaren ordainketak egiteko, bai alokairua denean, baina erosketa denean.

*Gaur egun atzerritarren % 28 langabezia daude, etxebizitzaren prezioak ez dira merkeagotu... egoerak ezin du okerragoa izan. Egoera ona izan denean, zaila zen etxebizitza bat eskuratzeko (prezio altuak, aurreiritziak, diskriminazioa); orain, lehen alokairua ordaindu zezakeen jendeak ez du alokairua ordaintzeko dirurik, batez ere langabeziak eta egoera ezegonkorrek eraginda. Lehen lanik ezegonkorrenetan lan egiten zuten atzerritarrak langabezia daude gaur egun eta askoz zailagoa da.*


Bestalde, taldeak alokairuko etxebizitza libre bat eskuratzeko orduan duen zailtasun handienetako bat da atzerritarra izatea. Esanak esan, eta erreferentzia moduan Etxebiden izena emandako atzerritarrei 2005ean egindako Inkesta hartuta, % 66k baieztatu dute etxebizitza eskuratzeko zailtasun dezente edo asko dutela etorkinak izateagatik.

#### 5.10. taula Etorkinak izateagatik etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunen balorazioa

| Etorkinak izateagatik etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunen balorazioa | Bertikalaren % |
|---|----------------|
| Zailtasun handia  | 50,2           |
| Dezenteko zailtasuna  | 15,7           |
| Zailtasun ertaina   | 5,8            |
| Zailtasun gutxi   | 8,5            |
| Oso zailtasun gutxi   | 17,4           |
| Eg/Ee   | 2,5            |
| <b>Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)</b>                             | <b>68,7</b>    |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebiden izena emandako atzerritarrei egindako inkesta (2005-II)

Zentzu horretan, Laguntza-Etxea Gipuzkoako Caritas-ek atzerritarrei arreta eskaintzeko duen zentrotik, baieztatu denez, kasu askotan etxebizitzaren jabeek atzerritarrei alokatzen dizkiete etxebizitzak bertoko maizterrak



lortzen ez dituztenean. Etxebizitzaren baldintza kaxkarrak izan ohi dira bertoko maizterrik ez lortzeko arrazoi nagusia.

*Askok atzerritarrei alokatzen dizkiete etxebizitzak, bertoko maizterrak aurkitzen ez dituztenean, eta, kasu askotan, etxebizitzaren baldintza kaxkarrengatik ez dira lortzen bertoko maizterrak.*


Atzerritarren taldeak bizi duen beste arazo bat alokairuko etxebizitzari dagokion sarrera ordaintzea izan ohi da. Gaur egungo merkatuko legeen arabera, diru-kantitate izugarri altuak behar izaten dira logela bat edo etxebizitza bat alokatu ahal izateko. Jabeek abal eta fidantza oso altuak eskatzen dituzte etxebizitza alokatzeko orduan eta, bestetik, higiezin-agentziei ordaindu behar zaie, bitartekaritza-lanen truke.

*Lehenik eta behin, alokairuko etxebizitza batean sartzeko abala ordaindu behar da. Lehen kopuru ordaingarriak ziren baina egun atzerritar gutxi batzuk ordain ditzakete eskatzen diren kopuruak. 2.000 euro behar dira batez beste logela batean sartzeko eta 4.000 edo 5.000 dira etxebizitza batean sartzeko. Atzerritarrek, ordaintzeaz gain, ez du kontraturik, ez du eskubiderik, edozein egunetan kalean gera daiteke, ez du babesik... Babesgabe dago higiezin-agentzien aurrean. Kontratu bat egiten da eta bilatzen hasteko ordaindu egin behar dute, eta, gero, etxebizitza bat lortzean, agentziak urteko alokairuaren % 12 arteko kopuruak kobratzen ditu, eta abal desberdinak ezartzen dira, zenbait kasutan 7 milioi pezeta artekoak... kopuru neurrigabeak erabat...*

Dagoeneko alokairuko etxebizitza batean bizi diren atzerritarren zailtasun nagusia alokairuaren errentari aurre egitea da. Atzerritarren zati handi batek gizarte-erakundeen dirulaguntzak eta laguntza publikoak baliatzen ditu etxebizitzaren alokairua ordaintzeko.

*Jada etxebizitza batean daudenek zailtasunak dituzte ordainketak egiteko eta etorkinei laguntzeko GKEetara jotzen dute, edo Caritas bezalako erakundeetara jotzen dute. Caritas da ordainketak egiteko diru gehien bideratzen duen erakundea; gainera, gora egin dute oinarritzko gizarte-zerbitzuetan alokairua ordaintzeko egindako laguntza-eskaerak.*

Atzerritarrek oso aukera gutxi dituzte merkatu librean jabetzako etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Inkestan parte hartu duten atzerritarren artetik



% 90ek baino gehiagok uste dute oso aukera gutxi dutela edo aukerarik ez dutela etxebizitza bat erosteko.

5.11. taula Pertsona atzerritarrek merkatu libreko etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko dituzten aukeren balorazioa

| <b>Merkatu librean etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko aukerak</b> |             |
|---|-------------|
| Aukera handiak  | 1,3         |
| Aukera dezente  | 2,7         |
| Tarteko iritzia   | 5,2         |
| Aukera gutxi  | 16,7        |
| Aukerarik ez  | 74,1        |
| <b>Batez besteko balorazioa. (0-100 indizea)</b>                    | <b>10,1</b> |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebiden izena emandako atzerritarrei egindako inkesta (2005-II)


Modu berean, azpimarratzekoak dira gaur egun atzerritarrek aurretik kontratatutako hipotekak ordaintzeko dituzten zailtasun handiak. Gaur egungo krisialdi ekonomikoaren ondorioz, hipoteka asko ez dira ordaintzen eta, ondorioz, etxebizitza asko banku-erakundeen esku ari dira geratzen, zorra ordaintzeko.

*Erosketari dagokionez, kreditua merke zegoenean atzerritar asko etxebizitza erostera animatu zen. Askok baldintza oso txarretan egin zuten, eta gaur egun zenbaitek arazoak dituzte ordaintzen berandutzagatik. Kutxa-rekin hartutako hipoteka-kreditu batzuen kasuan, etxebizitzak ordainean eman dira, hau da, etxebizitza bankuari eman zaio, eta diru-kantitate oso altuak zor dituzte zenbaitek gainera (baina hipotekarengatik baino gutxiago).*

Caritas-en Laguntza-Etxea zentrotik azpimarratzen denez, atzerritarren artean infraetxeak, pilaketak eta kalean bizi diren pertsonak daude.

*Pilaketak, atzerritar asko bizi dira infraetxeetan, etxe utzietan (azarotik martxora 90 plaza eskaintzen dira premia handiko egoeretan jendeak kalean lorik egin ez dezan) Donostian, eta bakarrik bizi ziren familia askok logela bat alokatu behar izan dute aurrera ateratzeko. Eta egoerak okerrera egingo du.*





### 5.2.3. Etxebizitza-politikaren balorazioa

#### a) Etxebizitza-politikaren xede den taldea

Atzerritarren taldearen ustez, etxebizitza-politikak biztanle guztiak berdin tratatu beharko lituzke oro har, eta talde bat lehenesteko irizpideak etxebizitza babestuen eskatzaileen sarrera-mailak izan beharko luke.

*Oro har biztanleria guztiak izan behar du politikaren xede, eta jatorriak eta nazionalitateak ez dute faktore garrantzitsu bat izan behar, ez alde ez kontra, eta sarrera-maila, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak eta kalteberatasun-egoera izango dira esku hartzeko irizpideak.*

Etxebiden izena emandako biztanleria atzerritarrak adierazi duenez, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan etorkinek bertoko pertsonen eskubide berdinak eduki beharko lituzkete.


#### 5.12 taula Etorkinek etxebizitza babestua eskuratzeko duten eskubidea, 2005

|  | bertikalaren % |
|--|----------------|
| <b>ETXEBIZITZA BABESTUAK LORTZEKO ORDUAN ATZERRITARREK BERTAKO BIZTANLEEK DITUZTEN ESKUBIDE BERAK IZAN BEHAR AL DITUZTE?</b> |                |
| Erabat ados  | 79,1           |
| Nahiko ados  | 12,7           |
| Desadostasuna  | 4,0            |
| Desadostasun handia  | 0,8            |
| Eg/Ee  | 3,4            |
| <b>Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100</b>  | <b>92,0</b>    |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebiden izena emandako atzerritarrei egindako inkesta (2005-II)

Bestalde, Caritas-en Laguntza-Etxea zentrotik kalteberatasun handiko hainbat egoera aipatzen dira etxebizitzaren esparruan.

*Paperik ez duten pertsonak daude egoera ahulenean. Normalean ez dute bitarteko ekonomikorik izaten, edo ezin dituzte alokairuko etxebizitza bat erosteko ordainketak egin, edo erosketaren ordainketak egin...  
Arreta berezia jarri beharko litzateke genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen gainean.  
Seme/alabak dituzten familiak ere kontuan hartu beharko lirateke...*



## b) Etxebizitzaren arazoaren konponbideak

Atzerritarrek alokairua sustatzea aipatu dute etxebizitzaren arazoaren konponbide nagusizat, eta ondoren aipatu dute etxebizitza babestu gehiago egiteko aukera eta etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurria.

### 5.13 taula EAEko etxebizitzaren arazoa konpontzeko soluzio posibleen balorazioa atzerritarren aldetik


| baiezkoen %                              | Atzerritarrak |
|--|---------------|
| Alokairua sustatzea                      | 37,0          |
| Etxebizitza babestu gehiago egitea       | 32,4          |
| Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea | 29,7          |
| Interes-tasak jaistea                    | 21,8          |
| Lurzorua merkatzea                       | 14,0          |
| Erosteko laguntza gehiago ematea         | 13,9          |
| birgaitze-lanak laguntzea                | 10,3          |
| Beste hainbat neurri                     | 5,0           |
| Eg/Ee                                    | 36,0          |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Laguntza-Etxea zentrotik behin eta berriro azpimarratu da etxebizitza-politikaren bitartez etxebizitza librearen prezioa kontrolatzeko beharra, bai eta politika publikoei buruzko informazio-sistema hobetzeko ere.

*Konponbidearen zati bat politikoa da: etxebizitzaren prezioa sarreren arabera arautzen lagunduko duten politikak martxan jartzea, gerta daitezkeen gehiegikerien aurkako neurriak ezartzea. Eta, batez ere, politika publikoei buruzko informazioa ematea.*

Modu berean, Etxebiden izena emandako atzerritarrek uste dute etorkinei etxebizitza duin bat lortzen laguntzeko neurri bereziak ezarri behar direla.



5.14 taula Atzerritarrek etxebizitza duina lortzen laguntzeko neurri bereziak ezartzeko beharra


|  | bertikalaren % |
|--|----------------|
| <b>ATZERRITARREK ETXEBIZITZA DUINA LORTZEA ERRAZTEKO NEURRI BEREZIAK ABIAN JARRI BEHAR DIRELA USTE DUZU?</b> |                |
| Erabat ados  | 51,6           |
| Nahiko ados  | 22,8           |
| Desadostasuna  | 11,1           |
| Desadostasun handia  | 7,3            |
| Eg/Ee  | 7,3            |
| <b>Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100</b>  | <b>76,0</b>    |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebiden izena emandako atzerritarrei egindako inkesta (2005-II)

c) **Baliabide eta zerbitzu publikoen ezagupen-maila**


Atzerritarren artean askok ezagutzen dute Etxebide. Zehazkiago, galdetutako pertsonen % 57k baieztatu dute Etxebide ezagutzen dutela, % 26k adierazi dute inoiz entzun dutela berari buruz hitz egiten eta % 17k esan dute ez dutela ezagutzen.

5.8 grafikoa Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ezagupena atzerritarren artean



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Caritas-ek adierazi duenez, etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak ezagutzen ez dituztela da Etxebiden izena eman gabe egoteko arrazoi nagusia.



*Informazio-defizita dago, jendeak izena emateko txosten bat aurkezteko orduan, adibidez... ez dira etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak ezagutzen, jendeak badaki babes ofizialeko etxebizitzak daudela, baina askotan hemengo jendearentzat direla pentsatzen dute, edo egin beharreko izapideak zorrotzeziak direla, eta dokumentazio gehiegi eskatzen zaiela, ezer ez lortzeko.*

Amaitzeko, atzerritarren artean baxuagoa da Bizigune Programaren ezagupen-maila. Horrez gain, azpimarratzekoa da atzerritarren artean etxebizitzaren beharrari erantzuteko premia handiagoa dela.


*Bizigune ez da hainbeste ezagutzen, informazio-defizita dago, jende askok entzun du programari buruz hitz egiten, baina ez dakite zertan datzan edo premiazkotasunak eraginda, ezinegona sortzen da eta dei baten zain egon behar bada, interesa galtzen da...*

#### **d) Politika publikoaren balorazioa**

2008ko EBEIren bitartez galdetutako atzerritarren iritzia erreferentziatatzat hartuta, garrantzi handia eman zaio alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera pertsona orok duen eskubide gisa Lege batean barne hartzeko akordio batera iristeko beharrari.

Biztanle atzerritarrek etxebizitza babestu gehienak alokairuko etxebizitzak izan behar dutela uste dute. Alokairuaren eskaria Etxebiden oso altua da atzerritarren taldean eta erregimen horretako etxebizitza babestuak ari dira eskuratzen batez ere.

*Etxebizitza babestua eskuratzen ari dira, alokairukoa batez ere, izan ere, bertoko pertsona askok uko egiten diote etxebizitzari eta atzerritar asko zozketa bidez edo itxarote zerrenden bitartez ari dira etxebizitza horiek eskuratzen... eta proportzioan pertsona atzerritar gehiago daude alokairuan bizitzen eta izena emanda. Halaber, atzerritarren ehuneko altu batek eskuratzen ditu jabetzako etxebizitzak.*



Zentzu horretan, Laguntza-Etxea zentrotik adierazi denez, etxebizitza-politikarekin alokairua lagundu beharko litzateke, etxebizitza librearen erosketara lagundu beharrean.


*Jabetza-eskubidea ahalmen ekonomikoarekin erlazionatu behar da, eta alokairua sustatu behar da, eta etxebizitza bat ordaindu ezin duten pertsonen etxebizitza eskuratzeko lagundu behar zaie, etxebizitzaren jabe izan nahi duenak merkatuko arauak bete beharko ditu, baina agintaritzek merkatu librearen arautzeko ahaleginak behar dute.*

Alokairuari dagokionez, zalantzan jarri da EAEn alokairua ordaintzeko laguntza nahikoa dagoela. Alde batetik, Etxebizitzarako Gehigarria dago. Gizarte Larrialdiko Laguntzen ordezkaria da eta Eusko Jaurlaritzak banatzen du. Gaur egun laguntza hori jasotzen zuten atzerritar asko atzera-aurrera gabeko egoeran dago, txostenak Udaletatik Eusko Jaurlaritzara pasa direlako. Emantzipazio-errentari dagokionez, atzerritarren taldeak ezin du laguntza eskuratu, ez baitu betetzen 5 urtetik gorako egoitza legala edukitzeko baldintza. Baldintza hori atzerritarren taldeak zati txiki batek betetzen du.

*Etxebizitza ordaintzeko dirulaguntzen balorazioa*  
*Etxebizitzarako laguntzak: GLLak daude. Aldatu egin dira eta Eusko Jaurlaritzaren kontura dira orain, ... GLL kobratzen zuen jende askori jakinarazi zaio txostena Eusko Jaurlaritzara lekualdatu dela ofizioz, eta erabaki baten zain daudela; bien bitartean, ez dago konponbiderik... GLLekin ez zen alokairuaren balio osoa estaltzen, % 70, eta merkatuko errealitatekin urrun geratzen ziren mugak zeuden.*

*Emantzipazio-errentari dagokionez, ... errenta hori eskuratzeko baldintza bat da Espainian gutxienez bost urte daramatzatela ziurtatzen duen baimena edukitzea eta, ondorioz, atzerritar gehienek ezin dute emantzipazio-errenta eskatu.*

Bestalde, atzerritarren artean adostasun handia lortu da etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro berrikusteko neurriari buruz galdetzean, eta etxebizitza hutsen kanonari eta etxebizitza babestuen kalifikazio mugagabeari buruz galdetzean.



### 5.15. taula Atzerritarrek etxebizitzaren esparruko jardueri buruz egindako balorazioa

|   | Atzerritarrek |
|---|---------------|
| Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera Lege batean pertsona orok duen eskubide gisa barne hartzeko neurriarekiko adostasun-maila (0-100 indizea) | 90,4          |
| Etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak aldiro-aldiro berrikusteko neurriarekiko batez besteko adostasuna (0-100 indizea)                           | 84,9          |
| Etxebizitza babestu gehiena alokatzeko eraikitzeo aukerarekiko adostasun maila (0-100 indizea)  | 76,7          |
| Etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)   | 73,3          |
| Etxebizitza babestuak mugagabekotzat kalifikatzearen aldekoak (baiezkoen %)   | 70,8          |
| Diru-sarrera altuagoak dituztenentzat etxebizitza babestuak garestiagoak izatearekiko adostasun-maila (0-100 indizea)                                   | 63,0          |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

Etxebizitza babestu garestienak sarrera-maila altueneko eskatzaileei esleitzeko neurriari buruz galdetzean, atzerritarrek 63 puntuko batez besteko adostasuna agertu dute (0-100 eskala).


Atzerritarren taldearen iritziz, etxebizitza babestuaren prezioa egokia da, etxebizitza librearen prezioarekin alderatzen bada; gainera, merkatu libreko alokairua ordaintzeko finantza-ahalegina etxebizitza babestua erosi edo alokatzeko egin beharrekoa baino altuagoa da.

*Etxebizitza babestuaren prezioaren balorazioa*

*Etxebizitza librearen prezioekin alderatuz oso ondo dago, baina beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuz, prezio nahiko altua dute... Atzerritarrek prezio horiek ordain ditzakete, etxebizitza librea ordaintzeko egiten den ahalegina da, ...*

Etxebideri buruz atzerritarrek emandako iritzia biztanleriak oro har emandakoaren antzekoa da. Horrela, 100 puntutik 53 puntuko batez besteko puntuazioa eman diote Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari.

Atzerritarrek konfiantza positiboa erakutsi dute etxebizitza babestua esleitzeko prozesuen gainean (euskal familiek kontrako iritzia dute), eta 100 puntutik 51 puntuko batez besteko puntuaziora iritsi da.



Atzerritarren taldeak aldeko iritzia agertu du, halaber, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren esparruan egiten duten jarduerari buruz galdetzean.

**5.16. taula Atzerritarrek etxebizitzaren esparruan esku hartzen duten erakundeei buruz egindako balorazioa**

|   | Atzerritarrak |
|---|---------------|
| Etxebideren batez besteko balorazioa  | 52,9          |
| Etxebizitza babestuaren esleipen-prozesuen gaineko batez besteko konfiantza                     | 50,8          |
| Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueren batez besteko balorazioa. | 56,1          |
| Udalek etxebizitzaren esparruan egiten dituzten jardueren batez besteko balorazioa              | 54,6          |


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

#### 5.2.4. Jarduera-proposamenak

Laguntza-Etxea Caritas-ek atzerritarrei laguntzeko duen zentrotik azpimarratu denez, erroldatzearekin lotutako baldintza aldatu beharko litzateke babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko. Etorquinek erakutsitako mugikortasun altuaren ondorioz, askotan ezin izaten dute babes publikoko etxebizitzaren zozketetan parte hartu, ez baitira iristen erroldatuta egoteko gutxieneko denbora betetzera.

Modu berean, udaleko Gizarte Zerbitzuetatik izapidetzen diren etxebizitza-behar handiko kasuetan babes publikoko etxebizitzaren zozketetan parte hartzeko formulak ezartzeko aukera aztertu da.

*Etxebideren zozketetan parte hartzeko gutxienez urtebete erroldatuta egoteko baldintzaren balorazioa: etorkinen mugikortasuna kontuan hartuta, behar gehiago duten batzuk zozketatik kanpo geratzen dira, eta muga bat jarri behar da nonbait, baina behar bada zailtasun handiak dituzten familientzako formulak prestatu beharko liriateke, adibidez gizarte-zerbitzuen txosten baten bitartez zozketan parte hartzeko aukera ematea, ...*



Halaber, alokatzeko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria lotuko dituen programa bat sortzeko beharra azpimarratu da. Sortetxe Programa aipatu da: etorkinentzako etxebizitzak kudeatzeko ekimen bat da. Programaren helburuen artean azpimarratzekoa da etxebizitza duin baten kudeaketa lortzea, etorkin guztiak modu arduratsuan gizarteratu ahal izateko.

### 5.3. Esperientzia interesgarriak


Atzerritarren taldetik zati handi bat alokairuko etxebizitza baten bizi dela kontuan hartuta, jarraian zenbait autonomia-erkidegotan talde bereziei ematen zaizkien alokairurako laguntzen zerrenda bat ikus daiteke.

5.17 taula Alokairurako laguntzak talde berezientzat hainbat autonomia-erkidegotan

| Laguntza mota          | Autonomia-erkidegoa | Deskribapena  |
|------------------------|---------------------|---|
| ALOKAIRURAKO LAGUNTZAK | Estatuko Plana      | <ul style="list-style-type: none"><li>• IPREM 2,5 aldiz baino sarrera baxuagoak dituzten maizterrentzako laguntzak: urteko errentaren % 40 arteko dirulaguntza etxebizitza bakoitzagatik, 3.200 euroko mugarekin.</li><li>• Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta, 22-29 urte artean (biak barne) eta urteko 22.000 euro gordinetik beherako sarrerak dituzten gazteentzat: alokairurako laguntza: hileko 210 euro.</li></ul>   |
|                        | Asturias            | <ul style="list-style-type: none"><li>• Estatuko eta autonomia-erkidegoetako alokairurako laguntzen kopurua % 10 areagotzen da lehentasunezko arretako taldeen kasuan. Dirulaguntzak gehienez ere 24 hilabete irauten ditu, eta betiere dirulaguntza emateko baldintzak mantentzen diren bitartean.</li></ul>   |
|                        | Kantabria           | <ul style="list-style-type: none"><li>• Lehentasunezko arretako taldeetako maizterrek, alokairua ordaintzeko Estatuak ematen duen laguntzaz gain, % 10eko kopuru gehigarria jasoko dute; urtean gehienez ere 3.520 eurokoa izango da laguntza eta autonomia-erkidego bakoitzak bere gain hartuko du.</li></ul>  |
|                        | Katalunia           | <ul style="list-style-type: none"><li>• Zailtasunak dituzten maizterrei alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntzak; edo horiek jasotzeko eskubidea aitortuko zaie, bizitegi-mailako gizarte-bazterkeria saihesteko helburuarekin.</li></ul>  |
|                        | Galizia             | <ul style="list-style-type: none"><li>• Maizterrentzako laguntzak eskuratzeko lehentasuna: etxebizitzagatik hilean 390 euro ordainduko dira eta laguntzak ez du alokairuaren errentaren % 60 gaindituko, IPREM bider 0,7 eta 1 arteko sarrera haztatuak dituztenen kasuan; sarrerak IPREM bider 1 eta 2 aldiz artean kokatzen badira, 470 eurokoa izango da gehienez errenta eta % 50ekoa, berriz, errentaren gehienezko laguntza. Sarrera haztatuak IPREM bider 2 eta 2,5 artekoak direnean, 600 eurokoa da gehieneko errenta eta % 50ekoa laguntza. Gehienez ere 12 hilabeteko iraupena edukiko dute laguntzek eta ez dira 5 urte baino gehiago luzatuko.</li></ul> |
|                        | Errioxa             | <ul style="list-style-type: none"><li>• Dirulaguntza talde bereziek alokairua ordaintzeko sarreraren % 20 baino gehiagoko ahalegin ekonomikoa egin ez dezaten.</li></ul>  |
|                        | Nafarroa            | <ul style="list-style-type: none"><li>• Erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren alokairuan, genero-indarkeriaren biktimei alokairuaren hileroko errenta laguntzeko dirulaguntza gehigarri bat jasoko dute: % 90ekoa izango da lehen urtean eta % 75eko bigarrean.</li></ul>  |

Iturria: AVJ buletina, 32. zk. - Ayudas de vivienda para jóvenes, 2009ko abendua. Bertan landua.






### 5.3.1. Ebaluazio-adierazleak

Amaitzeko, biztanleriaren atzerritarrekin jarraituz etxebizitza-politika publikoen ebaluazioa egiteko adierazleekin zerrenda bat osatu da.

5.18 taula Atzerritarrekin erlazioan etxebizitzaren esparruan garatzen den politika publikoaren ebaluazioa egiteko adierazleen proposamena

|    | Adierazlea   | Iturria  |
|----|--|----------|
| 1  | Etxebiden izena emandako atzerritarrak (<35 urte)  | Etxebide |
| 2  | Izena emandakoen tasa atzerritarren guztizkoarekiko  | Etxebide |
| 3  | Aldatzeko beharra duten eta pertsona atzerritarrek osatutako familiak                                | EBEI     |
| 4  | Alokairuan bizi diren atzerritarren finantza-ahalegina   | --       |
| 5  | Etorkinak izateagatik etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunen balorazioa                          | --       |
| 6  | Atzerritarrei erosteko esleitutako etxebizitza kopurua   | EJ       |
| 7  | Atzerritarrei alokairuan esleitutako etxebizitza kopurua   | EJ       |
| 8  | Atzerritarrei Bizigune-n esleitutako etxebizitza erabilien kopurua                                   | EJ       |
| 9  | Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren esparruan garatzen dituen jardueretik batez besteko poztasun-maila | EJ       |
| 10 | Pertsona atzerritarrei emandako etxebizitzarako laguntza osagarriak                                  | EJ       |


Iturria: Bertan landutakoa.



## 6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

EAEko biztanleriak aipatutako arazoen artean etxebizitzarekin erlazionatutakoek eragin handia dute eta arazo nagusitzat aipatzen dituzte gazteek. Gazteek bizi duten lan-ezegonkortasuna da oztopo nagusia jabetzako zein alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Etxebizitza babestu gehiago egitea da gazteek proposatu duten konponbide nagusia. Zentzu horretan, Etxebiden gazteek egindako babes publikoko etxebizitzaren eskaria 67.000 pertsonara iristen da. Jabetza aukeratu dute etxebizitza babestuaren eskatzaile diren gazteen % 44k. Alokairuko etxebizitzaren eskariari dagokionez, gazteek aurkeztutako 31.236 txosten daude.

Adinekoak dira gaur egungo biztanleen % 19, eta gero eta gehiago izango direla aurreikusi da. Aldi berean, etxebizitzak pertsonaren bizi-zikloaren ezaugarrietara egokitzeko beharraren ondorioz gero eta birgaitzeko eskari gehiago egingo dela aurreikusi da. Gaur egun adineko familien % 16k adierazi dute ohiko etxebizitza birgaitzeko beharra dutela, nahiz eta taldean ez diren gehiegi ezagutzen birgaikuntzara bideratzen diren laguntzak. Adineko biztanleen artean nahiko baxua da etxebizitza babestuaren eskaria (3.300 eskari); hala ere, adineko familia askok jada badute jabetzako etxebizitza bat. Etxebizitzaren iresgarritasunarekin erlazionatutako arrazoiak direla-eta etxebizitza babestua eskuratzeko aukerak eta trukatzeko mekanismoak ez dira gehiegi ezagutzen adinekoen artean.



Mugimen-desgaitasunak dituzten biztanleei dagokienez, oztopo nagusitzat aipatu dute merkatu libreko zein babestuko etxebizitza bat eskuratzeko duten gaitasun ekonomiko baxua. Mugimen-desgaitasuna duten pertsonentzako sustatutako etxebizitza babestuen artean erreserba-kupo bat osatu bada ere, Etxebiden erregistratutako eskaria nahiko baxua da. 2008an 724 txosten aurkeztu ziren.

Atzerriko pertsonak dira EAEko biztanleriaren % 6 eta erdia baino gehiago alokairuko etxebizitza batean bizi dira. Etxebizitzaren esparruko zailtasun nagusia da krisialdi ekonomiko orokorraren ondorioz erosteko ahalmena galdu dutela. Taldeko zati garrantzitsu batek zailtasunak ditu etxebizitza librearen alokairuari edo hipotekari dagozkion ordainketak egiteko. Atzerritarrek egindako babes publikoko etxebizitzaren eskaria 14.000 eskarik osatzen dute, hau da, Etxebiden izena emandako biztanleriaren % 12. Horrela, alokairua aipatu dute edukitza-erregimen gisa atzerritarren % 52k; % 40k alokairua edo jabetza, biak, aipatu dituzte.

Amaitzeko, aztertutako taldeek egindako aldarrikapen nagusiak etxebizitza babestu gehiago egitea eta alokairu babestua sustatzea direla azpimarra daiteke. Gainera, EAEn etxebizitzaren esparruan eskaintzen diren baliabideak eta laguntzak hobeto ezagutzera emateko eta informazio gehiago emateko beharra azpimarratu da.